

HEINRICH
VON KLEIST

MICHAEL KOHLHAAS

Itzulpena: Xabier Mendiguren
Hitzaurrea: Joseba Sarrionandia



Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Heinrich von Kleist

MICHAEL KOHLHAAS

Heinrich von Kleist

MICHAEL KOHLHAAS

Itzultzailea:
Xabier Mendiguren



katakarak
liburuak

Jatorrizko izenburua (1808): *Michael Kohlhaas. Aus einer alten Chronik*

Lehenengo edizioa: *Michael Kohlhaas*

Egilea: **Heinrich von Kleist**

Jatorrizkoaren lizentzia: **Jabetza publikoa**

Argitalpen honen lizentzia: **CC BY-SA 3.0**

Barruko argazkiaren egilea: Itoitzekiko solidarioak

Barruko argazkiaren lizentzia: **CC BY-NC**

Itzulpena: **Xabier Mendiguren Bereziartu**

Hitzaurrea: **Joseba Sarrionandia Uribelarrea**

Azalaren diseinua eta azken oharreko marrazkia: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: **2018ko azaroa**

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Lan honek Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bat jaso du

ISBN: 978-84-16946-20-4

Lege gordailua: NA 2710-2018

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
HITZAURREA (Joseba Sarrionandia)	17
AURKEZPENA (Xabier Mendiguren)	23
MICHAEL KOHLHAAS	27



CONTRACCIONE

117



ARGITALETXEAREN OHARRA JUSTIZIAREN MUTURRERAINOKO BIDAIA

Begira, jauntxoak eta dirudunak daude lukurreria bakoitzaren jatorrian, apropiazio bidegabe bakoitzaren eta lapurreta bakoitzaren jatorrian; toki guztietatik hartzen dute: uretatik arrainak, airetik hegaztiak, lurretik zuhaitzak (Isaias 5:8). Eta gero txiroen artean Jainkoaren «Ez duzu lapurtuko» mandamentua zabaltzen dute. Baina horrek ez du haienzako balio. Miseriara murrizten dute jendea, nekazariak larrutzen eta artisauak eta bizidun bakoitza lumatzen dute (Mikeas 3:4-4). Eta beraientzat, huts txikienak urkamendia justifikatzen du.

Thomas Müntzer

Injustizia baten istorioa da hau. Michael Kohlhaas zaldi-tratulariak jasaten duen injustiziarena. Baina Kohlhaas ez da soilik fikziozko pertsonaia bat. Izan zen Kohlhaas bat historian, Hans Kohlhaase zuen izena, edonoren izena da Hans alemanez. Hans Kohlhaas: Inorrez Jauna. Baina Heinrich von Kleist nobelistak Michael jarri zion nobelan eta aipatu zuen «Mikel goiaingeru» bat zela, indartsua eta intrantsigen-

tea; «aingeru suntsitzailea» zela, errukigabea, krudela, nardagarria, «atzerritarra» bizi den lurrean, aingeru bat zen.

Zergatik bihurtu zuen Kleistek Kohlhaas goiaingeru bat? Antonia Fonyiren aburuz «posizio ideologiko bat hartu zuen: pertsona arruntari eman nahi zion ongia eta gaizkia bereizten duen ezpata».¹ Giza kondizioan gorpuztutako aingeru bat da Kohlhaas, aingeru preso bat. Bide ilegal bat jarraitzen du Estatuak ezin duelako legea inposatu, bide ilegal bat jarraitzen du zilegitasunaren bila. Injustiziei aurre egin nahi die eta justiziak garai dezala «bere burua eskaintzeraino, gizatiarra ez den mespretxu bat daukalako heriotzarekiko». Bizitza maite du eta heriotzarekiko mespretxuak hilko du.

Ekintzen bidezko propaganda

Eleberri gisa, *Michael Kohlhaas* mendebaldeko literatura unibertsalaren erreferentzietako bat da due-la bi mende argitaratu zutenetik. Lehenengo eleberri erromantikoa izan zen alemanez. Baina bere gaurkotasunak, ziurrenik, afera formal batekin baino «afera ideologikoekin» du lotura, Fonyik nabarmentzen duen bezala. Kleisten Kohlhaas «hiritar» bat da, Erregimen Zaharraren kontra egiten du borroka. Baina sortzen ari den ordena berriak, burgesiaren ordenak, ez dio justizia segurtatzen. Eta, ordea, bi munduengan du konfiantza hasiera batean. Berak uste du baietz, justizia formalak Justizia ekarriko diola. Maldan behera, konturatzen den arte ezetz, lurreko justiziari aurre egin behar diola Justizia lortzeko. Eta andrea hilko diote, lurrak kendu, eta burua moztu, egia bat defendatzeagatik.

1 Antonia Fonyi in Heinrich von Kleist, *Michael Kohlhaas*, Flammarion: 1992 Paris. 9.-27. or.

Eta ordea, liburu honetan kontatzen dena errebolta bat da, ez da iraultza bat, Furio Jesik egiten duen bereizketaren zentzuan:

Erreboltak kanpo uzten du epe luzerako estrategia, epe historiko oso luzeko estrategia bat dakarrelako. Errebolta estrategia iraultzailearen kontrakoa da, ez duelako biharra prestatzen, baizik eta etzia. Iraultzak oso adi neurtzen ditu matxinatuen superbibentzien aukerak: beharrezkoa da bihar bizirik egotea eta, gero, bihar eta, gero, bihar. Erreboltak desafio egiten dio, nabarmen, biziraute «historizistari».²

Alegia, Kohlhaasekin erreboltan ari direnei berdin zaie biziraungo duten, etzia axola zaie. Ondorio guztiekin: erreboltan parte hartzen dutenekiko, aurrean izango dituztenekiko, eta ondoren etorriko direnekiko. Zeren, injustiziaren irakurketez osatutako nobela asko dauzkagu eskura, baina hau ez da horietako bat, hau justizia egiten saiatzen direnei buruzko nobela bat da. Ezohiko planteamendu bat eta ohiko ondorio narratibo tamalgarri bat: justizia bilatzen duenak are egoera injustuagoa ezagutuko du bere bidaiaren amaieran.

Omnia sunt communia?

Eleberri honetan murgiltzean, segidan entzun-go dituzu Thomas Müntzer teologoaren oihartzunak. Müntzerrek Erreforma Luterok baina urrunago gidatu nahi izan zuen anabaptistekin batera. Anabaptistak ere, Kohlhaas bezala, Luterok gutun bidez idatzi bezala «amorrua duten zakurrak bezala urkatu» zituzten. Haiek ere justizia nahi zuten eta hala irakurri zituzten XIX. mendean eta XX.ean 1524-1525eko nekazarien

2 Furio Jesi, *Spartakus. Simbología de la revuelta*, Adriana Hidalgo: 2014 Buenos Aires. 168.-169. or.

matxinada aztertu zutenek (Georg Theodor Strobel, Friedrich Engels: *Alemaniko nekazarien gerra*, Ernst Bloch: *Thomas Muntzer, iraultzaren teologoa*). Erdi Aroak etorriko den erreboltaren aurrekariak dira.

Baina 1525ean, 300.000 nekazari matxinatu horiek galdu egin zuten Frankenhausenen. 100.000-130.000 hilko zituzten, tartean Müntzer bera. Bere emazteak jaiotzetiko abizena hartuko zuen, bere ondorengoek abizena aldatuko zuten. Baina bere idazkiek, beren programa erlijioso-politikoa ia Europa osora iritsiko zen: erlijioko mediazioen kontra, justizia sozialaren alde, jauntxoek eta Elizaren pribilegioen kontra. XX. mendera iritsiko zen, Alemaniako Errepublika Demokratikoan, adibidez, Thomas Müntzer biletetan agertzen zen eta hiri bati ere bere izena jarriko zioten, muralak egingo zizkieten teologoari estatu ateo hartan. XXI. mendera, aurki dezakegu «guztia komuna da» (*Omnia sunt communia*) gartzetxeetako hormetan, argialetxe erradikalen lelo gisa ala sare sozialetan norbanakoek jartzen dituzten deskripzioetan.

Eta ordea, tradizio liberalak, Müntzerrengan munstro totalitarioa ikusiko du: hipotesi komunistaren eta faxismoaren inspirazioa³. Allende eta Lumumba Hitlerrekin berdinduz Müntzerren Kristo matxinatuaren enegarren bizitza ikusi ordez.

Kohlhaas: bizitza asko izan dituen klasiko bat

Kohlhaasek beste bizitza asko izan ditu literaturan. Franz Kafka bera hunkitzen zen istorioetako bat zen hau eta finean, ez ote da *Prozesua* ere *Michael Kohlhaasen* beste aldaera bat? XVI. mendeko estatuen berezko injustizian beharrean XX. mendearen hasie-

3 Thierry Labica in Ernst Bloch, *Thomas Munzer, théologien de la révolution*, Les prairies ordinaires: 2012 Paris. 5.-24. or

rara ekartzen duena «Austria zaharreko gobernuaren forma burokratiko inplizituaren kritika»⁴. Hainbeste antza dute K.ren munduak eta Kohlhaasenak, narrazioetako baten hezurdura kontatuko bagenu ez genukeela jakingo bietako zein istorioari buruz ari garen. Are gehiago, *Prozesua* irakurrita, Kohlhaasen istorioa irakurriko dugu: «Erakunde handi bat dago. Erakunde bat ez dutena soilik zaindari ustelek osatzen, inspektore ergelek eta instrukzio epaileek, kasurik onenean pertsona zintzoak izango dira, baina gainera magistratu gorenen multzo bat dago, laguntzailez, eskribauez, jendarmeez eta bestelako langile multzo nabarmen eta ekidinezinarekin, borrareroak ere egon daitezke... eta zein da erakunde handi honen helburua...? Jende errugabea atxilotzea eta haien kontra zentzurik gabeko prozesu bat zabaltzea eta, kasu gehienetan, nire kasuan bezala, alferrikakoa».

Von Kleisten eleberriaren itzala luzea da. Aurki dezakegu Doctorowen *Ragtime* eleberrian (pertsonaia nagusiak Coalhouse Walker du izena), Lehen Mundu Gerraren aurretik kokatutako *beste* Kohlhaas bat izango dugu, Henry Ford eta Emma Goldmanen erkidea. Ez ditu zaldiak hezten eta saltzen baina pianista da Harlemen. Coetzeeren *Life & Times of Michael K* eleberrian 1970eko hamarkadako Apartheideko Hego Afrikan kokatuta irakurriko dugu. Zinean ere eleberriaren bi bertsio eder landu dira: 1969an Volker Schlöndorffek eta 2013an Arnaud des Pallièresek zuzenduta. Eta, Andrei Zvyagintsev zuzendari handiak *Leviathan* film puska ere Kleisten eleberrian oinarritu zuen. Hizkuntza askotako pentsalariek aztertu izan dute eleberri hau (Louis Aragon, Stefan Zweig, Ernst Bloch).

4 Hannah Arendt, *La tradición oculta*, Paidós: 2004 Bartzelona. 93. or.

Itzulera

Duela 25 urte iritsi zen, Literatura Unibertsala bildumaren bidez, estreinakoz, Kleisten eleberri hau euskarara. Katalogoz kanpo zegoen aspaldi eta, bitartean, Bidasoaren bi hegietan baziren hiruzpalau edizio erdaretan. Horregatik itzuli da, txukunduta, eta Joseba Sarrionandiaren hitzurre biografiko batekin: guk ere izan dezagun apaletan. Geu ere izan gaitezen, berrargitalpen honen bidez, zuztarreko eraldaketaren inguruan planteatzen dituen aferen inguruan eztabaidan. Hemengo eta oraingo galderak ez direlako nolana hikoak eta ez dutelako, tamalez, gaurkotasunik galdu.

Iruñea

2018ko urria

HITZAURREA

Volker Schlöndorffen *Michael Kohlhaas*, *Der Rebell* (1969) ikusi nuen 1979 aldean Bilboko Zababuruko multizinean. Heinrich von Kleisten *Michael Kohlhaas* (1811) eleberriaren euskal edizioaren hitzaurrea egiteko aukera eman zait orain, berrogei urte geroago, Habanan, eskarmentu askoren ondoren, pertsonaia hobeto konprenitzearen zentzazioarekin.

Eleberrian kontatzen diren gertaerak errazak dira laburbiltzeko: XVI mendeko Saxonian, merkatura bidean doan zaldi tratante bati pasabidea moztu diote handiki baten lurraldea zeharkatzean. Bi zaldi hoberenak kendu dizkiote, igarobaimen bat ekarri arte. Handik egunetara, bueltan, zaldiak suntsituta aurkituko ditu, lan gogorretan erabili dituztelako, eta haiekin geratutako morroia jipoituta. Michaelen justizia erreklamazioak alferrikakoak dira, epaileek handikia babeten dutelako. Injustizia nagusi den herri horretatik alde egitea pentsatzen du Michaellek, baina emazteak justizia lortzeko beste ahalegin bat egin nahi du. Hilzorian itzuliko da etxera andrea, tribunaleko

zaindari batek kolpatuta. Orduan hasten da Michaelen errebeldia eta mendekua. Handikiaren gaztelua erreko du lehenengo, jauntxoa bera aurkitu ez arren barruan, hango beste batzuk akabatuz. Eta harrezkero zaldiketa itzelari ekingo dio Michaellek, jende pobretu eta erresuminduz osatuko duen armadarekin, handikien aurkako gerran, herrialdea osoa kaltetuz.

«Legearen babesa ukatzen zaion hari deitzen diot nik, [...] eta ukatzen didanak basamortuko basatiengana bidaltzen nau; neure burua babesteko ezpata jartzen dit eskuan» esango du Michael Kohlhaasek berak.

Michael Kohlhaas, handiki harroen eta epaile injustuen kontra justiziaren alde bortxaz erbelatzen denaren arketipoa unibertsala da. Noiz arte aguantatu injustizia armak hartu gabe? Egokia edo beharrezkoa da iraultza armatua Estatu injustuaren aurka? Erresistentzia eskubidea deitzen zaio horri. Baina, eskubideak, behetik gora eskatzen direnean delinkuenteen gauza dira. Eskubideak lapurtu egin behar izaten dira, Prometeok sua ostu zuen bezala.

Heinrich von Kleistek duela 200 urte idatzi zuen *Michael Kohlhaas* eleberria, duela 500 urteko gertaera batzuetan oinarrituz. Errebelioaren gaia unibertsala da eta, literaturaren historian, Antzinako Egiptoko izkribuetan ere agertzen da, *Ipuwerren negarkantan*:

Gizajoek Erregea ohildu dute,
behartsuak dira orain tesoroen jabe:
buztingilearen tornua bezala dabil
herria jirabiran.
Aberatsak dolutan daude, pobreak lorian,
eta oihu bat zabaltzen da hirietan:
bota ditzagun gure artetik
nagusi izan nahi dutenak!

Michael Kohlhaasek beste izen asko izan ditu: Espartako, bagaudeak, Vata, Wat Tyler, Jan Hus, Peter Gaiß, Francesc de Verntallat, Roi Xordo, Hatuey, Lope Agirrekoa, gizon arrunta (*Erhebung des gemeinen Mannes*), Juan Ponce Sumuroy, Bernard Goihenetxe, Tupac Amaru, Yemelian Pugachov, Fletcher Christian, Virgulino Ferreira da Silva, Mohamed Abdelkrim, Patrick Pearse, Ibrahim Bek, Antonio Soto, Emiliano Zapata... Izen ezagun eta ezagunen euria. Bandidoak, matxinoak, filibusteroak, intsurrektuak, basmatxiak, kangazeiroak, gerrillariak, makiak. Eta, historiak amaitzeko itxurarik ez duenez, sekula baino gaurkotasun handiagokoa da gaia. Zer da ba Michael Kohlhaas gaur egun? Terrorista, jakina.

Eleberria hiru partetan bana daiteke: injustiziaren partea, mendekuaren parte eta soluzioaren parte. Lehenengoan, ez da zaldien kontua bakarrik, hori injustizia orokorraren adibide edo metafora bat da, herrialde osoan nagusi den egitura baita. Bigarren partean, Kohlhaasen mendekua Saxoniako handikien aurkako zapalduen gerra bihurtzen da, eta justizia bila indartzen den errebeldia gerraren ezinbesteko injustiziarekin nahasten da.

Injustiziari buelta emateko errebolta ez da gero, ipuin politetan bezala, justizia lortuz amaitzen. Injustizia kontestuan zaila da justizia antzematea, ezintasunak eragindako biolentzia ez da ordenatua eta moderatua izaten, boterea duenak ere ez du gupidarik izaten. Errebeldeen eta Saxoniako estatuaren arteko gerra suntsidura eta kalte orokor amaitezina bihurtzen da.

Egoera eskuetatik joan zaiola oharturik, justizia aurkitzeko irtenbide bila, Kohlhaasek Martin Luteren erreferentzia morala hartzen du haintzat. Luteren

ikuspegian, benetako justizia izan balitz ez legoke gerririk, baina jende pobreaken errebeldia bekatu itzela da («*de furorem rusticorum libera nos Domine*») eta Jainkoaren probidentziaz fidatu beharra dago. Luteroren proposamena etsaiak barkatu eta errespetatzeko da. Kohlhaasen ikuspegia bestelakoa da: ez dago barkamenik ez errespeturik justiziarik ez dagoenean, justizia da barkamenaren eta errespetuaren abiapuntua.

Eleberriaren hirugarren partearen errendizioaren eta Justizia nagusiaren berrinstalazioarena da. Ordu-ra artekoa bezala, Kleisten kontra objektiboa eta eutsia da bake itunaren inguruko zalantzak eta eztabaidak deskribatzen dituen. Kohlhaasek bakea proposatuko dio Saxoniako gobernuari bi baldintzarekin: abiapuntuan behintzat injustiziaren kontra errebelatu zela aitortzea, eta amnistia bai berarentzat eta bai beste errebeldeentzat. Estatu Kontseiluko batzuek arrazoiaren parte bat eman nahi diote Kohlhaasi: injustiziaren kontra errebelatu zen eta, pragmatikoki ere, arazo larria konponduko litzateke, amnistiarekin, bakea eginez gero. Beste kontseilari batzuk ez dute jarrera hori onartzen: ados leudeke bake ituna beste estatu batekin balitz, baina bertako errebeldeei arrazoa ematea parekotzat onartzea litzateke. Argi utzi behar da nork agintzen duen, Wezel von Tronka handikiaren ahaide batek argudiatuko duenez. Ezin zaie errebeldeei arrazoirik batere eman, bestela edozein injustiziaren aurka errebelatuko lirateke. Herriak ez litzuke gauzak dauden moduan onartuko.

Justizia aurkitzeko Michael Kohlhaasen azken ahalegina, bere burua entregatuta, sententzia bikoitzez erabakiko dute Saxoniako Kontseiluak eta Printzeak. Alde batetik, onartzen da Kohlhaasen justizia erreklamazio txikia, bi zaldien auzian arrazoa emanez.

Wezel von Tronkak bi zaldiekin egindakoa ordaindu beharko dio zaldi tratanteari... Eta, behin Justiziaren oker konkretu hori soluzionatuta, Justizia legitimatuta, Kohlhaas kondenatuko dute, honen delituak askozaz larriagoak direnez gero, gerra krimenengatik, heriotzara.

Michael Kohlhaas eleberrian, Heinrich von Kleisten errealismo garratza azaltzen da. Erromantizismoa, araubide literarioa izateaz gainera, proposamen filosofiko eta etikoa zen batez ere: askatasun estetika eta utopia mito batzuk zekartzan. Baina Kleist idazle erromantikorik errealistena eta erradikalena izan zen eta haren literaturak Franz Kafkaren ezagugarriak ziztuen ja: gizakia gatibaturik dabil, askatasunik lortzeko modurik gabe. Mundua, miseria eta zoritxarraren espazioa da, erremediorik gabe.

Irakurleak aho zabalik geratuko gara Saxoniako handikien Justiziaren oinarri larri tragikoei eta, beharbada, geure inguruari begira. Michael Kohlhaasen justiziaren aldeko jardunbidean ez dago liberazio esperantzarik, erromantizismoarekin azaltzen zen bezalakorik, baizik errealitatearen gotortasun mugagabea, XX. mendeko espresionismoarekin azalduko zen modukoa.

Joseba Sarrionandia
Habana, 2018ko urria

AURKEZPENA

Heinrich von Kleist (1777-1811) idazleak gaztaroko urteetan jadanik familiako tradizio zuen karrera militarri heldu zion, baina laster aldendu zen bide horretatik filosofia eta matematikak ikasteko. Kanten *Arrazoi hutsaren kritika* irakurri ondoren Egia absoluturik ez dagoelakoaz jabeturik, beste egi mota batzuk bereganatzen saiatu zen, eta ahalegin horretan inolako koderen menpe ez dagoen erabateko askatasuna eta sentimenduen mundua sakontzen eta ikertzen aritu zen. Bere obran argi eta garbi ageri da gizakiak duen askatasun-egarriaren eta gizarte-ingurune zentzugabeak ezartzen dizkion zailtasun eta mugen arteko kontraesana. Bere obra dramatiko ezagunenak *Pentecostea*, *Amphitryon*, *Txarro hautsia*, *Katerina von Heilbronn* eta drama postumoak: *Hermannen bataila* eta *Homburgetako Friedrich Printzea*. *Michael Kohlhaas* eta *O.ko Markesa* bere narraziorik hoberenak dira. Kleist idazleak bere buruaz beste egin zuen izaera erritualeko suizidio baten bidez, Henrietta Vogel bere adiskidearekin batera.

Michael Kohlhaasen idazleak bere justizia nahiak boterearekin aurrez aurre tupust egitera eta ondorioz heriotzara daraman gizon baten istorioa kontatzen digu. Berezko erroak dituen eta arrazionalizazio guztiak baino lehenagokoa den errebeldia honek, heroi erromantikoaren eredu bikain bihurtzen du Kohlhaas. Eustaquio Barjauk dioenez, «Ohikoa ez den obra bat irakurtzera goaz. Gutxitan egon da diskurtso epikoa beste edozein dimentsio literarioz gabetuago eta, aldi berean, erretratu psikologiko eta mezu moral baten zerbitzurago».

Kleisten kontakizunean ia ez dago deskribapenik, ez ekintza gertatzen den tokienik ez bertan esku hartzen duten pertsonaienik ere. Batzuetan hasperen gisa Kohlhaasen ahotik hitz bakanen bat ateratzen da aurkitzen deneko egoeraren iruzkina eginez, eta hala eta guztiz ere, narrazio hau irakurriz, pertsonaia baten erretratu psikologiko zehatz eta benetako baten aurrean aurkitzen gara. Ekintzaren nolakoak eta pertsonaien erretolika luzeek gaiaren eta pertsonaiaren muinera garamatzate. Protagonista nolakoa den esan beharrik ez dago, nola jokatzeko duen ikusiz gero. Erretratu psikologikoaren edozein ezaugarrik balio dinamikoa besterik ez du: narratzaileak zerbait esaten digunerako, ordurako irakurleok badakigu nolakoa den hernia.

Bestalde, Kleisten kontakizun hau, zenbaitek azpimarratu dutenez, egiazko hizkuntza abentura bat da. Jakina da alemana subordinaziorako erraztasun berezia duen hizkuntza dela, idatzizkoan behintzat. Alemanak informazioa trinkotu eta metatzeko duen gaitasuna aparta da, beste hizkuntza batzuen aldean. Kleistek, oro har, joera berezia du alemanaren baliabide hauek erabiltzeko, baina kontakizun honetan marka guztiak

hausten dituela esan liteke, esaldia luzatzen eta bihurritzen du eta hitz-tarteak sarri tartekatzen ditu. Puntu eta aparteak ere lauzpabost orrialdez behin agertzen da jatorrizkoan. Kleisten jokaera estilistikoak –alemanezko prosan ia parekorik ez duenak– *tempo* bizkorra ezarri nahi dio kontakizunari, ekintzako gertakariak ia gainjarriz, esaldiaren aurrera egite neketsuaren bitartez bertako mila gorabeheren eta xehetasunen berri emanaz. Euskal itzulpenari dagokionez, euskaratzaileak esan beharra dauka, azken hamarkadotan gure artean nagusiki erabili izan den prosa-motak laguntza eskasa eskaini diola Kleisten diskurtso abartsu hau itzultzeko orduan, baina euskarak inguruko hizkuntza eta literaturarekin harreman normalduak ezarri nahi baditu honelako erronkei aurre egin beharra daukala erabat sinetsirik, irakurlea sastrakadi eta sasiarte horietan barrena gidatzen ausartu da, ia beti jatorrizkoaren mailari eutsiz eta tarteka bakarrik zertxobait modua erraztuz, Orixek liokeenez «operazio guztiak» batera egiterik ez dagoelako.

Behin baino gehiagotan egin izan da Kleisten kontakizun honen eta Kafkaren obra handien arteko konparaketa, eta egia esan, Kohlhaasen itzulinguru sumingarriak irakurri ahala zaila da «Prozesua» obra-ko heroiaz ez gogoratzea. Baina *tempoa*, ordea, oso bestelakoa da azken autore honengan: idazle txekiar-alemaniarrek astiro eta patxadaz gidatzen gaitu bere pertsonaien infernuetan barrena.

Ustelkeria politika-munduan hain zabaldurik dabilen garai hauetan Wenzel von Tronka *Junkerrak* eta bere inguruko zerbitzarien jokaera petrala alde batetik, eta Kohlhaasen justizi egarria eta bere sumindurazko eztanda ikaragarria bestetik hausnartzea eta bata bestearen artean dauden loturez gogoeta egitea

interesgarri ez ezik, onuragarri ere gerta liteke gizartearentzat, baldin eta historia «magistra vitae» dela eta iraganeko hutsegiteetatik presenterako eta etorkizunerako zerbait ikas litekeela uste badugu behintzat.

Xabier Mendiguren
Donostia, 1993ko urtarrila

MICHAEL KOHLHAAS

XVI. mendearen erdi aldera, Havel ibaiaren he-
gian, Michael Kohlhaas izeneko zaldi-tratulari bat bizi
zen. Eskola-maisu baten semea eta bere garaiko gizo-
nik zuzenetako eta aldi berean beldurgarrietako bat
zen. Hogeita hamar urteetara arte pertsonaia bitxi hau
hiritar onaren eredutzat har zitekeen. Oraindik bere
izenaren jabe den toki batean baserria zeukan, non
patxada ederrean bizi baitzen, emazteak emandako
seme-alabak Jainkoaren beldur, lan eta leialtasunaren
zentsuan heziz; ez zegoen auzoen artean bere ontasun
edo zuzentasunean atsegin hartu gabekorik; munduak,
hitz batean, bere oroitzapena ospatu beharko zukeen,
baldin eta bera bertuteetako bat lantzen desbideratu
izan ez balitz. Baina justiziaren zentzuak bidelapur eta
hiltzaile bihurtu zuen.

Bazihoan behin bere lurraldetik kanpora, zaldi-
sail distiratsu eta ongi gobernatuarekin, merkatuetan
ateratzea espero zuen irabazia zertan erabiliko zuen
gogoetan, haietara baitzihoan: batetik ugazaba onari
zegokionez, irabazi berriak eskuratzen, baina bestetik
presenteaz gozatzen ere bai. Honetan, Elbara heldu zen
eta saxoniar lurraldean zegoen gotorleku maiestatetsu
baten ondoan, ibilbide hartan ordura arte inoiz aurkitu
gabeko langa batekin topo egin zuen. Euria areagotzen
ari zuen une batean gelditu zen zaldiekin, eta zainda-
rari dei egin zion, zeina handik gutxira agertu baitzen
leihoan aurpegi ilunarekin. Tratulariak irekitzeko es-
katu zion.

—Zer berri dira hauek? –galdetu zion tratulariak,
handik apur batera hura etxetik irteteen.

—Bidesari-eskubidea –erantzun zion aduana-
zainak sarrailan ziharduen bitartean–, Wenzel von
Tronkako *Junkerrari* emana.

—Kontxo —esan zuen Kohlhaasek—, Wenzel al du izena *Junkerrak*⁵? —eta almena distiratsuekin lurraldeari goitik begira zegokion gaztelua ikusi zuen—. Hil egin al da lehengo jabea?

—Apoplexiaz hil da, —erantzun zuen aduanazainak langa jasotzean.

—Sentitzen dut, bada! —ihardetsi zuen Kohlhaasek—. Agure duina, jendearen zeregin eta joan-etorriaz gozaten zuena eta ahal zuen heinean merkataritza lagundutakoa. Behin batean, herrirako bidean nindoala, nire behorretako bati hanka hautsi zitzaiolako, galtzada bat eraiki ere egin zuen. Tira! Zenbat zor dizut? —galdetu zuen, eta kostata atera zuen haizeak jotzen zuen kapatik aduanazainak eskaturiko diru-kopurua.

—Bai, gizona —gaineratu zion oraindik honek—, Bizkor, bizkor —marmarka ekin eta eguraldiaz gaizki-esaka hasiz—. Hainbat hobeto izango zatekeen niretzat eta zuretzat enbor hori zegoen basotik mugitu izan ez balitz —eta horrenbestez dirua eman eta berriro bideari lotu zitzaion. Baina, langara heldu orduko, beste gizon baten ahots zakarra entzun zen:

—Gera bedi zaldi-tratularia! —atzean zegoen dorretik, eta ikusi zuen nola alkaideak kolpe batez leihoa itxi eta beregana zetorren lasterka.

—Zer gertatuko ote duk orain? —galdetu zuen bere golkorako Kohlhaasek zaldiak geldiarazten zituen bitartean. Heldu zen alkaidea gorputz mardula estaltzen zion gerruntzea botoituz eta galdetu zion, euri-zaparradatik babesteko albora eginik, aldean al zekarren pasa-agiria.

—Pasa-agiria? —galdetu zuen Kohlhaasek. Ez baiti samar aditzera eman zion, berak zekienez, ez

5 *Junker*: Antzinako Ekialdeko Prusian boterea zuten aristokrata lur-jabeen izena, klase kontserbadore eta nazionalistakoak ziren.

zeukala horrelakorik aldean zeraman ziurtasunik; baina ugazabaren zer gauza zen hura deskribatzen bazioten, bazitekeela haietaz ere halabeharrez horniturik ibiltzea. Zeharretara begiratzuz, alkaideak aurpegira bota zion Printzearen baimenik gabe ez zeukatela zaldi-tratulariek zaldiekin mugatik pasatzerik. Tratulariak ziurtatu zion hamazazpi alditaraino gurutzatuz zuela muga paper haiek gabe; oso ongi ezagutzen zituela bere negozioari buruzko Printzearen xedapen guztiak; derrigor kontutan hartzeko errakuntza bat zela, eta huskeriekin denborarik ez ziezaiola arren galdaraz, oraindik ibilaldi luzea geratzen zitzaiole-eta. Baina alkaideak erantzun zion hamazortzigarren aldian ez ziola eskuetatik ihes egingo, helburu horrekin eman zela agindua, eta berehalaxe pasa-agiria jaregin edo bestela etorritako bidetik itzuli beharko zuela. Zaldi-tratularia, hertsapen hura zela-eta ordu-rako amorratzen hasita zegoen, jaitsi egin zen zalditik, pentsatzen jarri ondoren, morroietako bati eman zion eta Tronkako *Junkerrarekin* berarekin argituko zuela auzia esan zuen. Jo zuen gaztelura; alkaideak jarraitu egin zuen, denbora guztian zikoitz gutziatsuez eta odolustea zeinen mesedegarri zitekeen marmarrean; eta, begiradaz elkar neurturik, biak aretoan sartu ziren. Kontua zen *Junkerra* adiskide batzuekin edate umoretsuan zegoela, eta izkirimiri batek ezin amaituzko barre-algara bat leherrarazi zuela, Kohlhaas bere protesta aurkezteko hurbiltzean. Zer nahi zuen galdetu zion *Junkerrak*; zaldunak isildu egin ziren ezezaguna begiz jotzean; baina zaldiekin zer gertatzen ari zen azaltzen hau hasi orduko, segizioak jaregin zuen:

—Zaldiak? Non daude? —eta leihora oldartu zen haiek ikusteko. Zaldi-sail distiratsua begiz jo bezain laster, guztiak lehenbailehen jaitsi ziren pa-

tiora, *Junkerraren* gomitaren arabera. Euria atertu egin zuen. Alkaidea, etxezaina eta morroiak batu egin zitzaizkien, eta guztiek aztertu zituzten abereak. Bat- tak beilegi izarduna abonatzen zuen, besteak moxal gaztainari ederresten zion, hirugarrenak pintarratu azafrai-izpilduna laztantzen zuen; guztiak bat etorri ziren zaldi-itxura baino oreinarena areago zutela eta herrialdean ez zutela hoberik hazten. Aldarte onean, Kohlhaasek erantzun zien zaldiek ez zutela gainean ibili behar zuten jaunek baino hobeak izan behar, eta eroatera zirikatu zituen. *Junkerra*, beilegiak kili-kili eginik, prezioa eskatzera iritsi zen. Eta etxezainak gomendatu zion ugazabari zaldi beltz pare bat eros zezala, ze zaldi-eskasia zeudelarik, ongi erabil zitzaketela etxaldean. Baina tratulariak prezioak eman zituenean, nobleek garestiegi iritzi zieten; *Junkerrak* aditzera eman ere egin zion bere abereak hala balioesten segitzen bazuen Arturo Erregea eta Mahai Biribileko Zaldunen bila joan beharko zuela azkenerako. Kohlhaas konturatu zen alkaidea eta etxezaina etengabe ari izan zirela txutxu-mutxuka eta moxal beltzei irrikazko begiradak zuzentzen eta, aieru ilun batengatik, ez zuen ahalegini egiteke utzi beraiekin gera zitezen. *Junkerrari* esan zion:

—Jauna, moxal mairu horiek duela sei hilabete 25 florinetan erosi nituen; emazkidazu 30 eta zeure dituzu —*Junkerraren* alboan zeuden bi zaldunek agerian adierazi zuten zaldiek hainbeste balio zutela; baina *Junkerrak* trabak jarri zituen esanez beilegiarengatik prest zegoela dirua gastatzeko, baina ez mairuengatik, eta alde egiteko keinua egin zuen; orduan Kohlhaasek ihardetsi zuen agian zaldiekin igaroko zen beste batean iritsiko zirela traturen bat egitera; diosalak egin eta zamarien gidak hartu zituen abiatzeko. Une hartan,

alkaideak taldetik irten eta esan zion pasu-agiririk gabe ezin zuela bidaia segitu entzunda zegoela. Kohlhaasek *Junkerragana* itzuli eta galdetu zion ea egiazkoa al zen bere lanbideari hainbesteko nahastea ekar diezaiokeen xedapen hura. Begirada ilundurik, erantzun zuen *Junkerrak*, alde egitean:

—Bai, Kohlhaas, pasa-agiri bat atera behar duzu. Konpon zaitez alkaidearekin eta zarraizkio zeure bideari —Kohlhaasek ziurtatu zion ez zeukala zaldien garraioari buruzko ordenantzen kontra joateko asmorik; agindu zion hutsik egin gabe eskuratuko zuela pasaportea Dresdengo kantzilergoan, hiritik pasatzean, eta ordukoz joaten uzteko eskatu zion, eskakizun haren berririk izan ez zuelako.

—Ongi da! —esan zuen *Junkerrak*, zeren berriro euria ari zuen eta bere gorputz-adar idorrek blaitzen ari baitzen—: utzi nekazariari pasatzen. Goazen! —esan zien zaldunei eta berriro gaztelura joan nahi izan zuen. Alkaideak, *Junkerragana* bihurtuz, gutxienez bahituratzat zerbait utzi behar zuela esan zuen, agiria eskuratuko zuen bermetzat. *Junkerra* berriz ere gazteluko atarian gelditu zen. Kohlhaasek galdetu zuen ea zenbat utzi behar zuen bahituratzat, dirutan edo gauzatan, zaldi mairuengatik. Eta administrariak, ahopean marmarka esan zuen zaldiak berak utz zitzakeela.

—Noski —esan zuen alkaideak—, bidezkoena da; eta pasaportea ateratakoan, nahi duenean eraman ahal izango ditu. —Kohlhaasek, hain eskari lotsagabeaz txunditurik, esan zion *Junkerrari* zaldiak saltzeko asmoa zuela. *Junkerrak* altxatu zituen jupoiairen tiroak hotzez dardarka. Une horretan bertan, haize-erauntsi batek ur eta kazkabar-bolada bat sartu zuen atean barrera, halako moldez, non Tronkakoak, auziari amaiera emateko bere jendeari oihu egin baitzion:

—Zaldiez gabetu nahi ez badu, langaz bestaldean jarri berriro —eta alde egin zuen. Tratulariak, bortxakeriaren aurrean amore ematea beste erremediorik ez zeukala argi eta garbi ikusirik, eskatutakoa betetzea erabaki zuen. Askatu zaldi beltzak eta alkai-deak adierazitako kortara eraman zituen. Morroi bat ere utzi zuen beraiekin, diruz hornitu eta itzuli arte haiek zaintzeko arren eskaturik, eta zamari-sailaren gainerakoarekin bidaia segitu zuen Leipzig aldera, bertako ferian izan nahi baitzuen, gisa hartako ordena bat Saxonian ere ezarri ez ote zuten zalantzan, herrialde hartan hasiberritan zegoen zaldi-hazkuntza babesteko.

Dresdenera heldu bezain laster, nongo ingurumarietan landetxe bat baitzeukan tokiko merkaturxoetara bere negozioa eramateko, kantzilertzara jo zuen. Bertako kontseilariengandik jakin zuen, zeinen artean ezagunen bat baitzeukan, hasieratik sobera susmatzen ari zena bera: pasa-agiriaren istorioa ipuin hutsa zela. Kohlhaasek, desaraia ziurtatzen zuen agiri bat kontseilari atsekabetuei eskatu eta eskuratu zuenak, barre egin zuen bere golkorako *Junker* idorraren burutazioa zela-eta, baina zer nahi ote zuen susmatzera iritsi gabe. Eta aste batzuk geroago, eramandako zamari-taldea bere gogara saldu ondoren, Tronkako gaztelura itzuli zen, garaiek berez eskatzen zutena baino ondoez handiagorik gabe. Alkaidea isildu egin zen erantzun ordez kantzilertzako ziurtagiriaren aurrean eta Kohlhaasek zaldiak ez ote zizkioten itzuli behar galdetzean, zeuden tokira jaitsi eta eramateko besterik ez zion esan. Ataria gurutzatzean, ordea, morroia saihetsak neurtu eta handik egun gutxitara gaztelutik bidali zutela jakitearen nahigabea izan zuen, ziotenez, manera desegokiak erakutsi omen zituelako. Berri hau

emandako mutilari galdetu zion zer egin zuen besteak eta nork zaindu izan zituen zaldia bitartean, eta hark erantzun zion ez zekiela eta berehala, bihotza aieru txarrez gainezka zuen tratulariari abereak zeuzkan kortara pasatzen utzi zion. Zer nolako harridura izan zuen moxal mairu distiratsu eta mardulen orde, zaldi mazkar eta triste pare bat ikustean; hezurretan edozer eseki baitzitekeen, arasan bezala; zurdak eta ilea, zainketarik eta artarik gabeak, nahas-mahasturik zeuden: animalien erreinuko miseriaren irudi bizia ziren! Zaldiek zirkin ahul batekin irrintzi egin zioten eta Kohlhaasek, erabat sumindurik, zer gertatu zitzaion galdetu zuen. Alboan zeukan mutikoak erantzun zion ez zitzaiea aparteko zorigaitzik gertatu, zegokien pentsua ere hartu zutela; bakarrik, nola uzta-garaia zen, soroan erabili zituztela zertxobait, tira-abereen falta izan zutelako. Kohlhaas erneguka hasi zen amarruzko bortxakeria nardagarri hartaz, baina bere ezintasunaz jabeturik, gorde egin zuen amorrua eta, besterik ezinean, aginduak eman zituen lehenbailehen zaldiekin lapur-zulo hartatik alde egiteko, baina halako batean alkaidea agertu zen, eztabaidak erakarririk, han zer gertatzen zen galdetzera.

—Zer gertatzen den? —erantzun zuen Kohlhaasek—. Nork eman die baimena Tronkako *Junkerrari* edo bere jendeari nik hemen utzitako zaldia sorora ateratzeko? —Ea egin zutena gizabidezkoa ote zen, gaineratu zuen, eta zartailukada batez abere akituak susperrazten ahalegindu zen, zirkinik ere ezin zutela egin erakusteko. Lotsagabekeria bezagiztatu ondoren, alkai-deak erantzun zuen:

—Kaiku halakoa! Alproja horrek Jainkoari eskerak eman beharko lizkioke zaldi mazkar horiek bizirik aurkitu dituelako! —Ea nork zaindu nahi zituen, galdetu

zuen, morroiak alde egin bazuen; ea ez ote zen bidezkoa zamariiek soroan lan eginez eman zitzaaien pentsua irabaztea. Amaitzeko aurpegira bota zion ez ibiltzeko malmuzkeriatan bestela txakurrei dei egingo ziela eta ikusiko zuela nola zekien berak ataria baretzen. Tratulariak bihotza taupaka jupoitik irten beharrean zeukan. Txitxi-jario doilorkume hura satsaren kontra bota eta mutur gorria oinpean zapaltzeko gogoia sentitu zuen. Baina bere justiziaren zentzua, balantzarik finenaren parekoa izaki, oraindik dilindan zebilen; bere barreneko epaitegian oraindik egiaztatu gabe zegoen bere arerioa errudun zela; eta madarikaziozko hitzak irentsiz, hurbildu zaldiengana, egoera isilean hausnartu zurdak askatzen zizkien bitartean eta ahotsari eutsiz galdetu zuen, zer arrazoirengatik bidali behar izan zuten bere morroia gaztelutik. Alkaideak erantzun zuen:

—Alproja hori kaskagogor hutsa izan delako jau-regiko guztiekin! Inondik inora ezin izan dugu kortaz aldarazi eta zaldi mazkar horiengatik gaztelura heldu berriak ziren bi jaunen zaldiek gaua izarpean pasa zezaten tematu zen! –Kohlhaasek zaldiek balio zutena emango zukeen morroia eskura izatearren eta bere kontakizuna alkaide ahobero harenarekin parekatu ahal izateko. Oraindik han zegoen, zurdak askatzen eta bere egoeran zer egin behar zuen gogoeta egiten, eta supituki eszena aldatu zen Wenzel von Tronka *Junkerra* lauhazka plazan sartzean, erbi-miaketan ibili ondoren, zaldun, morroi eta txakur-samalda bat lagun zuela. Zer gertatzen zen galdetu zuen eta alkaideak zalantzarik gabe hitza hartu eta desitxuratze makurrenez aurkeztu zion –txakurrek kanpotarrari etengabe zaunka eta zaldunek isiltzeko oihuak egiten zizkieten bitartean– zer nolako erretolika botatzen ari zen tratularia mairu-parea zertxobait erabili ziotelako. Irainka,

barre-algaraz, zaldia bereak zirela onartzeari uko egi-
ten ari zela esan zuen hark. Kohlhaasek orduan ahotsa
altxatu zuen:

—Horiek ez dira nire zaldia, jauna! Ez dira ho-
geita hamar florin balio zuten zaldia! Nik neuzkan
zaldi ongi gobernatu eta zindoak itzultzea nahi dut!
—Junkerrak, zeinari iratzeko zurbiltasuna agertu baitzi-
tzaion aurpegian, jaitsi eta esan zuen:

—Baldin Jaun Put... honek ez baditu zaldia
eraman nahi, utz ditzala alde batera mordoilo-
kia. Hator, Günther!, Goazemak, Hans! —agindu zuen
oraindik ahots ozenagoz, eskuaz galtzoietako hautsa
kentzen zuen bitartean.

—Dakartela ardoa! —oihu egin zuen berriro atera
iristean beste zaldunak atzetik zituela; eta etxean sartu
zen. Kohlhaasek esan zuen nahiago zuela larrutzaileari
deitu eta azala kentzea, Kohlhaasenbrückekeo ukui-
luetara zeuden bezala eramatea baino. Behin-betikoz
zamariez arduragabeturik, hantxe bertan utzi zituen;
igo zen zaldira eta justizia nola egin behar zen asmatu-
ko zuela aginduz, alde egin zuen.

Zitzu bizian Dresdenerako bidean zihoala, gaz-
teluan morroiari egozten ziotenaz konturatzean,
trostako pausoa astiroagotu, eta mila urrats eman bai-
no lehen bira egin, eta Kohlhaasenbrückerako bidea
hartu zuen, aurrena morroiarenak entzuteko, bidez-
koena eta zuhurrena iritzi zionez. Jasandako irainak
gorabehera, sentimendu doi batek makurrarazten
zuen, munduaren osaera hauskorraz jakitun izaki,
zaldien galera gauzen bidezko askaeratzat eramatera,
baldin eta alkaideak sostengatzen zuenez, morroiari
errurik txikiena leporatzerik bazegoen. Bestalde, gu-
txiago zaindua ez zen sentimendu batek ere esaten
zion, —eta sentimendu hura gero eta sakonago errotuz

joan zitzaion aurrera egin ahala, zeren noranahi jotzen zuela ere Tronkako gotorlekuan bidaiariekin egiten ari ziren apetakeriak entzutea baizik ez baitzuen egiten: baldin eta, itxuratik igartzen zitzaionez, dena malmuzkeria besterik ez bazen, bere ahaltasunen arabera nozitutako desarauarengatik ordaina beretzat lortzea eginbehar ezinbestekoa zuela, eta baita herrikideentzat ere, segurtasuna izan zedin etorkizuneko beste batzuen aurrean.

Kohlhaasenbrückera iritsi bezain laster, Lisbeth emazte fidela besarkatu, eta belaunetan mordoxkatzen zitzaizkion seme-alabei musu eman ondoren, Herse morroi nagusiaz galdetu zuen, ea beraren berririk ba al zuten. Lisbethek esan zion:

—Ene Michael laztana, Herse diozu! Dohakabe hori orain hamalau egun azaldu zen negargarriro jipoitua; ez, hain jipoitua, non arnasa hartzeko ere gauza ez zen. Eramaten dugu ohera, non odola etengabe tu egiten duen, eta behin eta berriz galdetu ondoren inork ulertzen ez dion historia bat entzuten dugu. Nola zuk utzi zenuen Tronkako gazteluan pasatzea galarazitako zaldi batzuekin, nola traturik txarrena eman ondoren gaztelutik alde egitera behartu zuten, nola zaldiak ezin izan zituen berekin ekarri.

—A, bai? —esan zuen Kohlhaasek longaina erantzten ari zen bitartean—. Eta jadanik susperturik al dago?

—Odola tu egiteaz aparte, hola-hola. Nik morroi bat bidali nahi izan dut berehala Tronkara, zu itzuli arte zaldiak zaintzera. Herse beti hain egiati eta beste inor baino leialago agertu izan zaigunez gero, ez zitzaidan kontatzen ari zena zalantzan jartzerik bururatzen ere, hainbeste seinalek fede ematen zutenean, ezta beste moduren batera zaldirik gabe geratu zenik ere. Baina berak erregutu zidan arrenka ez bidaltzeko inor

lapur-zulo hartara, eta abereak bertan behera uzteko, horretan norbait galdu nahi ez bagenuen.

—Oraindik ohean al dago? —galdetu zuen Kohlhaasek txalina askatzen ari zela.

—Duela zenbait egun berriro hasita dago atarian bira batzuk ematen —erantzun zion emazteak—. Hitz batean, zeuk ikusiko duzu —segitu zuen—, denak zentzua duela eta alprojakeria hau Tronkan aspaldi honetan kanpotarren kontra egiten ari diren beste desarau bat gehiago dela.

—Horixe da lehenik ikertu behar dudana —erantzun zion Kohlhaasek—. Bidalidazu jaikitakoan, Lisbeth. —Hitz hauekin besaulkian eseri zen; eta emaztea, senarraren baretasunaz oso pozturik, morroiaren bila irten zen.

—Zer egin duk Tronkako gazteluan? —galdetu zion Kohlhaasek Lisbethekin gelan sartu zenekoxe—, ezin zezakeat esan hirekin pozik nagoenik. —Morroia, zeinaren aurpegi zurbilean hitz hauek entzutean gorriune batzuk agertu ziren, une batez isildu egin zen; eta gero esan zuen:

—Arrazoi duzu, jauna; Jainkoak nahita eskuetan jarri zidan sufre-metxa, modu txarrean tratatu ninduten lapur-zuloari su emateko, baina barruan haur baten negar-hotsa entzutean Elbara jaurtiki nuen, eta pentsatu nuen: Jainkoaren tximistak erraustuko ditu, nik ez behintzat! —Kohlhaasek hunkiturik galdetu zion:

—Baina zer egin duk gaztelutik modu txarrean jaurtiki hazaten? —Eta Hersek:

—Urrats txar bat eman, jauna —xukatu egin zuen bekokiko izerdia—, baina ez dago on konponduko denik. Ez nuen nahi izan zaldian soro-lanean hondatzerik, eta esan nien, oraindik gazteak zirela eta lorrean ibili gabeak. —Kohlhaasek kontra egin zion, nahasmendua

estali nahian, egia osoa esan ez zuelako, zeren joan-dako udaberriaren hasieran noiz edo behin kabestrua jarri baitzitzaien.

—Gazteluan –esan zion–, non apopilo moduko bat baihintzen, behin eta behar adina aldiz laguntzeko prest agertu beharko hukeen, uzta-bilketa bizkorrago amaitzeko premia izanez gero.

—Jauna –esan zuen Hersek–, hori ere egin dut; baina hain aurpegi ilunak jartzen zizkidatenez gero, pentsatu nuen, ez zela ahalegina zaldientzat ere hain handia izango. Hirugarren egunean goizean goiz lotu eta hiru orgakada gari garraiatu nituen.

Kohlhaasi bihotzak zauskada bat egin zion; begiak lurrean josi eta marmar egin zuen:

—Horretaz ez zidatek ezer esan, Herse! –Hersek hala izan zela ziurtatu zion.

—Nire zabarkeria –esan zion–, zera izan zen, nik zaldiak ez nituela berriro uztarrian lotu nahi izan, eguerdian bazkatu eta berehala, eta alkaideak eta administrariak proposatu zidatenean ateratzen banituen doan emango niela jaten eta zuk pentsutarako emandako dirua neuretzat gorde ahal izango nuela, erantzun nien, gaizki amaituko genuela, eta bira eman eta alde egin nuen.

—Baina zabarkeria horregatik ez hinduten gaztelutik bidali, –esan zuen Kohlhaasek.

—Jainkoak gorde nazala! –oihu egin zuen morroiak–, bilaukeria donge batengatik! Arrats hartan gaztelura etorritako bi zaldunen zaldiak sartu zituzten kortan, eta nireak kortako atean lotu; eta alkaidea-ri berari eskutik kendu nizkionean, bera ari baitzen ateratzen, eta galdetu nionean non egon behar zuten abereek, ohol eta listoiez harresiaren ondoan eraikita zeukan txerritokia erakutsi zidan.

—Esan nahiko duk —eten zion Kohlhaasek—, hain zela aterpe txarra zaldientzat, areago zirudiela txerriotokia korta baino.

—Txerriotokia zela, jauna —erantzun zioen Hersek— egiazko eta benetako txerriotokia, txerriak sartzen, irteten eta ni zutik egon ezin nintekeena.

—Agian ez zuen beste aterperik izango gure zaldientzat —esan zion Kohlhaasek—, zaldunen zaldiak, nolabait esateko, gureen aurretik zeudean.

—Tokia —erantzun zion morroiak ahotsa behe-raturuz— meharra zen. Gazteluan zazpi zaldun zeuden ostatuko gutzira. Zeu izan bazina, zaldiak apur bat estuagoa jarraraziko zenituen. Nik esan nien herrian korta bat alokatu nahi nuela, baina alkaideak erantzun zuen zaldiak bere begipean eduki behar zituela eta ez nezala pentsatu ere egin toki hartatik ateratzerik.

—Hm! —esan zuen Kohlhaasek—. Eta zer erantzun hien hik?

—Nola administrariak esan zuen bi apopiloek gau hura bakarrik emango zutela han, eta biharamun goizean aurrera joango zirela, zaldiak txerriotokira eram-nituen. Baina hurrengo eguna pasatu eta ez zen esandakorik gertatu, eta hirugarrenaren goizean jaun haiek astebete egingo zutela gazteluan esaten zuten.

—Baina azken finean, txerriotokia ez zegoan hain gaizki, Herse, —esan zuen Kohlhaasek—, lehendabizikoz begiratu eta iruditu zitzaidan bezain gaizki.

—Egia da —erantzun zuen besteak—, tokia pixka bat erraztu nuenean, pasa zitekeen. Urdainari txanpon batzuk eman nizkion beste nonbait txerriak sar zitzan. Eta nola hala moldatu nintzen zaldiak egunez zutik egon zitezten, goizean argitzen zuenean oholak listoietatik kenduz eta ilunabarrean berriro ezarriz. Eta antzarak ziruditen teilatutik buruak aterata, eta

Kohlhaasenbrückera, edo hobeto egoten den edonora begiratzen zuten.

—Eta orduan, zer arraiorengatik bota hinduten?

—Jauna, esango dizut —erantzun zuen morroiak— nigandik libratu nahi zutelako. Zeren ni bertan nindukaten bitartean ezin zituztelako zaldiak abaildu. Nonahi, atarian eta zerbitzarien ganbaran, herra-aurpegiekin topo egiten nuen; eta nola nik neure golkorako esaten nuen, bihurritu itzazue zeuen muturrak, hark eta kolokatu arte, apetaz lehen abaguneaz baliatu ziren eta bota egin ninduten gaztelutik.

—Baina arrazoia! —esan zuen Kohlhaasek ahotsa jasoz—, arrazoiren bat izan behar ziaten!

—Jakina —erantzun zuen Hersek—, arrazoirik bidezkoena. Txerritokira eraman nituen bigarren eguneko arratsean, han barrenean erabat narrasturik jarri ziren zaldiak hartu eta bainutokira eraman nahi nituen. Eta gazteluko atean nagoela eta bira ematera noala, alkaidea eta administrariaren ahotsak entzuten ditut, morroi, txakur eta makilekin zerbitzari-ganbaratik datozela eta gainera oldartzen zaizkit «Hago, alproja halakoa!» «Hago, bidelapurra!» oihuka, deabruak harturik baleude bezala. Atezaina bidera irteten zait; eta berari eta atzetik lasterka zetorren jendailari galdetzen diodanean «Zer gertatzen da?», «Zer da?» erantzuten du alkaideak eta bi zaldiei bridetatik heltzen die. «Nora doa berori zaldiekin?» galdetu eta paparretik heltzen dit. Eta esaten diot «Nora noan? Arraioak ez badituk! Bainutokira joan nahi dut. Ala uste al du berorrek..?» «Bainutokira? —hasten da oihuka alkaidea—. Lapurra, nik irakatsiko diat hiri bainatzen baina bide nagusian, Kohlhaasebrückeraino!» Orduan zalditik inarosten naute, berak eta administrariak egindako tirakada maltzur batez, zeinak zango batetik oraturik nindu-

kan, eta zalditik erori eta luze bezain zabal lokatzatan geratzen naiz zerraldo. «Doilorkumeak! Tximistak joko al zaituzte! Kaprestuak eta zaldien mantak, eta neure arropa-bilduma ere kortan dauzkat!»; baina alkaidea eta morroien artean, zeren administraria ordurako zaldiak kortara eramaten ari baitzen, ostikoka zartailu eta makilekin amiltzen zaizkit gainera, eta erdihilik erortzen naiz gaztelu-atearen atzean. Eta «Lapurrok, nora daramatzazue zaldiak?» esanez altxatzen naizenean, alkaideak «Alde gaztelutik!» oihu egiten du eta txakurrak xaxatzen dizkit «Xaxa Kaiser! Xaxa, Jäger! Xaxa, Spitz!»; dozena bat zakur baino gehiago oldartzen zaizkit. Orduan hausten dut, listoi bat zen, auskalo zer, hesi batetik, eta hiru zakur zerraldo hilik uzten ditut neure ondoan, baina alboraxeago baztertu behar izan nuenean haginka mastrikatzen ari zitzaizkidalako «fiiit!» txistu bat entzuten da, sartzen da zakur-talde guztia barrenean, biltzen dituzte ate-orriak eta jartzen dute atalaga eta erortzen naiz bidean konorterik gabe. Kohlhaas-ek, aurpegi zurbil eta bihurrikeria bortxatua-rekin, esan zion:

—Tira, aitor ezak; ez huen txerritokia jadanik gustuko; Kohlhaasenbrückengo kortan alde ederrean egoten duk, pentsatu huen.

—Jainko maitea! —altxatu zuen Hersek aho-tsa-, kabestru eta manta guztiak txerritokian utzita neuzkan, baita neure arropa-bilduma ere. Eta ez ote nituzkeen neurekin eramango ganbelapean zeta gorrizko lepoko zapian bilduta neuzkan hiru florinak ere? Mila deabru! Ez iezadazu horrelakorik esan, bestela bota nuen mitxa berriz piztuko dut-eta!

—Tira, tira —esan zion zaldi-tratulariak-, ez diat asmo txarrean esan. Hara, esandakoa hitzez hitz sinesten diat, eta nonahi eta nornahiren aurrean neure

egiteko prest nagok. Sentitzen diat zori hobetik izan ez dualako nire zerbitzuan. Hoa, Herse, hoa orain atsedena hartzera; botila ardo bat eman diezaatela eta kontsola hadi!; egingo zaik justizia! –Honenbestez zutitu, idatzi morroiak txerritokian bertan behera utzi behar izan zituenen zerrenda, zehaztu haien balioa, galdetu zion halaber zenbatean jotzen zituen sendaketaren gastuak eta eskua estutu ondoren alde egiteko eskatu zion.

Gero Lisbeth emazteari kontatu zion gertatuaren nondik norakoa eta barne-lotura, jakinarazi zion deliberaturik zegoela justizia eskatzera, eta pozik ikusi ahal izan zuen emazteak bihotz-bihotzez laguntzen ziola asmo hartan. Gero esan zion gaztelu hartatik bidaztiak igaroko zirela etorkizunean ere, eta segur aski bera baino egonarri gutxiagokoak, Jainkoari zerbitzu egitea izango zela desarau hari kontra egitea, eta berak aurre egingo ziela auzia burutzeak sortuko zituen gastuei. Kohlhaasek kementsua zela esan zion emazteari, atsegin ez eman zuen egun hura eta ondorengoak beraren eta seme-alaben artean, eta eginbeharrek aukera eman zioten bezain laster, Dresdenera abiatu zen auzitegian bere kereila aurkeztera.

Han, ezaguna zuen legegizon baten laguntzarekin, demanda bat idatzi zuen, zeinean Wenzel von Tronka *Junkerrak* bere pertsonarengan eta Herse morroiarengan buruturiko hobenen berri-emate xehatuaren ondoren, legeen arabera zigor zezatela eskatzen zuen, zaldia aurreko egoerara itzuli eta nola berari hala morroiari ere, jasandako kalteen ordaina eman zekiela. Auzi juridikoa argi eta garbi zegoen. Zaldia lege guztien kontra eraduki izanak, argi erabakigarria isurtzen zuen gainerako guztiaren gain; eta onartu izan balitz ere, zaldia halabehar hutsez ma-

kaldu zirela, abereak berriz osasunean itzularazteko eskaria zuzenbidearen araberkoa zen. Kohlhaasek hirian ibili zeneko denboran ez zuen adiskide faltarik izan, zeinek agindu baitzioten kartsuki egingo zutela kausaren alde; bere zaldi-merkataritza hedatuak eza-gun ugari izatera eraman zuen, eta lanean aritzen zeneko jatortasunak herrialdeko gizon prestuenen onginahia erakarri zioten. Gogara joan zen behin baino gehiagotan bere abokatuaren etxera bazkaltzera, berau ere pertsona gailena baitzen; utzi zion gordailu gisa diru-kopuru bat auziko gastuak ordaintzeko, eta handik aste batzuetara, Kohlhaasenbrückera itzuli zen, Lisbeth emaztearen ondora, prozesuaren atarramentu onaz abokatuak erabat lasaitu zuelarik. Hala eta guztiz ere, igaro ziren hilabeteak, eta urtea ere amaitzeko zorian zegoen, Saxoniatik berak aurkezturiko demandaz berririk heldu gabe, eta gutxiago oraindik ebazpena bera. Behin eta berriz auzitegira jo ondoren, bere aholkulariari galdetu zion gutun ziurtatuz halako luzamendu neurrigabeaz, eta esan zioten, goitiko iradokizunez, Dresdengo auzitegian, erabat ezetsi zutela kereila. Tratulariaren harrimenari erantzunez, zeinak horretarako arrazoia baitzuen, aholkulariak jakinarazi zion: Wenzel von Tronka *Junkerra* bi jaunekin, Hinz eta Kunz von Tronkarekin ahaideturik zegoela, zeinetarik lehena jauregiko koparia zen, eta bestea beraren txanbelana. Gainera gomendatzen zion, auzitegian neke gehiagorik hartu gabe, Tronkako gazteluan zeuzkan zaldiak berreskuratuzeko; *Junkerrak*, orduan hirian aurkitzen zenak, bere jendeari itxuraz agindua eman ziola haiek entregatzeko; eta amaitzeko erregua egiten zion, baldin eta xehetasun haien jakitun egonik baretu nahi ez bazuen, bera gutxienez mandatu berrietatik libratzeko kausa hartan.

Une hartan Kohlhaas Brandenburgur aurkitzen zen, non Heinrich von Geusau baile, zeinaren barrutikoa baitzen Kohlhaasenbrück, lanpeturik zebilen, hiriarri egokitu zitzaizkion diru-kopuru batzuei esker, gaixo eta behartsuentzako ongintza-instalazio batzuk eraikitzen. Bereziki lanpeturik zebilen ezinduen tratamendurako ingurumarietan zegoen metal-urezko iturri bat, eta zeinaren sendamenaz gero etorkizunak berretsiko zituen baino itxaropen handiagoak egin ziren; eta Kohlhaas ezagutzen zuenez gero, baile gortean egon zen garaian elkarrekin izan zuten harremanarengatik, baimena eman zion Herseri, Tronkako gazteluko egun hartatik arnasa hartzean bularrean oinaze bat geratu zitzaion morroi nagusiari, jadanik teilatuz eta hormaz hornituriko iturritxoaren eragina frogatzen zezan. Gertatu zen, ordea, baile Kohlhaasek Herse ezarri zuen galdararen alboan aginduak ematen aurkitzea, hari emazteak bidalitako mandatari batek Dresdengo abokatuaren gutun suntsigarria eskuratu zionean. Medikuarekin hizketan ari zela, ohartu zuen baileak Kohlhaasek hartu eta ireki zuen gutunera negar-malko bat isuri zitzaioala; hurbildu eta era bihozko eta adiskidetsuan galdetu zion zer zorigaitz gertatu zitzaion, eta zaldi-tratulariak, ezer erantzun gabe, gutuna eskuetan ezarri zionean, duintasunezko gizon honek, Tronkan gertaturiko bidegabekeria izugarria eta bere ondorioak ezagutzen zituen hark –esku-kolpetxo bat sorbaldan eman eta esan zion ez zuela adorea galdu behar eta kaltea ordaindu arte lagunduko ziola–. Gau hartan, zaldi-tratularia, haren aginduen arabera, gaztelura bisita egitera joan zitzaionean, azaldu zion aski izango zela Brandenburgeko Printze Hautesleari erre-gu bat aurkeztea gertatuaren berri-emate labur bat, baita Dresdengo abokatuaren gutuna ere, bere baitan

zeramana, eta erreklama zezala subiranoaren babe-
sa berari, jatorriz Brandenburgekoa zenari, saxoniar
lurraldean egitera ausartu zitzaizkion bortxakeriaren
aurrez aurre. Agindu zion erregu-idatzia Printzearen
eskuetara eramango zuela, jadanik prestaturik zegoen
beste bidalketa batekin, eta honek, zirkunstantziek
aukera ematean, hutsik egin gabe aurkeztuko zuela
protesta Saxoniako Hauteslearen aurrean; eta ziurta-
tu zion *Junkerrak* eta bere segitzaileek egin zitza-
keten amarrukeria guztiak gorabehera, aski zela urrats bakar
bat justizia hura egiteko. Kohlhaasek, biziki pozturik,
bihotz-bihotzez eskertu zion baileari bere estimazioa-
ren froga hura eta aitortu zion gauza bakarrak ematen
ziola pena: kasua zuzenean Berlinen eskuetan ez ja-
rri izanak, urrats bakar bat Dresdenen eman gabe;
eta ondoren, hiri-epaitegiko eskribautzaren arabera
erreklamazioa idatzi eta baileari entregatu eta gero,
Kohlhaasenbrückerako bideari heldu zion, bere his-
toriaren amaieraz inoiz baino lasaiago. Baina handik
aste batzuetara jakin ahal izan zuen nahigabez, baile-
aren eginbeharretarako Postdamera zihoan bailearen
aguazil batengandik, Hautesleak Kallheim kondearen
eskuetan jarri zuela erreklamazioa, eta honek, bidez-
koa zenez, Dresdengo auzitegiari bortxakeria ikertu
eta zigortzea berehala eskatu beharrean, informazio
aurretiazkoa eta xehatuagoa eskatu ziola Tronkako
Junkerrari berari. Aguazilak, zeina ez baitzen kotxe-
tik jaitsi Kohlhaasen etxe aurrean eta antza zenez,
era konfidentzialean tratulariari hura jakinarazteko
mandatua zuenak, ezin izan zuen erantzun asegarri-
rik eman jokaera haren zergatiaz galdetu zitzaionean.
Bakarrik gehitu zion baileak erregutzen ziola egonarriz
hartzeko; bazirudien presa zuela bideari segitzeko, eta
elkarrizketa laburraren amaieran bakarrik igarri zion

Kohlhaasek, jaulkitako hitz batzuetatik, Kallheim kondea Tronkatarren etxearekin ezkontzaz ahaideturik zegoela. Kohlhaasek, zeinak ez baitzuen atsegirik janik zaldia hazten, etxaldean, kortan eta ezta bere emaztea eta seme-alaben artean ere, ilargiaren aldaketari itxaron zion susmorik ilunenetan. Handik gutxira, espero zuen bezalaxe, Herse itzuli zen Brandenburgetik, bainuek zerbait susperturik, bailearen txartel batekin, zeinak erreskripto ofizial bat handiago bat batera zekarren, esanez sentitzen zuela kausa hartaz ezer egin ezin izateagatik eta kantzilertzak igorritako ebazpena bidaltzen ziola eta Tronkako gazteluan utzitako zaldia jasotzeko gomendioa ekiten ziola eta auzia bukatutzat eman zezala.

Ebazpenak honela zion: «Dresdengo entzutegiaren ofizioaren arabera, Kohlhaas auzizale alfer bat zela; *Junkerrak*, zeinaren gazteluan zaldia bertan behera utzita zeuzkan, ez zizkiola inola ere eradukitzen; beraz haiek jasotzera norbait bidaltzeko adeitasuna izan zezala edo, gutxienez, *Junkerrari* jakinaraz ziezaiola nora bidali behar zizkion; eta edozein kasutan ere, libra zedila Estatuaren kantzilertza halako liskar eta ardailetatik». Kohlhaasi, ordurako ez zitzaizkion zaldia batere axola-samin bera sentituko zukeen txakur pare bat izan baltz ere- eta haserre bizitan jarri zen gutuna hartzean. Atarian zarataren bat entzuten zen bakoitzean, atera begiratzen zuen ordura arte bere bularrean ezagutu zuen urduritasun gogorrenaz, *Junkerraren* gizonak ez ote ziren agertuko, agian desenkusaren batekin, zaldi gosekil eta atsekabetuak bihurtzera: kasu bakarra zuen munduan ongi zaildutako bere arima prestatuak ez zeukana bere sentipenari osoki zegokion zerbaiterako. Handik gutxira jakin ahal izan zuen, bidazti izandako ezezagun baten bitartez, oraindik Tronkan bere zaldia

soro-lanetan zerabiltzatela, *Junkerraren* gainerakoak bezala; eta mundua halako desordenu ikaragarrian ikusteak sortzen zion saminaren erdian, bere bularra ordenuan ikusteak ematen zion pozak inarrosi zuen. Auzoko eskribau bat etorrarazi zuen, zeinak aspal-didanik lursailak erosteko asmoak zituen, horrela mugakide zuen etxaldea handitzeko; eta eseri zenean galdetu zion zenbat eskaintzen zion Brandenburgen eta Saxonian zituen jabegoengatik, etxea eta orubearekin, oro har, ondasun higigarri zein higiezinekin. Lisbeth, emaztea, zurbildu egin zitzaion hitz hauek entzutean. Bira eman eta, besoetan hartu zuen bere atzean zoruan jolasean zebilen haurtxoa, zeina orain lepokoarekin jostatzen hasi baitzen, eta haurtxoaren masaila gorrien albotik, heriotza pintaturik zeukaten begirada ilunak jaurtikitzen zituen tratulariaren eta beronek eskuetan zeukan paperaren aldera. Eskribauak zeharka begiratu eta supituki halako pentsamendu bereziak zerk eragin zizkion galdetu zuen; eta besteak, ahal zuen adinako arraitasunez, erantzun zion Havelen begiko saila saltzeko asmoa ez zela inondik ere hain berria, jadanik biak hartaz mintzatuak zirela behin baino gehiagotan, lur-zati harekin alderatuta Dresdenen hiriaz kanpo zeukan etxeak aipatzea ere merezi ez zuen eranskin bat baizik ez zela, eta hitz batean, mesedea egin nahi bazion eta bi jabegoen arduratu, prest zegoela zegokion kontratua sinatzeko. Umorea zertxobait behartuz, oraindik gaineratu zuen, mundua ez zela Kohlhaasenbrücken amaitzen, norbere ondarea aita arretatsu gisa administratzea hutsal eta garrantzi gutxiagoko bihurtzen zuten helburuak egon zitezkeela; eta hitz batean, arima gauza handietarako prestaturik zeukala, zeinen berri agian laster izango zuen. Eskribauak, arrazoi hauek lasaiturik, aldarte atseginean

galdetu zion emazteari, zeinak haurra behin eta berriz musukatzen zuen, ea senarrak ez ote zuen berehala guztia ordaintzea eskatuko, ezarri zituen belaunen gainean edukitako kapela eta makila mahaiaren gainean, hartu zuen tratulariak eskuan edukitako papera lehen irakurketa bat egiteko. Kohlhaasek, hurbilago-tzen zitzaion bitartean, azaldu zion berak idatziriko baldintzapeko salerosketa-itun bat zela, lau aste barruko epe-mugarekin, erakutsi zion sinadurak eta zenbatekoak zehaztea bakarrik falta zuela, salmentaprezioarena berarena eta atzera eskuratzearena, hau da, onartuko zukeen konpentsazioarena baldin eta lau astebeteko epean atzera jotzen bazuen; eta eskatu zion eskaintza bat egin zezala, berak atsegín oneko izan nahi zuela eta ez traba handirik jarri. Emakumea alde batera eta bestera zebilen gelan zehar; bularra agerian geratu zitzaion, zeren haurra bildu zueneko oihala, sorbaldatik erabat erortzeko zorian baitzeukan. Eskribauak esan zion bera ez zela gai Dresdengo jabegoaren balioa kalkulatzeko; orduan Kohlhaasek erosketakoan trukatu zituzten gutunak barreiatuz erantzun zion berak ehun florinetan balioesten zuela, nahiz eta gutunetatik erdi bat gehiago kostatu zitzaiola ateratzen zen. Eskribauak, berriz ere erosketa-kontratua irakurri zuen, eta atzera-jotzeko askatasuna, era apartekoan, ezarririk aurkitzean, erdi deliberaturik, aditzera eman zuen berak ez zituela baliaraziko kortan egon zitezkeen zaldia; baina Kohlhaasek erantzun zion berak ez zeukala zaldiez gabetzeko asmorik, armategian esekita zeuzkan armak gordeko zituen bezalaxe, beraz hark... behin eta berriz pentsatu ondoren, paseoan zebiltzala, oraindik denbora asko ez zela, erdi-txantxetan, erdi-benetan, egin zion eskaintza bera errepikatu zion jabegoak zeukan balioaren aldean huskeria bat bazen

ere. Kohlhaasek tinta eta luma hurbildu zizkion idazteko; eta eskribauak, zentzumenek esaten ziotena sinetsi ezinik, berriz ere benetan ari al zen galdetu zion, eta zaldi-tratulariak zertxobait sentikorturik esan zionean ea uste al zuen adarra jotzen ari zitzaiola, hartu zuen aurpegi pentsakorrarekin luma eta idatzi egin zuen; aitzitik, ezabatu egin zuen atzera joz gero saltzaileak jarri beharko zuen diru-kopuruari buruzko puntua; halaber zituen ehun florin eman zizkion, hipoteka gisa, Dresdengo orubearen gain, zeina ez baitzuen eskuratu nahi izan; eta bi hilabetetara hedatu zion tratua erabateko askatasunez ezezta zitekeeneko epea. Jokaera hark hunkiturik, zaldi-tratulariak bihotz-bihotzez eskua estutu zion. Azkenik, ados jarri ziren prezioaren laurdena derrigor berehalakoan eskudirutan ordaintzeko baldintzan eta gainerakoa hiru hilabeteko epean Dresdengo Hamburgetako Bankuan ordainduko zioten, Kohlhaasek ardoa eskatu zuen hain egoki egindako tratua ospatzeko. Botilekin sartu zen mirabeari esan zion, Sternbald kortazainari zaldi beilegia zelatzeko, hirira joan behar zuela zeregin batzuetara, eta aditzera eman zion, handik gutxira, itzulitakoan ordukoz gordeta eduki behar zuena jakinaraziko ziela guztiei. Ondoren, edalontzietara zerbitzatzen ari zen bitartean, poloniarrez eta turkiarrez galdetu zuen, zeinak bolada hartan beren arteko gatazkatan baitzebiltzan; gai hari buruzko zenbait ustekizunetan nahastu zuen eskribaua, amaitzeko berriz ere edan egin zuen negozioa ongi atera zedin eta azkenik atera lagundu zuen.

Eskribaua gelatik irten zenean, Lisbeth belauniko jarri zen senarraren aurrean.

—Baldin eta nonbait —esan zion arrenka— neu eta eman dizkizudan seme-alabok zeure bihotzean badaramatzazu; baldin eta jadanik, nik ez dakidan

arrazoiren batengatik, zapuztu ez bagaituzu: esadazu, zer esan nahi duten prestamen beldurgarri hauek!

Kohlhaasek esan zion:

—Ezer ez, emazte txit maitea, ezer ez gauzak daudenean kezka zaitzakeenik. Kantzilergotik ebazpen bat jaso dut eta bertan esaten didate Tronkako *Junke*-raren aurka aurkeztuta neukan kereila liskar alferra dela. Eta nola hemen gaizkiulerturen bat dagoen, berri-z aurkeztea erabaki dut, baina oraingoan pertsonalki eta Printzearen aurrean.

—Eta zergatik saldu nahi duzu etxea? —garrasi egin zion emazteak aurpegi desitxuratuarekin zutituz. Zaldi-tratulariak, bularraren kontra samurkiro estutzen zuen bitartean, erantzun zion:

—Eskubideak babesten ez dizkidan herrialde batean bizi nahi ez dudalako. Nahiago dut txakur izan gizaki baino, hankapean erabili behar banaute! Ziur nago, honetan, emaztea neure iritzi bereko dudala.

—Nondik atera duzu —galdetu zion onetik irten-da— eskubideak babestu nahi ez dizkizutelako hori? Baldin eta Printzearengana jotzen baduzu, gisa denez, zeure eske-idatziarekin, zergatik uste duzu baztertuko dizutela edo uko egingo diotela entzuteari?

—Ai ene —erantzun zuen Kohlhaasek— dudan beldurra arrazoigabea baldin bada, nire etxea ere oraindik saldu gabe egongo da. Printzea zuzena da, badakit, eta inguratzen dutenen artetik berarengana iristea lortzen badut, ziur nago justizia egingo didala eta, astebete baino lehen, zuregana eta lehengo neure arazoetara pozik itzuliko naiz. Eta nolako gogoia izango dudan orduan —gehitu zion musu bat ematen zion bitartean— neure bizitzaren azkenera arte zure ondoan irauteko! Baina zuhurra da —jarraitu zuen— badaezpada edozertarako prest egotea, horregatik nahiko nuke zuk

hemendik alde egitea, denboraldi baterako, ahal izanez gero, eta gure seme-alabekin Schwerinera, izebarengana joatea, aspaldidanik bisita egin nahi izan baitiozu.

—Nolatan? —garrasi egin zuen etxeko andreak—, ni Schwerinera joan? Muga gaintitu eta neure seme-alabekin ni Schweringo izebarengana joan? —Eta izu-larriak ahotsa irato zion.

—Jakina —erantzun zion Kohlhaasek— eta berehala, ahal bada, neure zereginean eman beharreko pausoetan inolako ardurak trabarik egin ez diezadan.

—Ai ene! Ulertzen dizut! —oihu egin zuen— Armak eta zaldiak besterik ez dituzu behar! Gainerakoa nahi duenak har dezala! —Eta horrenbestez bira eman, besaulki batean amildu eta negarrari eman zion.

Kohlhaasek, hunkiturik, esan zion:

—Lisbeth txit maitea, zertan ari zara? Jainkoak emaztea, seme-alabak eta ondasunekin bedeinkatu nau; gaur nahi izan beharko ote dut lehen aldiz dena beste modu batera gertatu izatea? —Era maitekorrean alboan eseri zitzaion eta emazteak gorriturik besarkatu zuen esan zuenarengatik—. Esadazu bestela —jarraitu zuen bekokitik kizkurrak alboratzen zizkion bitartean— zer egin behar dut? utzi egin behar al dut auzia?, joan Tronkara, eskatu zaldunari zaldiak bihurtzeko, jarri gainean eta ekarri egingo al ditut? —Lisbeth ez zen «Bai! bai! bai!» esatera ausartu, negarrez buruari eragin, indarrez bere kontra estutu eta bularra musu beroz estali zion.

—Ongi da —esan zuen goraki Kohlhaasek—, baldin eta sentitzen baduzu neure lanean segitzeko justizia egin behar zaidala, ez iezadazu horretarako behar dudan askatasuna ken! —Hau esanik zutitu eta kortazainari aditzera eman zion, zeina zaldi beilegia prest zeukala esateko sartu baitzen, biharamunean zaldi nabarrak ere prest edukitzeko, emaztea Schwerinera

eraman zezan. Lisbethek burutada bat zeukala esan zuen. Zutitu, begietako malkoak xukatu eta idazmahai batean eseri zen; zergatik ez zion erreklamazioa ematen esan zion senarrari eta bera joango zela Berlinera, bere ordez, Printzeari aurkeztera.

Kohlhaasek, aldaketa honengatik eta arrazoi bat baino gehiagorengatik hunkiturik, bere altzora erakarri eta esan zion:

—Emazte txit maitea, hori ezina da! Printzea jende ugariz inguraturik dago, eta eragozpen ugari gainditu behar ditu berarengana hurbildu nahi duenak. —Lisbethek erantzun zion emakume bati mila bider errazago izango zitzaiola hurbiltzea gizonezko bati baino.

—Emadazu erreklamazioa —errepikatu zuen— eta bere eskuetara iritsi dela baizik jakin ez nahi baduzu, neuk ziurtatuko dizut jasoko duela. —Kohlhaasek, zeinak bere kemenaz eta zuhurtziaz frogatu bat baino gehiago baitzeukan, nola moldatzea espero zuen galdetu zion, berak lotsaz begiak beheraturik garai batean, Schwerinen zerbitzari zegoela, orain Printzearen jau-regiko gobernari zena errondan ibili zitzaiola erantzun zion; bera orain ezkondu eta seme-alabekin zegoela zehaztu zuen; baina, nolana ere, ez zegoela erabat ahanzmenduan erorita; ... hitz batean, utz ziezaiola hari eta deskribatzeak luze joko zukeen beste inguruabar batzuei etekina ateratzen. Kohlhaasek musu eman zion pozez gainezka, eta proposamena onartzen zuela esan zion, eta jakinarazi zion gobernariaren emaztearen pabiloi berean gela bat besterik ez zuela behar, zeren horrek aukera emango ziola jauregian bertan Printzearekin topo egiteko; eman zion eskari-idatzia, lotarazi zituen zaldi nabarrak eta Sternbald, bere morroi fidelarekin bidali zuen, ongi horniturik.

Bidaia hura ez zen izan auzi hartan eman zituen urrats arrakasta gabe guztien artean zorigaitzekoena. Zeren egun batzuk igaro zirelarik Sternbald etxeko atarian sartu zen berriro, pauso motelean kotxea gidatuz, bertan andrea bularreko mazpildura arriskutsu batekin etzanik zetorrela. Kohlhaasek, orgaraino zurbildurik hurbildu zenak, ezin izan zuen ezer garbirik atera ez-behar haren kausaz. Morroiak esan zuenez, gobernaria ez zegoen etxean eta gazteluaren ingurumarietako ostatu batean alojamendua aurkitzera beharturik aurkitu ziren; biharamun goizean Lisbethek alde egin zuen ostatu hartatik, morroiari zaldiekin bertan gertzeko agindu ondoren; eta arratsera arte ez omen zen itzuli eta egoera hartan gainera. Dirudienez oso era neurrigabean hurbildu bide zen Printzearengana eta, beronen errurik gabe, inguratzen zuten zaindariatako baten suhar hutsarengatik, lantza baten kirtenkada hartu zuen bularrean. Gutxienez hori kontatu zuten konortea galduta iluntze aldera ostatura eraman zutenek, zeren berak gutxi hitz egin baitzezakeen, ahotik zerion odolak uzten ez ziolako. Printzearentzat zeraman erreklamazioa zaldun batek jaso zuen. Sternbaldek esan zuen bere lehen nahia zaldi batean eseri eta gertakari dohakabe hartaz berri ematea izan zela; baina andreak, deitutako medikuaren ohar guztiak gorabehera, aurretiazko gaztigurik gabe senarrarengana eramanarazteko eskatu zuela. Bidaiarengatik unaturik zegoenez gero, Kohlhaasek hartu eta ohera eraman zuen, non arnasa hartzeko egin behar zituen ahalegin mingarrien artean, egun banaka batzuetan bakarrik bizirik iraun izan zuen. Alferrrik egin ziren berriro senera ekartzeko ahaleginak gertatutakoari buruz argitasunak jasotzeko; begirada finko eta itzaliarekin zetzan, eta ez zuen ezer erantzuten. Hil baino zerbait lehenago

bakarrik etorri zen berriro senera. Elizgizon luterotar bat (zeinaren ernamuinetan zegoen fedea aitortu baitzuen, senarraren eredura) ohearen ondoan zegoen une hartan eta, ahots gandutuz, baina indartsu eta zeremoniatsuz Bibliako kapitulu bat irakurtzen: bat-batean bekoki ilunaz begiratu, hartu zion eskuetatik Biblia, hartatik ezer irakurri beharrik ez balu bezala, orriak irauli eta irauli jardun zuen, zerbaiten bila babelibil bezala; eta ohean eserita zegoen Kohlhaasi hatz erakusleaz bertsikulu hau seinalatu zion: «Barkatu zeure etsaiei; on egin gorrotatzen zaituztenei». Begirada guztiz esanguratsuz estutu zion eskua senarrari eta hil egin zen. Kohlhaasek pentsatu zuen: «Jainkoak ez diezadala inoiz barka, nik *Junkerrari* barkatzen ez diodan bezala!»; musu eman zion, begietatik malko ugariak zerizkion bitartean, itxi zizkion begiak eta gelatik irten zen. Hartu zituen eskribauak eskudirutan Dresdengo korten truke emandako ehun florinak eta berarentzat baino printzesa batentzat areago eginaz zirudien hileta bat antolatu zuen: zerraldoa, haritezkoa zen, metal ugariz hornitua, zetazko kuxinak eta urre eta zilarrezko heldulekuak, zortzi besabete sakonerako hilobia harriz eta karez estalia. Berak, haur txikiena besoetan zuela, egon zen hobiaren ondoan eta gainbegiratu zuen lana. Ehorzketa-eguna iritsi zenean, gorpua, elurra bezain zuri, senarrak oihal beltzez estalitako areto batean aurkeztu zuten. Elizgizonak hitzaldi hunkigarri bat atautearen aurrean amaitu bezain laster, zenduaren eske-idatziari Printzeak egingadako ebazpena eskuratu zioten, eta bere edukiak zioen Tronkatik zaldiak hartzeko eta presondegi-zigorpean, auzi hari buruz ez zezala kexa gehiagorik aurkeztu. Kohlhaasek gorde egin zuen gutuna eta zerraldoa organ ezarrarazi zuen. Lurra bota, gainean gurutzea ezarri eta

gorpua ehortzi zuen segizioari adio esan ondoren, beste behin orain bakar zegoen ohearen gainera amildu zen eta mendekuaren egitekoa bere gain hartu zuen. Eseri zen idazmahaian eta idatzi zuen ebazpen bat, jaiotzatik zegokion ahalmenaren indarrez, Wenzel von Tronka *Junkerra* aldarrikapenetik hiru eguneko epean soro-lanetarako bahitu eta maskarturiko zaldiak berak Kohlhaasenbrückera bihurtzera kondentzen zuen, eta bere eskuz jaten eman eta beren kortetan lehengo egoerara itzularaztera. Mezu hau zaldizko mandatari batekin bidali zion, eta dokumentua entregatu ondoren, Kohlhaasenbrückera berehalaxe itzultzeko agindu zion. Zaldiak entregatu gabe hiru egunak igaro zirelarik, Herseri dei egin zion; jakinarazi zion zer eman zion aditzera jaun gazteari zaldiei jaten emateari zegokionez; eta bi galdera egin zizkion: ea berekin Tronkako gaztelura joan nahi zuen jaun gaztearen bila, eta ea ekarri ondoren, berak zartailua erabili nahi zuen, baldin eta bera uzkur agertzen bazen epaia betetzeko, eta nola Hersek, ulertu bezain laster: «Jauna, gaur bertan!» esan zuenez gero, eta txanoa airera jaurtikiz, ziurtatu zuenez gero, hamar korapiloko hede bat txirikordatu-ko zuela zaldiak txarrantxatzen irakasteko, saldu zuen Kohlhaasek etxea eta seme-alabak mugaz bestaldera bidali zituen kotxean; bildu zituen ilunabarrean gainetarako morroiak –zazpi ziren eta bakoitza urrea bezain fina–; armaz hornitu, zaldiak eman eta Tronkako gaztelurantz abiatu zen.

Taldetxo honekin amildu zen gazteluan hirugarren gaua egitean aduanazaina eta zelataria aurrean hartuz, zeinak atarian hizketan baitzeuden, eta bertean Herse su hartu zuten gazteluaren esparruko barraken bat-bateko txirtxir artean, alkaidego-dorreko zurubi meharrean gora zihoan eta goian alkaidea

eta administrariaren kontra oldartu zen, zeinak erdi-jantzirik kartetan jokatzen ari baitziren, Kohlhaas gaztelura joan zen lasterka Wenzel Junkerraren bila. Judizioaren aingerua zerutik behera zetorren beraz; eta *Junkerra*, zeinak barre-algara askoren artean, adiskide gazteen taldeari zaldi-tratulariak igorritako epaia irakurri berria baitzion, beronen ahotsa atarian entzun orduko, hildakoa bezain zurbil oihuka hasi zitzaien jaunei: «Anaiok, salba zaitezte!» eta desagertu egin zen.

Kohlhaasek, aretoan sartzean, beste *Junker* bati, Hans von Tronkari heldu zion paparretik, eta halako indarrez aretoaren zoko batera bota zuen, non burmuinek harlauzak zipriztindu zituzten, eta morroiak zaldunak menperatzen eta sakabanatzen ari ziren bitartean, zeinek armak hartu baitzituzten, zaldi-tratulariak atergabe galdetzen zuen Wenzel von Tronka *Junkerra* non zegoen. Eta gizon sorgortuen ezjakintasunaren aurrean, gazteluaren albo-hegal batera ematen zuten bi gelatako ateak ostikoz saltarazi ondoren, eta inor ez aurkitzean eraikin hedatsuan barrera norabide guztietatik ibili eta gero, biraoka itzuli zen gazteluaren atarira, irteerak hartzeko agintzera. Bitartean, barrakenugarrek erasorik eta zerurantz igotzen ari zen ke lodiaren artean gazteluaren hegal guztiak erretzen hasita zeuden eta honela, Sternbald eta beste hiru morroi zeregintsu josia eta tinkatua ez zegoen guztiaz jabetzen ari ziren, eta zaldien artean harrapakintzat botatzen zuten, eta Herseren bozkarioaren artean, alkaidea eta administrariaren gorpuek, emazte eta seme-alabekin hegaz egin zuten alderen alde irekita zeuden alkaidiako leihoetatik. Kohlhaasek, zeinak zurubian behera jaistean bere oinetan ahuspezturik etxekoandre zaharra, kotak jotako atsoa, *Junkerraren* administrazioa zeramana aurkitu zuen,

eta oraindik eskailera-mailetan zegoela galdetu zion non zegoen Wenzel von Tronka *Junkerra*, eta emakumeak ahots ahul dardaratiz ustez kaperan ezkutatu zela erantzun zionean, zuziekin zebiltzan bi morroi dei egin, giltzen faltan, sarrera hagaz eta barraz irekiarazi zuen atea, eta aldare eta aulkiak irauli zituen baina damuz ez zuen *Junkerra* aurkitu. Gertatu zen Tronkako morroi gazte bat igaro zela lasterka ataritik Kohlhaas kaperatik zetorrela, harrizko korta hedatsu batetik sugarren mehatxupean zegoen *Junkerren* arraza garbiko zaldia ateratzeko asmoz. Kohlhaasek begiz jo zituen orduan lastozko aterpetxo batean bere zaldi mairuak eta galdetu zion morroiari zergatik ez zituen mairuak salbatzen eta hark, giltza kortako atean sartzen zuen bitartean erantzun zion aterpea jadanik sugarretan zegoela; Kohlhaasek sarraila kendu eta harresiaren gainetik jaurtiki zuen, jadanik sugarretan zegoen aterperaino eraman morroia ezpataz plastadak emanaz eta ingurukoen barre-algara ikaragarrien artean mairuak salbatzeko agindu zion. Halere, morroia izu-laborriz zurbildurik, bere atzealdean aterpea porrokatzean, zaldiak eskutik zituela handik gutxira irtetean, jadanik ez zuen Kohlhaas atean aurkitu; eta plazako morroiengana hurbildu zenean eta tratulariari galdetzean, zeinak behin baino gehiagotan eman baitzion bizkarra, zer egin behar zuen gero zaldiekin, honek supituki eta itxura beldurgarriarekin oina jaso zuen, eta bota zion ostikoak heriotza ekarriko ziokeela harrapatu izan balu: ezer erantzun gabe, bere zaldi beilegira igo, gazteluaren atera abiatu eta bertan itxaron zuen, morroiek egunaren zain beren solasean ziharduten bitartean.

Eguna argitu zuenean gaztelu osoa errausturik zegoen hormetaraino eta bere barrenean Kohlhaas eta

zazpi morroiak bakarrik aurkitzen ziren. Jaitsi zen orduan zalditik eta berriro toki hura miatu zuen orain eguzkiaren argitan ikusten ziren zoko guztietaraino eta nahiz eta tamalgarria izan, sinetsi behar izan zue-
nez gero gaztelurako txangoak porrot egin zuela, Herse eta beste morroiak bularra saminez eta atsekabez be-
terik zuela bidali zituen, *Junkerrak* bere ihesean nora jo ote zuen berriak biltzera. Bereziki kezkatzen zuen han-
dik hurbil Erlabrunn izeneko emakumezkoen komentu aberats bat izateak, Mulda ibaiaren hegian kokatua, eta zeinaren abadesa, Antonia von Tronka, emakume santua, jaierratsua eta karitatezko zat zeukaten inguru-
marian; Kohlhaas dohakabeari buruak eman zion oso posiblea zela *Junkerrak*, inolako laguntzarik gabe zegoe-
nez, komentu hartan babesa hartu bide zuela, abadesa bere izeba eta behiala txikitzen *Junkerraren* hezitzaile izana zelarik. Inguruabar horren jakitun izaki, Kohlhaas udaletxera igo zen, non gela erabilgarri bat zegoen eta «Kohlhaasiar ediktua» izeneko idatzi zuen, Wenzel von Tronka *Junkerrari* edozein gisatako laguntza ukatzea herrialdekoei eskatuz, zeinarekin zuzenbidezko gerran zebilen; aitzitik, hiritar oro larderiartzen zuen *Junkerra* entregatzera, bere ahaide eta adiskideak salbu ez zeudela, gorputz eta herio zigorpean, baita odol eta suz igarora ikustera bere jabegotzat jo zitekeen edozer. Aldarrikapen hau bidazti eta arrotzen bidez barreiatu zuen eskualdean zehar; eta Waldmann-i, morroiari, kopia bat luzatu zion Erlabrunnera, Antonia von Tronka andrearen eskuetara, eramateko mandatu zehatzarekin. Gero Tronkako gazteluko morroi batzuek arduratu zen, zeinak ez baitzeuden pozik *Junkerrarekin*, eta harrapakinak jasoko zituztelakoan Kohlhaasen zerbitzuan sartu nahi baitzuten; infante gisa hornitu zituen, daga eta baleztarekin, eta morroi zaldunen

atzean esertzen irakatsi zien; eta taldeak bildu zuen guztia diru bihurtu eta beraien artean banatu ondoren, atsedena hartu zuen zenbait orduz, gazteluko atalpean bere eginbehar tamalgarritik.

Eguerdi aldera itzuli zen Herse eta beti presagio goibelenetarako prest zeukan bihotzak esandakoa berretsi zion: *Junkerra* Erlabrunnen aurkitzen zela, izeba zuen Antonia von Tronka dama zaharrarenean. Zirudenez, gazteluaren atzealdeko horman zegoen ate batetik kanpora irten zen, harrizko eskailera txiki bateatik zehar salbatu zen, zeina Elbaren hegian amarraturik zeuden txalupa batzuetaraino baitzeraman. Hersek gutxienez esan zuen, Tronkako sutearengatik bertara bildu zirenen harrimenerako, arraun eta lemarik gabeko gabarra batean heldu zela Elbako herritxo batera eta gero Erlabrunnerako bidaia segi zuela herriko orga batean... Hura entzutean Kohlhaasek hasperen sakan bat egin zuen; galdetu zuen zaldia jaten emanak zeuden eta, baietz erantzun zitzaizolarik, bere taldeari esertzeko esan eta hiru ordu geroago Erlabrunnen aurrean zegoen. Horizontean urrun nabari zen ekaitzaren burrundareekin eta toki hartan agindutako zuziek in tinkatzeko esan zion, bere jende-mordoarekin sartu zen komentuko atarian, eta Waldmann, morroiak, aurrera etorririk, jakinarazi zion ediktua emana zegoela agindu zuenez; une hartan ikusi zuen abadesa eta administraria eztabaida zalapartatsuan irteten ari zirela atarira; eta bitartean, komentuko alkaideak, adineko gizontxo ilezuriak, denbora guztian Kohlhaasi herraz begiratzen zionak, inguruan zeuzkan morroiei koraza janzten laguntzeko ahots lakarrez, ezkila-dandara jo zezatela agintzen zien: sartu zen komentuko emakumea pendizean behera gurutziltzatuaren zilarrezko irudia eskuan zuela, lihozko mihisea bezain zuri, eta

etxeko dama guztiekin batera Kohlhaasen zaldia-
ren aurrean ahuspeztu zen. Kohlhaasek, Hersek eta
Sternbaldek eskuetan ezpatarik ez zeraman alkaidea
menperatu, eta preso harturik zaldi artean zekarten bi-
tarteant, Tronkako Wenzel *Junkerra* non zegoen galdetu
zion andreari; eta beronek giltza-mordo bat gerritik ja-
reginez:

—Wittenbergen, Kohlhaas prestu hori!—erantzun
zion eta ahots dardaratiz gehitu zion— Zaitex Jainkoa-
ren beldur eta ez egin bidegabekeriarik! —Kohlhaasek
bira eragin zion zaldiari, bere mendeku zapuztua-
ren infernua murgildurik eta «Su emaziozue!» oihu
egiteko zorian egon zen, tximista eskerga bat bere
ondo-ondoan lurrera erori zenean. Kohlhaasek berri-
ro zaldia berarengana zuzendu eta galdetu zion ea ez
zuen bere ediktua jaso, eta orduan damak ahul ia
entzunezinez erantzun zion:

—Oraintxe bertan.

—Noiz?

—Ordu bietan, Jainkoak gorde nazala, *Junke-
rrak*, nire ilobak, alde egin eta gero!... —eta Waldmann
morroiak, zeinarengana Kohlhaas zuzendu baitzen,
begirada goibelarekin, hitz-totelka ziurtatu eta esan
zion euriak hazitako Muldako urek eragotzi egin zio-
la lehenago alde egitea: beraz, Kohlhaasek amore eman
zuen, bat-batean, zuziak itzaliz, tokiko tronaduraren
gainera erori zen euri-jasa ikaragarriak bularra zanpa-
tzen zion samina arindu zion; zaldiari bira eman zion,
damaren aurrean kapela arinki makurtuz, ezproiak
sartu zizkion:

—Zarraizkidate, anaiok; *Junkerra* Wittenbergen
dago! —esanez eta komentutik irten zen.

Gautu zuenean, bideko ostatu batean geratu
zen, non zaldia oso nekaturik zeudelako egun bateko

atsedena hartu behar izan zuen, eta hamar gizoneko talde batekin (besterik ez baitzuen orduan) Wittenberg bezalako plaza bati aurre egiterik ez zuenez gero, bigarren ediktu bat idatzi zuen, zeinean landan gertatutakoaren berri laburra emanaz, gomendio egiten zion «kristau on orori», berak zioenez, «soldata eta gerrako beste abantaila batzuen promespean, Tronkako *Junkerraren*, kristau guztien etsai orokorraren, kontrako bere kausari atxikitzeko». Handik gutxira agertu zen beste ediktu batean «mundua eta inperioarekiko betebeharririk ez zuen eta Jainkoari bakarrik men egiten zion jaun» deitzen zuen bere burua; eldarnio gaixozkoa eta endekatua, zeinak berehalaxe, txanponaren soinura eta harrapakinaren itxaropenarekin, Poloniarekiko bakeak ogirik gabe utzitako jendaila trumilka erakarri baitzion: horrela, izatez hogeita hamar burutik gora zituen Wittenberg errausteko Elbaren eskuinaldeko hegia gurutzatu zuen berriro. Antzinako mandio baten teilatupean kanparazi zituen morroiak eta zaldiak, orduan plaza inguratzen zuen baso ilun baten bakardadean, eta Sternbaldek jakinarazi bezain laster, zeina mozorroturik hirira bidali baitzuen ediktuarekin, betean bazekitela aldarrikapenaren berri, lehenbailehen abiatu zen bere taldearekin eta Mendekoste bezperan, biztanleak lo betean zeudela sartu zen plazan eta aldi berean mutur anitzetatik su eman zion. Eta morroiak harresiaz kanpo zakuraketan ari ziren bitartean, eliza bateko atariko zutabeen orri bat josi zuen honela zioena: «berak, Kohlhaasek su eman ziola hiriari eta *Junkerra* entregatzen ez bazioten halako moldez erraustuko zuela, non –berak adierazten zuenez– ez zela ezein hormaren atzean beharrik izango bera aurkitzeko». Biztanleen izu-laborria, inoiz entzungabeko desmasia honen aurrean, deskribaezina izan zen; eta

sugararak, zorionez udako gau lasai samar hartan, zeinak bederatzi etxe eta eliza bat ere bai beraien artean, bakarrik hondatu zituenak, eguna argitzean nolabait menperatua izan zen, Otto von Gorgas, jadanik adinako korrejidoreak berrogeita hamar gizonetako talde bat bidali zuenean odolzale beldurgarria geldiaraztera. Baina gidari zen kapitaina, Gerstenberg zeritzona, hain gaizki moldatu zen, non espedizioak Kohlhaas azpiratu orde beronen gerlari arriskutsu sona areagotzen lagundu zuen; zeren bere gerlari honek, sail bat baino gehiagotan banatzean, horrela -berak esan zuenez- erreboltatua hesitu eta zanpatzeko, halako moldez ikusi zuen bere burua eraso eta zanpatua, zeinaren taldeak baturik iraun zuen, non biharamuneko arratsean ez baitzen zelaian herrialdearen itxaropen ziren gizonetatik bakar bat ere gelditzen. Kohlhaasek, borroka haietan gizon batzuk galdu zituelarik, biharamun goizean berriro su eman zion hiriari, eta bere gertamen kriminalak hain onak izan ziren, non berriro etxe mordo bat eta harresiaz kanpoko mandio gehienak errauts bihurturik geratu ziren. Orduan ere ediktu ezaguna ezarri zuen berriz ere, baina oraingoan udaletxearen kantoian, eta parte bat gehitu zion korrejidoreak bidali eta berak menperaturiko Gerstenberg kapitainaren zoriaz. Korrejidorea, haren setaz erabat sumindurik, ehun eta berrogeita hamarreko gizon-talde baten buru jarri zen, beste zaldun batzuekin. Wenzel von Tronkako *Junkerrari*, beronek idatziz eskatu ondoren, herriaren indarkeriatik babesteko guardia bat izendatu zion, zeina herritik urrundurik bakarrik ikusi nahi baitzuen; eta eskualdeko herri guztietan guardiak ezarri ondoren eta hiriko harresietan zelatariak ipini eta gero ustekabeko erasotik jagoteko, Gerbasio Santuaren egunez herrialdea sakailatzen ari zen herensugea

harrapatzera irten zen. Zaldi-tratularia aski zuhurra izan zen talde hari iskintxo egiteko; eta korrejidorea, martxa trebeekin, hiritik bost milia urrunarazi ondoren, eta zenbait trikimailurekin, proportzio ezagatik, Brandenburgengana sartzera beharturik aurkitu zela, hirugarren gauean supituki norabidez aldatu, trosta bizian, Wittenbergera itzuli eta hirugarren aldiz su eman zion hiriarri. Herse, zeina mozorroturik sartu baitzen hirian, izan zen arte-obra ikaragarriaren egilea; eta sugarrak, ipar-haize gogorrak eraginik, hain hondagarri eta irensele gertatu ziren, non hiru ordu baino gutxiagoan berrogeita lau etxe, bi eliza, zenbait komentu, eskola eta korrejidorearen jauregia bera ere herexa eta errauts bihurturik utzi zituen. Korrejidoreak, egunsentian etsaia Brandenburgengana egongo zela uste zuenak, gertatuaren berri jakin eta martxa zala-partatsuan itzuli ondoren, hiria erabateko erreboltan aurkitu zuen; *Junkerraren* etxea trabaturik zeukaten haga eta taketen aurrean bildu zen herria milaka eta egundoko ardailarekin hiritik eramateko eskatzen zuen. Jenkens eta Otto izeneko bi burgomaisuk, kontzejuaren aurrean beren karguari zegokionez jantzita, alferrik argudiatzen zuten kantzilergoaren buruari presaz bidalitako mandataria itzuli arte derrigor itxaron beharra zegoela, *Junkerra* Dresdenera eramateko baimena izateko, nora berak ere arrazoi desberdinengatik joan nahi zuen; pikaz eta taketaz armaturiko jendetza zentzugabeak ez ziren hitz haiei jaramonik egiten eta neurri zorrotzagoak eskatu zituzten zinegotziei tratu txarra emateaz gain, jadanik *Junkerra* zegoen etxeari eraso eta bera lurrera eraisteko asmoa zeukan, Otto von Gorgas korrejidorea agertu zenean zaldizko-talde baten buru. Jaun duin honek, bere presentzia soilez herriari errespetua eta obedientzia ezartzera ohituta

zegoen honek lortua zuen atxilotzea, huts egindako txangoaren konpentsazio gisa, kriminal su-emailearen bandako hiru zaldun barreiatu hiriko ateetan bere-tan; eta halako haiek, kateez zaturik herriaren aurrean zeudela, hitzaldi zuhur batean, epe laburrera Kohlhaas bera kateaturik ekarriko zuela ziurtatu zion kontzejuari, jadanik aztarnaren atzetik omen zebile-lako: inguruabar lasaigarri hauen indarrez bildutako herriaren beldurra ibitu eta mandataria Dresdenetik itzuli arte *Junkerra* bertan egoteaz zertxobait baretzeko zortea izan zuen. Zalditik jaitsi egin zen beste zaldun batzuk lagun zituela eta barrikada eta hesolak kendu ondoren, *Junkerra* aurkitzen zen etxean, zeina behin eta berriz erortzen baitzen ondoezetan, esentzia eta sinapismoekin bizira ekarri nahi zuten bi medikuren eskuetan; eta Otto von Gorgas zaldunak ongi ulertzen zuelarik ez zela une egokia eginbeharrekoak burutzeaz eztabaidan hasteko: mespretxu isilezko begiradaz soilik esan zion jantzeko eta bere segurtasunerako kartzela aforatura segitzeko. Kota altxaturik eta kas-koa zintzilik zituela, baina bularra erdi zabalik zuela arnasa hartzeko zituen eragozpenengatik, kalean ager-tu zenean korrejidorearen eta Gershau kondea, bere koinatuaren besotik, ikaragarriak ziren entzuten ziren madarikazio biraozko eta lazgarriak. Konteak jasotzen zituen irainen artean zeuden herrialdearen izurritea zela, giza tormentatzailea, Wittenbergen madarikazioa eta Saxoniaren hondamendia; eta hondakinez beteriko hirian barrena segizioa nekez igaro ondoren, zinean behin eta berriz ohartzeko galdu zuen kaskoa eta atze-tik zihoan zaldunak berriro buruan jartzen zion, eta azkenean kartzelara iritsi zen, zeinetako dorreetariko batean galdu zen, guardia indartu baten babespean.

Bitartean mandataria itzuli zen hiriarri kezka berriak ekarri zizkion Hauteslearen ebazpenarekin. Zeren gobernuak, Dresdengo udalak arrenka eskaturik, erabat eskuak garbitu baitzituen *Junkerra* hiriburura garraiatzeaz, hobendari su-emailea menperatu aurretik; aitzitik agintzen zitzaion korrejidoreari, *Junkerra* nonahi zegoela ere, izan ere nonbait egon beharra baitzeukan, eskura zuen ahalmen guztiaz geriza zezala: alabaina, iragartzen zuen Wittenbergeko hiri leialaren lasaitasunerako, bostehun gizoneko tropa bat, Friedrich von Meissen printzearen manupean bidean zela, aipatuak sor zitzakeen eragozpenetatik babesteko. Korrejidorea ohartu zen gisa hartako ebazpenak ezin zezakeela hiria lasaitu: zeren ez baitzen bakarrik une desberdinetan zaldi-tratulariak hiriarekiko enfrentamenduetan lortutako abantaila txikiak zeuzkan indarrei buruz zurrumurru guztiz gogaikarriak sortarazi zituela; baizik eta egiten zuen gerrak, gaueko ilunpetan ezkutatuta eta bikea, lastoa eta sufrea gatatzen zuen jendaila mozorrotuak burututa, eraginik gabe utz baitzezakeen, ezohikoa bezain entzungabea zelarik ere, Meisseneko Printzeak zekarrena baino babes handiagoa ere. Korrejidoreak, gogoeta labur baten ondoren, jasotako ebazpena erabat ezkutatzea erabaki zuen. Meisseneko Printzeak bere etorrera iragartzen zuen gutuna hiriaren kantoian desberdinetan ezartzera mugatu zen; kotxe itxi bat, zeina goizabarrean kartzela aforatutik irten zen, lau zaldizko gogor armaturen artean Leipzigerako bidean jarri zen, zaldizkoek era zehaztugabean Pleisseneko gaztelura zihoazela adierazi zuten bitartean; eta herria, sua eta txikizioa besterik ekartzen ez zuen *Junker* dohakabe hura zela eta hone-la bareturik, bera abiatu zen hirurehun gizoneko talde batekin Friedrich von Meissen printzearekin elkartze-

ra. Bitartean Kohlhaas ekinean zebilen eta munduan irabazi zuen posizio apartekoarengatik ehun eta berderatzi gizon izateraino iritsi zen; eta nola Jassenen arma-hornizio batez jabetu zen gainera eta bere tropa erabat armatu izan zuenez gero, gainera zetorkion ekaitz bikoitzaren berri eman ziotelarik, galernaren bizkortasunaz bidera irteteko erabakia hartu zuen, hark menperatu baino lehen. Beste egun bat pasatzen utzi gabe, gaueko eraso batean, Meissengo printzeari oldartu zitzaion: egia da, bere nahigabe handirako, Herse galdu zuela, zeina lehen dispartoekin bere ondoan erori baitzen; baina, galera honek garrazturik, hiru orduko borrokan Printzea, tokian tropa biltzeko gai ez zena, porrokatu zuen, zeina egunsentian, jasotako zauri larriengatik eta bere tropan zegoen erabateko desordenuarengatik, Dresdenera itzultzera beharturik aurkitu zen. Abantaila honek ilarraindurik, atzera egin zuen Kohlhaasek, gaztigu eman baino lehen, korrejidorearekin topo egitera, egun betean eraso eta landa zabalean Damerow izeneko tokian borroka egin zuen, galera izugarriekin noski, baina abantaila berekin, gau aurreratua izan arte. Eta biharamunean ez ziokeen korrejidorea, zeina Dameroweko klaustroan babestu baitzen, erasotzeari utziko bere troparen hondarrekin, baldin eta espedizionarioek Printzeak Mühlbergen izandako porrotaren berri eman izan ez baliote eta zuhurratzen jo izan ez balu berehala, abagune hobera arte, Wittenbergera itzultzea. Bi tropa hauek sakabanutu eta handik bost egunetara agertu zen Leipzigen eta hiru lekutatik su eman zion hiriari. Abagune honetan banatu zuen ediktuan bere burua «Mikel Goiaingeruaren ordekozat» zuen, auzi hartan «Printzearen alde jarri zirenengan mundu osoa amildu zeneko bilaukeria suz eta ezpataz zigortzera» zetorren. Halaber, herri

osoa bildu zuen ustekabeen hartu eta bere gotorleku bihurtu zuen Lützen go gaztelutik, gauzen ordena hobe bat eraikitzeke elkar zitezen dei egiten zien; eta ediktua, nahasmendu apur batekin, honela sinaturik zegoen: «Gure mundu-gobernuaren behin-behineko egoitzan, Lützen go gazteluan emana». Leipzigerko biztanleen zoriak nahi izan zuen, zerutik erori zen euri atergabeari esker, sutea ez hedatzea, halako moldez, non itzalketa-lanei eman zitzaizen lastertasunarengatik Pleissengo gazteluaren inguruko bazar batzuk bakarrik erre baitziren. Halere, ezin esanezkoa izan zen hiriarren aztoramena su-emaile amorratua eta berau aurkitzen zeneko eromenaren aurrean, eta nola bere kontra bidalitako ehun eta laurogei zaldizkoko tropa deseginik hirira itzuli zen, hiriko aberastasunak arriskuan jarri nahi ez zituen kontzejuak atea hesitzea eta gau eta egun harresiez kanpotik hiritarrak jagotea ez zuen beste erremediorik izan. Alferrik jarri zituen kontzejuak ingurumarietako herrietan aldarrikapenak *Junkerra* alboko Pleissengo gazteluan aurkitzen ez zelako berme zehatzarekin; zaldi-tratulariak, antzeko orrietan, Pleissengo gazteluan zegoela aldeztu zuen, eta bertan balego bezala jokatzeko segituko zuela jakinarazi zuen, nahiz eta ez egon, harik eta bere izenez aurkitzen zeneko tokia adieraziko zioten arte. Leipzigerko hiria aurkitzen zeneko estutasunaren berri mandatari batek emanik, Saxoniako Hautesleak iragarri zuen jadanik bi mila gizoneko armada bat biltzen ari zela Kohlhaas atzemateko eta bera jarriko zela haren buru. Otto von Gorgas jaunak errieta gogorra egin zion Wittenbergetik su-emaile urruntzeko erabili zuen amarru hausnartu gabe eta bikoitzarengatik; eta inork ezin du deskribatu Saxonia osoa, eta batez ere hiriburua, inarrosi zuen aztoramena, Leipziger inguruko herrietan, ez jakin

nork, Kohlhaasi zuzenduriko aldarrikapen batek hone-la zioen: «Wenzel, *Junkerra*, Dresdenen dago Hinz eta Kunz lehengusuen etxean».

Inguruabar hauetan Martin Lutero doktoreak bere gain hartu zuen hitz baretzailearen indarrez eta munduan zeukan posizioak ematen zion itzalak lagundurik, Kohlhaas giza ordenuaren esparrura ekartzea; eta su-emailearen bihotzean zegoen bertute-aztarnaren gainean eraikiz, honako edukia zuen iragarki bat zuzendu zion Saxoniako hautesle-printzerriko hiri eta leku guztietan ezartzeko:

Kohlhaas, zuzentasunaren ezpata hartzeko bidalia haizela dioan hori, zertara ausartzen haiz, lotsagabe hori, eldarnio itsuaren eromenean, heu, burutik oinetaraino zuzengabeberria hutsa haizenean? Manupeko hauen jaunak hire eskubidea, ondasun hutsal batekiko auzian hire eskubidea ukatu duela, altxa egiten haiz, dohakabe hori, eta suz eta ezpataz, eta basamortuko otsoaren gisa oldartzen hatzaio berak gerizatzen duen elkarte baketsuari. Hik, gizakiak kontakizun zital eta egitasun gabeaz engainatzen dituk, uste al duk, bekatarri horrek, baliagarri izango duala Jainkoaren aurrean, bihotz guztietako zoko-mokoak argituko diren egunean? Nola esan dezakek, hiri eskubidea ukatua zaijala, baldin eta hire bular herratsua, mendeku zitalaren hazkurak zirikatutik bilatzeari uko egin baldin baziok heure lehen ahalegin arinak zapuztuak ikustean? Auzi-morrori eta aguazil-multzo bat al duk eskuratu beharreko gutun bat gordetzen dutenak, edota helarazi beharreko ebazpen bat atxikitzen duena al duk hire nagusia? Ala esan egin behar ote diat, Jainkoak ahaztu hori, hire nagusiak ez dakiela ezertxo ere hire auziaz? Areago, altxatu hatzaion jaunak hire izena jakin ere ez dakiela, halako moldez, non bera salatzeke asmoz Jainkoaren tronuaren aurrera joandakoan, berak aurpegi irribarretsuz esan ahal izango dik: gizon honi, jauna, ez diot bidegabekeriarik egin, izan badenik ere ez baitaki nire arimak. Eskuan daramaan ezpata, jakizak, hobena eta lapurretaren ezpata duk, erreboltari bat haiz eta ez-Jainko

zuzenaren gerraria, eta lur honetan hiri dagokian azkena es-tira eta urkabea izango dituk, eta haraindian desmasia eta jainkogabekeriari dagokien kondenzazioa.

Wittenberg, eta abar.

Martin Lutero

Kohlhaasek, Lützeno gazteluan, Leipzig errausteko plan berri bat asmatzen ari zen bere bu-lar erdiratuan, zeren ez baitzuen herrietan esekitako iragarkia sinetsi: Wenzel *Junkerra* Dresdenen zegoela, ez baitzegoen inork sinatua, ez noski, kontzejuak, be-rak eskatu zuenez; Sternbald eta Waldmannek gauzez gaztelu-aterako bidean ezarri zuten iragarkia harridu-ra handiz ikusi zuten. Alferrik itxaron zuten, zenbait egunetan albistea berek eraman gabe, Kohlhaasek berak ikus zezan; goibel eta bere baitan murgildurik arratsean egiten zuen agerpena, baina agindu labur batzuk emateko bakarrik, eta ez zuen ezer ikusten; ha-lako moldez, non goiz batean morroi batzuk urkarazi nahi izan zituelarik, zeinek, aginduaren kontra ingu-rumariak zakuratzen aritu ziren, hartaz ohartarazteko erabakia hartu zuten. Segizioan zetorren, herria bel-durrez alde banatara aldentzen zitzaiola, azkeneko ediktua argitara eman zuenetik hartutako itxurarekin: kerubin-ezpata handi bat larru gorrizko bururdi ba-tean ezarria, urrezko borlez apaindua aurretik zuela, eta zuzi irazekiak zeramatzaten hamabi morroi atze-tik zituela; orduan bi gizonak sartu ziren, ezpatak galtzarbean zituztela, iragarkia finkaturik zegoen ko-lomara hurbildu eta bira eman zuten harriturik haren inguruan. Kohlhaas, eskuak bizkarraren atzealdean zituela eta pentsaketan murgildurik atera iristean, begiak jaso eta txunditu egin zen; eta morroiak bere begiradaren aurrean adeitsu baztertzean, Kohlhaasek pauso lasterrez bertaraino hurbildu eta txunditurik be-

giratu zien. Baina nork deskribatuko du ariman gertatu zitzaiena bidegabekeriaz salatzen zuen papera han ikustean, ezagutzen zuen izenik maitagarrienak eta errespetagarrienak sinatua, Martin Luterorenak hain zuzen? Gorritasun ilun bat aurpegiratu zitzaion; kas-koa erantzi eta bi aldiz irakurri zuen goitik beheraino; begirada ez baitiz zuzendu zen morroiengana, zerbait esan nahi balie bezala, baina ez zuen ezer esan; soltatu papera hormatik, irakurri berriro eta oihu egin zuen:

—Waldmann! Zelarazi zaldia! —Gero— Sternbald! harrait gaztelura! —Eta desagertu egin zen. Hitz haiek aski izan zituen aurkitzen zeneko ondikoan desarmaturik geratzeko. Partzuer turingiar-jantziez mozorrotu zen; Sternbaldi garrantzi handiko arazo batek Wittenbergera joatera behartzen zuela esan zion; morroiрик хоherenen aurrean, Lützenen zegoen troparen gidaritza eman zion; eta Wittenbergera abiatu zen, hiru egunetara itzultzeko asmoarekin, bitartean erasorik izango ez zen segurtasunarekin.

Izen arrotz batekin hartu zuen ostatu, nondik gautu bezain laster longaina jantzi eta Tronkako harrapakinen artean hartutako pistola pare bati heldurik Luteroren etxera joan zen. Luterok, liburuz eta idatziz inguraturik bere idazmahaiian eserita zegoenak, gizaseme kanpotar berezi hark atea ireki eta ondoren atea ixten zuela ikustean, nor zen eta zer nahi zuen galdetu zion; eta gizasemeak, begirunez, kapela eskuan zuela, nahiz eta sortuko zuen ikararen jakitun, Michael Kohlhaas, zaldi-tratularia zela erantzun zue-
nean, Lutero larderiaka hasi zitzaion, mahaitik altxatu eta txilin baten bila abiatu-
rik:

—Alde egik hemendik! Hire hatsa pozoiz duk eta hire hurbiltasuna hondamen! —Kohlhaasek orduan, lekutik mugitu gabe, pistola atera eta esan zion:

—Agurgarri hori, txilina ukitzen baduzu, pistola honek bizirik gabe zerraldo utziko nau zure oinetan. Eseri eta entzuidazu; nire ondoan aingeruekin hain seguruago zaude, zeinen salmoak idazten dituzun.

Eta esertzen ari zen bitartean, Luterok galdetu zion:

—Zer nahi duk?

Kohlhaasek erantzun zion:

—Nitaz duzun gizon bidegabea naizelako iritzia ezeztatu! Zeure iragarkian esan didazu nire nagusiak ez dakiela ezer nire arazoaz; tira, salbokonduktua ematen badidazu, Dresdenera joan eta neuk azalduko diot.

—Gizon dohakabe eta ikaragarria! –oihu egin zuen Luterok hitz horiek entzutean nahasturik eta aldi berean lasaiturik—. Nork eman dik eskubide, Tronkako *Junkerrari* erasotzeko, heure kabuzko sententzia betez, eta nola bera ez huen gazteluan aurkitu, suz eta ezpataz bera gerizatzen zuen elkarte guztia abailtzeko?

Kohlhaasek erantzun zuen:

—Jaun agurgarri hori, inor ez, bedi! Dresdendik jasotako albiste batek engainatu nau! Giza elkartearen kontra burutzen ari naizen gerra hau zinez txarkeria bat izango da baldin eta, ziurtatzen didazunez, ni ez nautela bertatik zapuztu!

—Zapuztu! –oihu egin zion Luterok begiratur—. Baina zer eldarniok galarazi dik burua? Nork zapuztuko hinduen bizi haizen estatuko elkartetik? Bai, estatuak direnetik, noiz gertatu duk inor, normahi dela ere, hartatik zapuztua izaterik?

—Zapuztua! –erantzun zion Kohlhaasek eskua estutuz—, legearen babesu ukatzen zaion hari deitzen diot nik. Zeren babes horren beharra baitaukat neure negozioa bakean garatzeko; eta horregatik nik, lortu dudanaren zirkuluarekin, elkarte horretan bilatzen

dut abegia; eta ukatzen didanak basamortuko basatiengana bidaltzen nau; neure burua babesteko ezpata jartzen dit eskuan, eta ezin duzu hori uka!

—Nork ukatu dik legeen babesa? —oihu egin zuen Luterok—. Baina ez al diat idatzi, aurkeztu duan kexa ez duela ezagutzen aurkeztu dioan jaunak? Baldin eta estatuaren zerbitzariak bere bizkar prozesuak ezkututzen badizkiote edo iseka egiten badiote, berak jakin gabe, beste edozein erataria, bere izen sakratuaz, nork, Jainkoak izan ezik, eska ziezazkiokek kontuak halako zerbitzariak hautatu dituelako? Eta hi, gizon dohakabe eta ikaragarria, gaiturik al hago bera horregatik epaitzeko?

—Bedi —erantzun zuen Kohlhaasek—, Printzeak ez banau zapuzten, berak gerizatzen duen elkartera itzuliko naiz. Emadazu salbokonduktu bat, berriz eskatzen dizut, Dresdenara joateko; orduan utziko diot Lützengo gatzeluan bildu dudan tropa sakabanatzen, eta berriro aurkeztuko dut entzutegian esetsi didaten kereila. —Luterok aurpegi nahigabetuarekin mahaiaren gaineko paperak metatu zituen eta isilik geratu zen. Nekarazi egiten zuen gizon bitxi hark estatuaren baitan hartzen ari zen jarrerak; eta Kohlhaasenbrücken *Junkerraren* kontra emandako sententzia hausnartuz erantzun zuen:

—*Junkerra* zigortu legearen arabera, zaldia lehengo egoerara bihurtu, eta indarkeriaren ondorioz neuk eta Mühlbergen eroritako Herse zaldunak jсандako kalteen ordaina.

Luterok oihu egin zuen:

—Kalteen ordaina! Mendekua heure eskutik hartzean ezin ordainduzko zorrak judu eta kristauekin hartu dituanean ordainduko eta bahituratan. Heuk

ordainduko al huke kontuen araberako zenbatekoa, erreklamatu baliat?

—Jainkoak gorde nazala! —erantzun zuen Kohlhaasek—. Nik ez ditut ez neure etxea ez neure ondasunak erreklamatzeko, ezta neukan ongizatea ere, are gutxiago neure emazteari lurra ematearen gatastak! Herseren ama edadetuak egingo du bere semea sendatzearen gastuen kalkulua eta Tronka gazteluan galdutako guztiaren zerrenda; eta nik zaldiak ez saltzeagatik izan dudana kaltea, gobernuak aditu baten bitartez baliatzea dezala.

Luterok esan zuen:

—Gizon amorratua, ulertezina eta ikaragarria! —eta begiratu egin zion—. Hire ezpatak *Junkerraren* lepotik pentsa litekeen mendekurik herrazkoena hartu ondoren, zerk bultzatzen hau bere kontrako epaia emanaraztera, zeinaren zorrozatasuna, emango balitz behintzat, askozaz garrantzi gutxiagokoa izango litzatekeelarik?

Masailetan behera negar-malko batek irrist egin zion bitartean, Kohlhaasek erantzun zion:

—Jaun agurgarri hori! Neure emaztea ordaindu dut prezioz! —Kohlhaasek erakutsi nahi dio munduari emaztea ez zaiola liskar bidegabe batean hiltzen—. Makur zaitez honetan nire nahira eta utzi auzitegiari hitz egiten; gainerako guztian, denik eta eztabaidagarriena delarik ere, zuregana makurtuko naiz ni.

Luterok esan zuen:

—Hara, gauzak jendeak esaten dituen modura gertatu badira, bidezkoa duk eta auzia, heure eskutik mendekua hartu baino lehen, Printzearen aurrera heure kexa eraman izan bahu, zalantzarik ez diat, hire erreklamazioa puntuz puntu onartua izango zela. Baina ez al huen, dena kontutan harturik, hobeto joka-

tuko, heure Salbatzailearengatik, *Junkerrari* barkamena eman eta zaldia, zeuden bezala argal eta maskartuak, eskuan hartu eta Kohlhaasenbrückeko heure kortara eramán izan bahitu pentsua emanez gizentzeko?

Kohlhaasek erantzun zion:

—Baliteke! Baliteke, baina baliteke ez izatea ere! Jakin izan banu, neure emaztearen bihotzeko odola kostako zitzaidala haiek hanka gainean jartzea, baliteke zuk diozunez, jaun agurgarri hori, egin izana, eta ez nuen anega bat olo aurrezten jardungo. Baina hain garesti kosta izan zaidanez gero, doala dena bere bide-tik: sententzia mintzo bedi, dagokidanez eta *Junkerrak* gizen diezazkidala zaldia...

Luterok, bere paperetara pentsakor berri-ro zihuan bitartean, esan zion bere arazoa zela-eta, prest zegoela Printze Hauteslearekin tratuan hasteko. Lützenko gazteluan geldi segitzen zuen bitartean eta Printze Hautesleak salbokonduktua ematen bazion, ageriko iragarkien bitartez aditzera emango ziola.

—Hala eta guztiz ere -jarraitu zuen Kohlhaas eskuan muin egitera makurtzean-, ez zekiat Printze Hautesleak grazia eman nahiko duen; entzun dudanez, armada bat bildua dik eta Lützenko gazteluan hi harrapatzeko asmotan dituk; baina bitartean, dagoeneko esan diadanez, ez duk gertatuko ni ez ahalegintzeagatik. -Eta honenbestez zutitu eta irte-narazteko keinua egin zuen. Kohlhaasek esan zion puntu horretan bere bitartekaritzak erabat lasaitzen zuela; Luterok eskuaz agurtu zuen, hark ordea supituki belauna lurrean ezarri eta oraindik beste eskari bat zeukala esan zion. Mendekostez, Jaunaren mahaira joateko ohitura zuelarik, huts egin behar izan zuen elizara bere gerra-egitekoak zituela-eta, eta jakin nahi zuela ea bestelako gertamenik gabe aitortpena

entzungo zion eta trukean sakramentu santuaren ongitasuna emango zion. Luterok, pixka batean pentsatu ondoren, zorrotz begiratzuz esan zion:

—Bai, Kohlhaas, egin nahi diat! Baina Jaunak, zeinaren gorputza irrikatzen duan, barkatu egin ziean etsaiei. Hik ere nahi al duk —jarraitu zuen besteak txunditurik begiratzen zion bitartean— iraindu hauen *Junkerrari* barkatu, joan Tronkako gaztelura, eseri zaldietan eta gizentzera eraman Kohlhaasenbrückera?

—Agurgarri hori! —erantzun zion Kohlhaasek eskua eman eta gorritzen zen bitartean.

—Tira.

—Jaunak ere ez zien etsai guztiei barkatu. Eskaidazu barkatzeko Printze Hautesleari, neure bi jauni, alkaidea eta administrariari, Hinz eta Kunz jaunei, eta arazo honetan atsekabetu nauen edonori: baina *Junkerra*, ahal bada behintzat, behartu ezazu zaldiak gizenduta bihurtzera. —Hitz horien aurrean, Luterok begirada nahigabetuarekin eman zion bizkarra eta txilinari tira egin zion. Eta morroia, deia entzunik, argiarekin areto aurrean hurbiltzen ari zen bitartean, Kohlhaas lurretik zutitu zen durditurik eta begiak xukatuz; eta morroiak behin eta berriz alferrik ekin ziolarik atea irekitzen —atalaga ezarria baitzeukan— eta Lutero berriro bere paperen artean eseri zelarik, Kohlhaasek atea ireki zion gizonari. Luterok, ezezagunari zehar-begiratu bateginik, morroiari esan zion:

—Argitu bidea! —eta honek, barnean aurkitu zuen bisitak harriturik, hartu zuen hormatik etxeko giltza eta ate erdi irekiaren burura bihurtu zen, besteak noiz alde egingo zain. Kapelua esku artean oso urduri mugitzen zuen bitartean, esan zuen:

—Ezin al dut, orduan, jaun txit agurgarri hori, eskatu dizudan adiskidetzearen ongitasuna hartu?

Luterok labur erantzun zion:

—Salbatzailearekiko adiskidetzeari ez! Printzearekikoa, esan bezala, oraindik ahalegin bat falta duk egiteko! —Eta honenbestez keinu bat egin zion morroia-ri, bestelako luzamendurik gabe, eskatutako zeregina burutu zezan. Kohlhaasek, saminik bizienaren adierazpenaz, bi eskuak bularrean ezarri zituen; eskailera argitzen zion gizonari segi eta desagertu egin zen.

Hurrengo goizean Luterok idatzi bat bidali zion Saxoniako Printze Hautesleari, zeinean Hinz eta Kunz jaunen, Tronkako txanbelan eta kopariaren aipu garratz bat egin ondoren, izan ere mundu guztiak zekienez ezkutatu egin baitzioten kereila beren jaunari, eta Luterok hain berea zuen irekitasunez azaltzen zuen, inguruabar gogaikarri haietan, ez zegoela beste erremediorik zaldi-tratulariaren onartzea baino, eta gertatuarengatik amnistia ematea prozesua berritzeko. Iritzi publikoak, ohartarazten zuen, gizon haren alde jarrita zegoela era guztiz arriskutsuan, halako moldez, non jadanik hiru bider errausturiko Wittenbergen bertan ere erabat bere alde zeudela; eta bere proposamena baztertzen bazen, huts egiteke, berak asmatuko zuela, ohar higuingarrien artean, herriari jakinarazten, berau oso erraz eraman zezakeela pentsaraztera jadanik estatuaren administrazioarekin bere kontra ezin zitekeela ezer egin. Amaitzeko zioen aparteko kasu hartan uko egin behar zitzaiola armak hartu zituen hiritar batekin tratuan jartzearen erreparoiari; zeren eta egitez eman zitzaion tratuarengatik, nolabait esateko, estatu-elkartetik kanpo jarria izan baitzen; eta, labur esateko, estatusun hartatik irteteko areago jo beharko zela herrialdean sartutako indar kanpotartzat, horrela egokiago izanik atzerritartzat hartzea eta ez tronuaren aurka altxatutako erreboltaritzat.

Printze Hautesleak gutun hau hartzean Christiern von Meissen printzea, jeneralisimo inperiala eta Friedrich von Meissen, Mühlbergen azpiratua eta zaurietatik oraindik suspertzen ari zenaren osaba; justizia tribunaleko kantziler handia, Wrede kondea; Kallheim kondea, Estatu-kantzilergoaren burua; eta Tronkako bi jaunak, Hinz eta Kunz, txanbelana hau eta koparia hura, jaunaren gaztaroko adiskideak eta baliatuak oraindik jauregian zirauten. Kunz txanbelana, zeinak aholkulari pribatu zen aldetik eta haren izena eta armarriaz baliatzeko baimena zuenak, aurrena hitza hartu eta xeheki azaldu zuelarik berak bere kabuz inoiz ez zukeela bere egunean zaldi-tratulariak lehengusuaren kontra aurkezturiko kereila ezeztatu-ko, baldin eta, okerreko informazioz atzipeturik, liskar hutsal eta bidegabetzat eduki izan ez balu, eta hala etorri zirela gauzak une hartako egoerara. Ohartarazi zuen, ez Jainkoaren eta ez gizonen legeek ez zioten zaldi-tratulariari eskubiderik ematen, errakuntza baten aurrean, hain ikaragarrian mendekua bere eskutik hartzeko hartu zuen bezala; deskribatu zuen nolako ospea erakarri zuen, berarekin eskubide osoko indar bezala tratuan sartuz gero, bere buru madarikatua gainera. Eta Printze Hauteslearen pertsona zipriztin zezakeen laidoari hain jasanezina zeritzon, non berak, erretolikaren suharrean, ziurtatu zuen nahiago zuela gauzak muturreraino eramatea eta errebolatu amorratuaren sententzia buruturik eta *Junkerra*, bere lehengusua, zaldia gizentzeko Kohlhaasenbrückera lekuz aldatua ikusi baino, Lutero doktorearen proposamenak iradokitzen zuenaren arabera. Tribunaleko kantziler handiak, Wrede kondeak, beragana erdi-itzulirik aditzera eman zuen sentitzen zuela orain, auzi dohakabe hura konpondu behar zen unean, bere nagusiaren oho-

rearekiko ageri zuen ardura fina, izan zuen lehen aukeran ere ez erabili izana. Azaldu zion Printze Hautesleari nabarmen bidegabea zen neurri bat ezartzean Estatu-ahalmenera jotzea ez zela komeni bere ustez; ohartarazi zuen ikusmen nabarmenez zaldi-tratulariak gero eta harrera hobea zeukala herrialdean, eta horrela bilaukerien katea amaigabe iruten segitzeko arriskua zegoela, eta justizia egitea soilik zela hura eten eta gobernua arazo itsusi hartatik libratzeko era, segituan eta begiramendurik gabe egindako makurraren zorra kitatzeko. Christiern von Meissen printzeari jaunak galdetzean zer iritzitakoa zen, honek adeitasunez kantzilerrari hitz eginez, bere iritzitari errespeturik handiena ziola azaldu zion, baina Kohlhaasi bere eskubidean lagundu nahi zion bitartean, ez zuela uste Wittenberg eta Leipzig, eta Kohlhaasek tratu txarra emandako herrialde osoa kalte-ordaina, edo gutxienez zigorra, eskatzeko zituzten bidezko nahikizunetan kontutan hartzen zirenik. Estatuaren ordenua, gizon harekiko hain itxulastua zegoela, non nekez berriro onera ekar zitekeen zuzenbide-zientziatik ateratako oinarri batekin. Horregatik, txanbelanaren iritzi berekoa izaki, kasu haietarako ezarrita zegoen bitartekoa jarri behar zela jokoan: tamaina egokiko armada bat eratu eta Lützingo gotorlekuan kokatu zen zaldi-tratularia atzeman edo zanpatu. Txanbelanak, berarentzat eta Printze Hauteslearentzat hormatik aulkiak hartzen zituen bitartean eta kortesiaz aretoaren erdian ezartzen zituen bitartean, esan zion poztu egiten zela bera zen bezalako jatortasun eta zentzuzko gizona bat etortzeaz berekin arazo bikoitz hari azkena emateko bitartekoari zegokionean. Meissengo printzeak eskuan eutsi zion aulkiari eseri gabe eta berarengana zuzendurik esan zion ez zeukala ziorik pozteko zeren hari lotu-

riko neurri gisa atxilotze-agindua eta jaunaren izena era txarrean erabili izanagatik auzitaratze-agindua eman beharko zelako. Zeren nahiz eta premiak eskatzen zuen justizi tronuaren aurrean bilaukeria sail baten gainean estalkia jartzea, zeinen ugaltze aurreikusezinak ez baitzuen utziko auzitegian aurkezten, ez baitzuen balio horrek sailaren lehena izan zenerako, guztien eragile izan zenarentzat; eta bera auziperatzen bazuen bakarrik berreskuratuko zuen Estatuak zaldi-tratularia zanpatzeko aginpidea azken ondorioetaraino, zeinaren kausa nabarmen baitzen bidezkoa eta zeinari zerabilen ezpata eskuetan jarri baitzioten. Printze Hautesleak bira eman zuen aurpegia gorri-gorri zuela eta leihorantz zuzendu zen, *Junkerrak* hunkiturik begiratu zion hitz hauek esan zituen bitartean. Kallheim kondeak, alde guztiek egin zuten isilune trabakorraren ondoren, esan zuen era hartara ez zirela inoiz harrapaturik zeudeneko sorgin-gurpiletik aterako. Eskubide berdinarekin auzipera zitekeela bere iloba, Friedrich printzea; zeren Kohlhaasen kontra buruturiko kanpaina apartekoan, eman zitzaion agindu bat baino gehiago hautsi baitzuen: beraz, aurkitzen zireneko estutasunerako aukera eman zuten guztien multzo ugariak galde eginez gero, bera ere aipatu egin beharko baitzen, eta nagusiak Mühlbergen gertatutakoaz kontuak errendatzera deitu beharko zuen. Printze Hauteslea begi zalantzakorrez bere mahaira zihoan bitartean, Hinz von Tronka, kopariak hartu zuen hitza eta esan zuen ez zuela ulertzen nola ihes egin zekiekeen halako jakituria zuten gizonei, kasu hartan hartu beharreko Estatu-erabakiak. Berak zekieenez, zaldi-tratulariak Dresdenerako salbokonduktua eta bere kausa berrikuste hutsaren truk lurraldeari oldartu zitzaioneko tropa desegitea agindu zuela. Baina

hortik ez zela atera behar, jarraitu zuen, bere mende-ku doilorrarengatik amnistia eman behar zitzaionik: bi kontzeptu juridiko hauek, antza zenez, Lutero dokto-reak eta Estatu-Kontseilariak nahastu egiten zituzten.

—Dresdengo entzutegian zaldiei buruzko sententzia eman ondoren, nolana hiko delarik ere —jarraitu zuen hatza sudurrean ezarriz— ezerk ez du Kohlhaas kartzelatzea eragozten bere lapurreta eta su-emateengatik: estatu-zuhurtziazko birada bat, bi Estatu-gizonen iritzien alde onak biltzen dituena, eta munduaren eta ondorengo onarpena ziurtaturik daukana.

Meissengo printzeak eta kantzilerrak begirada soilz kopariaren arrazoiei erantzun eta bilerak amaie-rara iritsia zela zirudienez gero, Printze Hautesleak esan zuen bere baitan hausnartuko zituela azaldutako iri-tziak Estatu-Kontseiluaren hurrengo bilerara bitartean. Bazirudien Printzeak proposaturiko atalase-neurriak kendu egin ziola adiskidetasunarekiko hain sentibera zuen bihotzetik erabat prestaturik zegoen Kohlhaa-sen kontrako kanpaina egiteko gogoia. Halere kantziler handia, Wrede kondea, berekin egonarazi zuen, zeinaren iritzia egokientzat jo baitzuen; eta nola honek gutun batzuetatik erakutsi zion zaldi-tratulariaren indarrak jadanik lauhun gizonetik gorakoak zirela, eta, txanbelanaren larkeriak zirela-eta, herrialdean nagusi zen ondoezarengatik epe laburrean bi edo hiru aldiz ugariago izango zirela, Printze Hautesleak luza-mendurik gabe Lutero doktoreak emandako aholkua onartzea erabaki zuen. Ondorioz Wrede kondeari pasa zion Kohlhaasen auziaren zuzendaritza osoa; eta han-dik egun batzuetara iragarki bat agertu zen, funtsean honako hau zioena:

Gu etab. etab., Saxoniako Printze Hautesle honek Martin

Lutero doktoreak gure aurrean egindako bitartekaritzaren begiramendu bereziki graziazkoan, salbokonduktua ematen diogu Michael Kohlhaas Brandenburgeko zaldi-tratulariari Dresdenera joan dadin bere kausa berrikustera, baldin eta honako hau ikusita hiru egunen barruan daramatzen armak uzten baditu; baina era berean Dresdengo epaitegiak bere zaldia direla eta egiten duen kereila, usteaz bestetara, atzera botatzen badu, bere kontra ekingo litzaioke legearen zorrotasun guztiaz, mendekua bere eskuz hartu duelako; alderantzizko kasuan grazia emango litzaioke berari eta bere talde guztiari, baita amnistia osoa ere Saxonian burututako bortxa-egintza guztiengatik ere.

Kohlhaasek, Lutero doktorearen bitartez, herrialdeko plaza guztietan ezarritako iragarki honen kopia bat hartu bezain laster, bertan adierazitako baldintza guztiak bete eta opari, eskergintza eta ohar praktikoaren artean luzamendurik gabe sakabanatu zuen bere tropa osoa. Lützingo epaitegietan laga zuen, Printze Hauteslearen jabego gisa, harrapakin gisa bildutakoa, dirua, armak edo lanabesak zirela; eta Waldmann Kohlhaasenbrückera itzularazi ondoren, ahal izanez gero, bere etxaldea eskribauari erosteko mandatua-ekin, eta Sternbald Schwerinera bere seme-alaben bila, zeinak berriro bere ondoan eduki nahi baitzituen, Lützingo gaztelua utzi eta Dresdenerako bideari heldu zion ezkutuan, bere ondasun urrien hondarrak, paper gisara, aldean zituela. Eguna urratzen ari zuen eta hiri osoa oraindik lotan zegoen, harresiaz kanpo Pirnako auzunean dagoen landetxeko ate txikian deitu zuenean, zeina bere esku geratu baitzitzaion, eskribauaren jatortasunari esker eta Thomasi, harriturik eta durditurik atea ireki zion ethezain zaharrari, eskatu zion joan zedila *Gubernium*-era Meissengo printzeari Kohlhaas, zaldi tratularia, han zegoela aditzera ematera. Meissengo printzeak egokitzen jo zuen gizon hura

inguratzen zuten inguruabarrak pertsonalki jakitea eta aitoren seme eta zaldizko-eskolta batekin segituan bertara joan zen, Kohlhaasen etxerako kaleetan ezin neurtuzko jendetza aurkitu zuen. Herriaren zapal-tzaileak suz eta ezpataz pertsegitzen zituen aingeru suntsitzailea bertan zegoelakoak zutik jarri zuen Dresden guztia, harresiez barrutik eta kanpotik; morroilotu egin behar izan zen atea jakin-mina zuen jendetza pilatzen zelako, mutikoak leihotara igotzen ziren bitartean gosaltzen ari zen su-emaileari begi emateko. Printzeak, leku egiten zion guardiaren laguntzarekin, etxera iritsi eta Kohlhaas zegoen gelan sartu zenean galdetu zion ea Kohlhaas zaldi-tratularia ote zen. Kohlhaas zutik eta erdi-jantzirik zegoen, mahaiaren ondoan. Kohlhaasek bere nortasuna kreditatzen zuten zenbait paper gerrikotik atera zituen eta begirunez luzatuz baietz esan zion, eta gehitu zuen bere tropa desegin ondoren eta Printze Hautesleak emandako askatasunaren arabera Dresdenen aurkitzen zela, zaldiak zirela medio, Wenzel von Tronka *Junkerraren* kontra zeukan kereila epaitegian aurkezteko. Printzeak, begirada labur batez burutik oinetaraino miatu ondoren, Kohlhaasek karteran zeuzkan paperei gainikusi bat eman zien; eskatu zion azaltzeko zer esan nahi zuen beraien artean ageri zen Lützensgo epaitegiek luzatu eta Printze Hauteslearen altxortegiaren alde gordailua egin izanari buruzko erreziiboak; eta mota desberdineko gauzen, seme-alaben, ondasunen eta aurrerantzean egin nahi zuen bizimoduaren berri galdetuz gizonaren izaera frogatu ondoren, eta bere aldetik lasai egon zitezkeela konturaturik, itzuli paperak eta ezer ez zegoela bere prozesuaren kontra eta segituan Wrede kondea, justizi tribunaleko kantziler handiarengana jo zezala izapideak abiarazteko.

—Bitartean —esan zuen Printzeak isilune baten ondoren, leihora hurbildu eta begiak zabal-zabal zituela etxearen aurrean bildutako jendetza begiestean— lehen egunetan guardia bat hartu beharko duk heure etxean eta hartatik irtetean babestuko hauena... —Kohlhaas hunkiturik behera begiratu eta isilik geratu zen. Printzeak esan zion— Heuk nahi duana! —Printzea leihotik aldendu zen—. Hortik sortzen dena, erabat heure kontu geratuko duk —horrenbestez atera itzuli zen etxetik irteteko asmoarekin. Kohlhaasek bere onera etorri eta esan zion:

—Jaun agurgarri hori, nahi duena egin beza! Baina eman biezat hitza nik nahi izan bezain laster kenduko zaidala guardia eta horrela ez dut ezer izango neurri horren kontra. —Printzeak esan zuen ez zegoela hitz egin beharrik eta helburu horretarako aurkeztu zitzaizkion hiru lanskeneteei geratzen zireneko etxeko jauna libre zegoela, eta irteten zenean bera babesteko bakarrik zeudela, eskua beheratuz zaldi-tratulariari agur esan eta alde egin zuen.

Eguerdi aldera, hiru lanskeneteek lagundurik eta begiz ezin atzemaneko jendetzaren segizioarekin, zeinak poliziak ohartarazirik ez baitzion inolako kalterik egin, Kohlhaas justizi epaitegiko kantziler handiarengana, Wrede kondearengana aurkeztu zen. Kantziler handiak, aurre-ganbaran adetasun eta adiskidetasunez abegia egin zionak, bi ordu osoz berarekin hizketan aritu zen eta, kasuaren gorabehera guztiak kontatzera gonbidaturik, epaitegiari zegokion hiriko abokatu ospetsu batengana bidali zuen, berehalakoan kereila idatzi eta aurkez zezaten. Kohlhaas, gehiagoko luzamendurik gabe, beronen etxean agertu zen; eta kereila hasieran alde batera utzitakoaren gisa berera idatzi ondoren *Junkerrari* legeen araberako zigo-

rra, zaldia hasierako egoerara bihurtzea eta berak eta Mühlbergen eroritako Herse bere morroiak pairatutako kalteen ordaina kitatzea, nahiz eta kasu honetan haren amaren onetan izan, etxera itzuli zen, oraindik jendetza begiluzea lagun zuela, lehen ez bezala deliberaturik bertatik ez irtetera, baldin eta zeregin premiazkoek horretara behartzen ez bazuten.

Bitartean *Junkerra* ere atera zuten Wittenbergeko bere espetxetik, eta oina handitu zion isipula arriskutsu bat sendatu ondoren, ezinbestez behartu zuen lurraldeko epaitegiak Dresdenen aurkeztera legez kontrako atxikipenagatik eta zaldia hondatzeagatik tratulariak ezarritako kereilari erantzuteko. Von Tronkako txanbelana eta koparia anaiak ziren eta *Junkerraren* lehengusu oinordekideak haien etxean aurkitu zuen babesa, garrazkeriarik eta mespretxurik handienarekin hartu zuten; bere laidoez familia osoa gurintzen zuen dohakabe eta doilortzat jo zuten; ohartarazi zioten hutsik egin gabe galduko zuela auzia; eta behin eta berriz esan zioten zaldia ekar diezazkiotela, mundu guztiaren irribiderako beraiek gizentzera kondenatuko zutela-eta. Ahots ahul eta dardaratiz erantzun zien berak munduko gizonik lastimagarriena zela. Zin egin zuen arazo madarikatu hark guztiak hondamenera ekarri zuela berak ia ezertxo ere jakin gabe, eta alkaidea eta administraria zirela guztiaren errudun bakarrak, berak inondik inora jakin gabe eta baimenik eman gabe, zaldia uzta biltzen erabili zituztelako, eta gehiegizko ahaleginetan, baita beren soroetan ere, hondatzera ekarri zituztelako. Hau esaten ari zen bitartean eseri egin zen eta arren eskatu zien irain eta umiliazioekin ez zezatela gaitzera itzularaz, ozta-ozta irteten ari zela. Biharamunean, Hinz eta Kunz jaunek, zeinak etxaldeen jabe baitziren

Trokenberg erraustuan, *Junkerra* beren lehengusuaren aginduz, –ez baitzuen beste irtenbiderik–, bertan aurkitzen ziren etxagun eta maizterrei idatzi zien egun zorigabe hartan errebelatu eta desagertutako zaldiez berriak biltzeko. Baina lekua erabat murrizturik eta bertako biztanle gehienak sarraskiturik zeudelarik, aterra ahal izan zuten gauza bakarra izan zen gau hartan morroi batek, su-emailearen ezpata-zapladen aurrean, zeudeneko aterpe sututik salbatu zituela, eta nora eraman behar zituen eta beraiekin zer egin behar zuen galdetu zuenean, sumindu ikaragarriarengandik ostiko bat hartu zuela erantzuntzat. Kota zeukan etxeoandre zaharrak, gero Meissenen *Junkerra* babesturik edukitakoak erantzuten zuen honek idatziz galdetzean. Gau lazgarriaren biharamun goizean morroi hark Brandenburgeko mugara jo zuela zaldiekin; baina bertan egindako ikerketa guztiak alferrik izan ziren, eta bazirudien dena errakuntza besterik ez zela izan, zeren *Junkerrak* ez baitzuen jatorriz Brandenburgekoa zen morroirik, ezta alderdi hartakorik ere. Dresdengo batzuek, Tronkako sutearen ondoren zenbait egunetara Wilsdrufen izan zirenek aitortu zuten aipaturiko aldi hartan morroi bat iritsi zela hara bi zaldi kabestrutik zituela eta abereak erabat unaturik zeudelako eta aurrera joateko gai ez zirelako toki hartako artzain baten ukuiluan utzi zituela, zeina berriro haiek sendotzen ahalegindu zen. Arrazoi desberdinengatik bazirudien haiexek zirela bila zebiltzaneko zaldia; baina Wilsdrufeko artzainak, handik etorritako beste batzuek ziurtatu zuten, berriro saldu egin zituen, baina ez zekiten nori; eta hirugarren zurrumurru batek, zeinaren jatorria ezin izan baitzen zehaztu, zioen zaldienak jadanik egin zuela eta Wilsdrufeko hezur-hobian zeudela lurperatuak. Hinz eta Kunz jaunek, zeinentzat

gauzen joaira hau baitzen hoberena, aisa ulertzekoa denez, zeren eta beren lehengusu *Junkerrak* bere korta propiorik ez izatean, berenetan zaldia gizendu behar izatetik libre geratuko baitziren, erabat bermatu nahi zuten, ziurtasuna izateko, inguruabar hau. Wenzel von Tronka jaunak, beraz, idatzi bat igorri zuen Wilsdrufeko epaitegira, maiorazkoa, ugazaba eta eskueradun jauna zen aldetik, zeinean zaldien deskribapen xehe baten ondoren, –hauek, berak zioenez, bere ardura-pean utziak izaki, ezbehar batez alendu baitziren–, eskatzen zuen ahalik eta prestutasun handienaz iker zedila non aurkitzen ziren eta beraien jabea gomendatua eta behartua izan zedila, normahi zelarik ere, kostu guztien ordainsari oparoaren truke, haiek Dresdenera, Kunz jauna jauregiko txanbelanaren kortara bidaltzea. Eskatuaren arabera egiazki handik egun gutxitara agertu zen gizona, zeinari Wilsdrufeko artzainak saldu zizkion, eta idor eta balantzari, orgaren taketa bati loturik, hiriko merkaturaino gidatu zituen; baina Wenzel jaunaren, eta areago oraindik Kohlhaas zuzenaren zorigaitzerako halabeharrak Dábbelngo larrutzailea izatea nahi izan zuen.

Wenzel jaunak, bere lehengusu txanbelanarekin zegoenak, entzun zuenean zurrumurrua Tronkako gazteluaren sutetik ihes egindako bi zaldi beltzekin gizon bat sartu zela hirian, biak jauregiko plazan agertu ziren, arrapaladan bildu ahal izan zituzten morroiak lagun harturik, kostuak ordaintzearen truke beraietaz jabetzeko, Kohlhaasenak baldin baziren behintzat, eta berekin eramateko. Baina halako aztoramena izan zuten zaldunek, hurbildu ahala, jendetza hazten ari zela ikustean, zeina bi gurpleko organ loturiko bi zaldien ikuskizunak erakarria, atergabe txantxetan ari baitzen nola Estatua kolokan jarri zituzten zaldia jadanik la-

rrutzailearengana iritsi ziren! *Junkerrak* bira bat eman zuen bi abere gaixoak ikusteko. Zaldia une batetik bestera hiltzera zihoazela zirudien, *Junkerrak* esan zuen hunkiturik haiek ez zirela berak Kohlhaasengandik hartutako zaldia baina Kunz jaun txanbelanak, amorrutuzko begirada bat jaurti zuten, zeinak burdinazkoa izatera zintzilikatuko baitzukeen, atzera bota zuen kapa, dominak eta katea agerian utziz, joan zen larrutzailearenganaino eta galdetu zion ea haiek ziren Wilsdrufeko artzainak eskuratu zituen zaldia, eta Wenzel von Tronka *Junkerrak*, bere jaunak, epaitegi-bidez erreklamatu zituenak. Larrutzailea, esku batean ontzi bat ur zuela. Lanpeturik zegoen orgatik tira egiten zion bere zamari gizen eta gorputz oneko bat eradaten eta esan zuen:

—Beltzak? —Gero ontzia lurrean utzi, atera zion samariar hortzeria ezpainetatik eta argitu zuen— take-tari lotuta neramatzan zaldia Hainichengo urdainak saldu zizkidan; nondik atera zituen hark, eta Wilsdrufeko artzainarengandik pasatu ote ziren, nik ezin dut hori jakin; niri —esan zuen, berriro ontzia hartu eta orgaren pertika eta belaunaren artera arrimatuz— Wilsdrufeko auzi-mezulariak esan dit Dresdenera eraman behar nituela, tronkatarren etxera; baina bidali zuten *Junkerrak* Kunz zuela izena. —Hau esanik bira eman zuen zamariak suilean utzitako uraren gainerakoarekin eta kaleko tronaduran isuri zuen. Txanbelanak, jendetza-ren txantxazko begiradaz inguraturik, ez zuen lortzen bere lana suhartasun soraioz burutzen ari zen tipoa berari begiratzen mugitzerik eta esan zion bera zela Kunz von Tronka aitoren-semea; baina ekarri behar zizkion zaldi mairuek lehengusuaren jabego izan behar zutela, zeinak suteaz baliatuz gaztelutik ihes egin zuen morroi baten bitartez Wilsdrufeko artzainaren eskuetara

iritsi ziren, eta jatorriz Kohlhaas tratulariarenak zirela bi zaldiak! Galdetu zion zangoak zabaldu eta galtzak tinkatzen ari zen tipoari, ea ez al zuen ezer entzun arazo hartaz. Eta ea Hainichengo urdainak ez ote zizkion agian erosi, zeren dena inguruabar horren baitan baitzegoen, Wilsdrufeko artzainari, edo hirugarren bati, zeinak bere aldetik artzainari erosi zizkion. Larrutzai-leak, piza egiteko orgara hurbildu zenak esan zion:

—Niri esan didate Dresdenera etortzeko zaldi mairuekin, Tronkatarren artean balio zuten diruaren bila. Erretolika hartaz guztiaz nik ez dut tutik ulertzen; eta Hainichengo urdainarenak izan baziren, honek, harenak edo Wilsdrufeko artzainarenak, piperrik ez zait axola, lapurtuak ez baldin badira behintzat. —Hori esanik, bizkar zabalena gainean zartailua gurutzatuz, plazan zegoen taberna batera abiatu zen, gose zelarik, mokadu bat hartzeko asmoarekin. Txanbelanak ez zekien zer arraio egin Hainichengo urdainak Döbbelngo larrutzaileari saldutako zaldi batzuekin, zeinak deabruak Saxonia guztian zehar trostan erabilitakoak ez baziren behintzat, zerbait esan zezala eskatu zion lehengusuari. Baina honek ezpain zurbil eta dardartiez esan ziolarik egokiena erostea izango zela, Kohlhaase-nak izan ala ez izan, aitonsemeak kapa bizkarrera bota zuen, mundura ekarri zuten aita eta ama madarikatuz, eta jende-multzoaren artetik irten zen, zer egin behar zuen inola ere ez zekiela. Deitu zion Wekeko baroia-ri, zaldiz kaletik orduantxe igaro zen ezagunari eta nahiz eta jendailak isekaz begiratzen zion eta ahoa zapipean estutuz, noiz aldenduko zen itxaroten zegoen barre-algaraka ekiteko, eskatu zion Wrede kondeari, kantziler handiaren aurrean erregu egin zezala, eta bere bitartekaritzaz Kohlhaas zaldiak aztertzeraz etor-rraraz zezala. Halabeharrak nahi izan zuen, Kohlhaas

bera, auzi-geznari batek deiturik, Kantziler handiaren etxean suertatzea. Lützeno gordailuaz eskatzen zitzaizkion argitasun batzuk zirela-eta, eta une hartan baroia gelan sartu zen aipaturiko asmoarekin; eta Kantziler handiak, aurpegia atsekabetuarekin besaulkitik zutitu eta ezezaguna zuen zaldi-tratulariari aditzera eman zion, alde batean itxaroteko eskuan zituen paperekin, eta bitartean baroiak Tronkako jaunak nolako estutasunean aurkitzen ziren kontatzeko abagunea izan zuen. Döbbelngo larrutzaileak, Wilsdrufeko epaitegiaren errequisitoria eskas bat zela medio, zaldi batzuekin aurkeztu zela, zeinen egoera hain tamalgarria zen, Wenzel *Junkerra* zalantza-malantzatan zegoela Kohlhaasen zalditzat hartu ala ez hartu; halako moldez, non larrutzaileari hartu behar bazitzaizkion erabaki ahal izateko, eta horrela beren kortetan susperetzeko, aurrena Kohlhaasen beraren begizko miaketa bat beharko zela, aipaturiko inguruabarra zalantzarik gabe uzteko.

—Izan ezazu ontasuna —esan zuen amaitzeko— guardia bat zaldi-tratulariaren bila bidaltzeko eta merkatura, zaldiak dauden tokira eraman dezala. —Kantziler handiak, sudurretik betaurrekoak kentzen ari zen bitartean, esan zion errakuntza bikun batean zegoela: lehenik, ea uste al zuen Kohlhaasek egin zezakeen begizko miaketa soilaz inguruabar hura bakarrik argi zitekeela, eta gero ea iruditzen al zitzaion berak, kantzilerrak, bazuela baimena Kohlhaas guardia batekin *Junkerrak* nahi zuen tokira eramanarazteko. Ondoren, zaldi-tratularia aurkeztu zion, bere atzean zutik baitzeukan, eta berriro eseri eta betaurrekoak janzen zituen bitartean, erregutu zion gai hartan beragana jotzeko.

Kohlhaasek, bere ariman gertatzen zitzaionik inolako keinuz aditzera eman ez zuenak, merkatura segitzeko prest zegoela besterik ez zuen esan, larrutzai-leak hirira ekarritako zaldi mairuak aztertzerara. Bitartean baroiak, txunditurik beragana bira eman eta kantziler handiaren mahaira jo zuen, eta karteran zeramatzan paperetatik, Lützenko gordailuari buruzko zenbait berri eman ondoren, agur esan zion; aurpegia erabat gorriturik zuela leihora hurbildu zen baroiak ere agur esan zion kantziler handiari; eta Meissengo Printzeak hornituriko hiru lanskeneteek lagundurik eta jendetza izugarrizko segizioarekin, biek jauregiko plazara jo zuten. Kunz jaun txanbelanak bitartean, inguratu zitzaizkion adiskide askoren proposamenak gorabehera, Döbbelngo larrutzailearen aurrean bere jarrerari eustea lortu zuenak, baroia zaldi-tratulariarekin batera azaldu bezain laster, azkeneko honengana jo zuen eta harrotasun eta itzalez ezpata galtzarbean zeukan bitartean, orgaren atzealdean zeuden zaldiak bereak zituen galdetu zion. Zaldi-tratulariak, eskua kapelara eramane eta gero galdera egin zion jaunari zuzenduriko keinu lauso batekin, zeina ez baitzuen ezagutzen, gainerako hitzik esan gabe eta zaldun guztiak lagun zituela larrutzailearen orgara hurbildu zen; eta begiratu arin bat egin ondoren abereengandik dozena bat urratseko tartera geratu zen. Abereak ozta-ozta zeuden zutik, hankak balantzaka eta buruak makur zituzten, larrutzaileak aurrean jarritako belar ondua jateke:

—Jainko maitea! —zuzendu zen berriro txanbelanarengana—, larrutzaileak arrazoia osoa du; organ loturik daramatzen zaldiak nireak dira! —Eta honenbestez, inguruko jaunen zirkulu osoari begiratu, berriro eskua kapelara eramane eta guardia lagun zuela, berriro plazatik irten zen. Hura entzutean txanbelanak aurre-

ra egin zuen, kasko-galdorra astintzen zuen urrats arinak ematen zituen bitartean, larrutzailearenganaino eta poltsakada dirua bota zion; eta bitartean honek, poltsa eskuan zuela, berunezko orrazi batez bekokiko ilea behin eta berriz orrazten ari zela eta diruari begiratzten ziola, zaldiak askatu eta etxera gidatzeko agindu zion morroi bati. Morroiak jaunaren deia entzutean, jendartean zeuden adiskide eta ahaide-talde batetik apartatu zen, abereengana hurbildu zen, aurpegi gorritu samartua zuela eta haien hanketan pilaturik zegoen simaur-putzu bat zapalduz; baina kaprestuak askatzeko hartu bezain laster, Himboldt maisuak, lehengusuak heldu zion besotik eta tirakada batez:

—Ez diek ukiturik ere egingo larrutzeko zamalko horiei! —esanez aldendu zuen orgatik. Gero urrats zalantzakorrez igaro zen simaur-putzuaren gainetik eta txanbelanarengana joan zen, zeina gertatuaren aurrean hitzik gabe geratu baitzen, eta gehitu zuen— Eginbehar horretarako larrutzaile-morroi bat bila dezala! —Txanbelanak, amorruez gorriturik, bekoz beko begiratu zion une batez maisuari, bira eman eta inguruan zeuzkan zaldunen buruen gainetik, guardia eskatu zuen; jauregitik irten bezain laster, Enke baroiak eskaturik, ofizial batek zenbait infante lagun zituela, Kunz jaunak jende xehea egiten ari zen irainaren jakitun jarri zuen berehala eta Himboldt maisua, buruxkila, atxiloturik eramatera behartu zuen. Papparretik heltzen zion eta, orgako zaldiak askatzen ari zen bitartean bere morrietako bati astinduak eta tratu txarra eman izanaz salatu zuen. Maisuak, bultzada bat eman eta txanbelanarengandik libratu ahal izan zuenean esan zuen:

—Jaun prestua, hogeituroko morrosko bati zer egin behar duen aditzera ematea ez da egurtzea! Galdeiozu bestela bere etorki eta izen onaren kontra organi

loturik dauden zaldiez arduratu nahi duen; nik esandakoaren ondoren, egin nahi badu, egin dezala. Nigatik oraintxe bertan has daiteke abereak zatikatzen eta larrutzen! –Hitz hauek entzutean, txanbelana morroiarengana zuzendu zen eta emandako agindua betetzeko eragozpenik ba al zuen galdetu zion eta Kohlhaasen zaldiak askatu eta etxera gidatzeko; eta hark jendartean kuzkurturik nahastu eta erantzun zionean aurrena zaldiak itxuran jarri beharko zirela halakorik egiteko gai izan baino lehen, txanbelanak atzetik joan, etxearen ikurraz hornituriko burutakoa kendu, biluztu ezpata, burutakoa oinperatzen zuen bitartean, eta ezpatakada suminkorrez jaurtiki zuen istant batean plazatik eta bere zerbitzutik. Maisu Himboldtek oihu egin zuen:

—Lurrera amorratu hau! –eta jendea liskarrak erreboltaturik, elkarrengana bildu eta guardiari atzera eragiten hasi zen bitartean, maisua atzealdetik oldartu eta lurrera bota zuen; kendu zizkion kapa, gola eta kaskoa, soltarazi zion ezpata eskutik eta, suminaldi batean plazatik kanpora bota zuen. Alferrik eskatzen zuen, zarramaltzatik irteten ari zen bitartean Wenzel *Junkerrak* zaldunei lehengusuari laguntzeko; pauso bakar bat eman baino lehen jendetzak sakabanatu egin zituen, halako moldez, non txanbelana, erorikoan buruan min hartu zuelarik, erabat jendetzaren amorrusoaren pean geratu zen. Zaldizko lanskeneteen tro-pa bat agertzeak, halabeharrez plazan barrena zihoan eta infante hautesleen ofizialeak presaz deitu zuenak salbatu ahal izan zuen bakarrik txanbelana. Ofizialeak, jendetza uxatu ondoren, atzeman zuen maisu sumindua, eta zaldizko batzuek kartzelara zeramaten bitartean, bi adiskidek zorigaitzeko txanbelan odoldua lurretik jaso eta etxera gidatu zuten. Halako amaiera

dohakabea izan zuen zaldi-tratulariari bere kontrako desarauarengatik kalte-ordaina emateko ahalegin jator eta onginahizkoak. Jendetza barreiatu bezain laster, Döbbelngo larrutzaileak, bere negozioa jadanik itxita zeukan eta ez zuen bertan luzarago denbora emateko gogorik, farol bati lotu zizkion zaldiak, non alprojatxo eta arloteen isekarako egun osoa eman zuten, inor beraietaz arduratu gabe; halako moldez, non edonolako arreta eta zainketaren gabeziak, poliziak bere gain hartu behar izan zituen, eta gautu zuelarik Dresdengo larrutzaileari dei egin zitzaion ordena berririk jaso arte hiriko larru-tokian zain zitzan.

Gertakari honek, nahiz eta zaldi-tratulariak inondik ere sortua ez izan, oso aldarte arriskutsua sortarazi zuen herrialdean, baita zentzuzkoen eta neurritsuenen artean ere. Bere auziaren konponbiderako. Ezin jasanezkotzat jo zitzaion estatuarekiko izan zuen harremana, eta etxe pribatu eta plazetan mamituz joan zen ageriko bidegabea bere kontra egitea hobe zelako iritzia, berriro arazo guztia baztertuz, bere seta itsuaren asegarritzat halako huskeria batean azken finean bortxaz lortutako justizia bat eman ordez. Kohlhaas gizarajoaren zorigaitzerako, kantziler handiak berak lagundu zuen, Von Tronka familiari zion gehiegizko zuzentasunaz eta ondoriozko aiherraz, aldarte hura berresten eta hedatzen. Ia ezinezkoa zen orain Dresdengo larrutzailearen ardurapean zeuden zaldiak berriro Kohlhaasenbrückeke kortatik irten zireneko egoerara itzuli ahal izatea; baina trebezia eta artarekin ahal izan balitz ere, aldiko inguruabarrengatik *Junke* rren familiaren gainera ereriko zen lotsaizuna hain zen handia, non herrialdeko lehen eta nobleenetakoa zen heinean hiritarren artean zeukan pisuarengatik, bazirudien ez zegoela ezer eroso eta egokiagorik zal-

diengatik kalte-ordaina dirutan ordaintzea baino. Hala eta guztiz ere, presidentea zen Kallheim kondeak, gaixotasunak ezindurik zeukan txanbelanaren izenean, idatziz handik egun batzuetara kantziler handiari proposamen hau berau egin ziolarik, azken honek aholkatu zion Kohlhaasi ez ziezaiola muzin egin gisa horretako eskaintzari, luzatzen baitzioten behintzat; baina presidenteari berari erregutu zion, erantzun murriz eta zakarrean, arazo hartan mandatu pribatuetatik libratzeko, eta txanbelanak zuzenean zaldi-tratulariengana jotzera gonbidatu zuen, zeina pertsona eta begiratutzat deskribatzen baitzuen. Zaldi-tratulariaren borondatea hautsi egin zen merkatuan gertatutakoarengatik, halaber itxaroten baizik ez zegoen –kantziler handiaren iradokizunaren arabera– *Junkerra* edo beronen ahaideen aldetik irekiduraren bat, onginahizko harrera egin eta dena barkatzeko; baina irekidura hori egiteko uzkur ageri ziren zaldun harro haiek; eta kantziler handiak bidalitako erantzunak garrasturik, Printze Hautesleari erakutsi zioten, biharamun goizean hartutako zauriek eratzanik zeukaten txanbelanari bere gelan bisita egitean. Bere egoerarengatik ahots ahul eta hunkigarriz galdetu zion txanbelanak, bizia arriskuan jarri ondoren, bere nahiaren arabera, arazo hari amaiera emateko, ea oraindik bere ohorea munduaren kritikagai jarri eta barkamenezko erregu eta itunekin aurkeztu behar al zuen pentsa zitekeen lotsaizun eta laidoa berari eta bere familiari ekarri zizkioten gizonarengana. Gutuna irakurri ondoren, Printze Hautesleak hunkiturik galdetu zion Kallheim kondeari, ea epaitegia ez al zegoen eskudundurik, Kohlhaasi beste kontsultarik egin gabe, zaldiak itzuli ezin zitezkeelako inguruabarrean eta, hilik baleude bezala, ondorioz dirubidezko kalte-ordaina

ematera epaitu. Kondeak erantzun zuen: —Jauna, hilik baitaude egon: zuzenbidearen arabera hilik daude, ez baitute inolako baliorik, eta fisikoki larru-tokitik zaldunen kortetara lekuz aldatu baino lehen leudeke —orduan Printze Hautesleak, gutuna gordez, esan zuen tratatuko zuela arazoa kantziler handiarekin; lasaitu zuen ohean eseri eta esker onezko seinaleztat eskua eman zion txanbelana; eta oraindik bere osasunaz arduratzeko gomendioa egin ondoren, prestutasun handiz besaulkitik altxa eta gelatik irten zen.

Honela zeuden gauzak Dresdenen. Lützen-dik oraindik ekaitz larriagoa Kohlhaas gizarajoaren gainera etorri zenean, zeinaren tximista zaldun maltzurrek aski trebeki asmatu baitzuten zorigaitzeko haren buru gainera saihesten. Kontua izan zen Johann Nagelschmidt, tratulariak erroldatu eta gero Printze Hauteslearen amnistiarekin lizentziaturiko morroieta-ko bat, handik aste gutxitara Bohemiarekiko mugara etorrira zegoen edozein bihurrikeriatarako prest zegoen jendailaren parte bat biltzera, eta Kohlhaasek hasitako egitekoa bere kabuz segitzeko esan zion. Tipo ezgauza hark, bai jazartzen zuten aguazilak ikartzeko eta baita bere desarauetan parte hartzera landako jendeari eragiteko ere, bere buruari Kohlhaasen ordeko deitu zion; nagusiarengandik ikasiriko maltzurtasunez barreiatu zuen beren sorterrietara fidakor itzuli ziren morroi batzuei, ez zitzaizela amnistia errespetatu eta Dresdenera iristean Kohlhaas bera, emandako hitza lotsagarriro janez, Dresdenera heltzean kartzelaratu eta guardiapean jarri zutela; halako moldez, non Kohlhaasenaren antz-antzekoak ziren iragarki tinkatueta bere tropa su-emaillea Jainkoaren ohoretan bakarrik berpizturiko gerrari-taldetzat aurkezten zen, Printze Hautesleak emandako amnistia betearazteko zelatan

egotearen eginkizunarekin; ezertxo ere ez zen, esan bezala, Jainkoaren ohoretan, ezta Kohlhaasekiko atxikimendutan ere, zeinaren zoriarekiko guztiz axolagabe baitzen, baizik eta enganamendu horien babespean askozaz erosoago eta zigorgabeago erre eta sakailatzeko. Berriak Dresdenera iritsi orduko, zaldunek ezin izan zuten gorde abagune honek sortzen zien poza, zeren guztiz beste arrasto bat ematen baitzion arazo guztia-ri. Erretizentzia trebe eta afektatuez gogorarazi zuten Kohlhaasi amnistia ematean egin zen hutsegitea, nahiz eta berek behin eta berriz eta indarrez ohar egin zuten, zeren eta areago baitzirudien izan txarreko doilorkume guztiei dei egitea baitzen, bestearen urratsei jarraitze-
ra bultzatuz; eta Nagelschmidtek aurrez esanari fede emateaz gainera, hau da, bere jabearen sostengu eta segurtasunerako bakarrik hartu zituela armak, aditzera eman zuten bere asmakizun guztia Kohlhaasen amarrukeria bat besterik ez zela, gobernua ikaratzea eta bere seta itsuaren aldeko sententzia bat puntuz puntu ezarri eta emanaraztea beste helbururik ez zuena. Koparia, Hinz jauna, Printze Hauteslearen aurre-aretoko mahaian bere inguruan bildu ziren ehiztari eta gortesau batzuei aurkezteraino iritsi zen, bandiduen partida desagitea zorigaitzeko jostailu baizik ez zela izan; eta zorrozki bilduriko inguruabar desberdinen bitartez, irri egin zion kantziler handiaren justizi zentzuari, eta frogatu zuen partidak zutik zirauela printzerriko basoetan, zaldi-tratulariaren seinale bakar baten zain bertatik suz eta ezpataz irteteko. Christiern von Meissen printzeak, bere jabearen izen ona erarik itsusienean laidatzeko mehatxua egiten zuten gauzen arrasto honengatik oso atsekabeturik, berarengana jo zuen segituan; eta Kohlhaasen erorikoan zaldun haiek zuten interesa igarriz, edozein laprastada berriz

baliaturik, Kohlhaasi berriro luzamendurik gabe itaunketa berri bat egiteko baimena eskatu zion kantziler handiari. Epaitegiko morroi batek bere harridurarako *Gubernium*-era gidatu zuelarik, zaldi-tratularia bere bi seme txikiak, Heinrich eta Leopold, besoetan zituela agertu zen; zeren Sternbald, morroia, Mecklenburgetik zenbait egun lehenago itzuli baitzen Kohlhaasen bost seme-alabekin, eta era desberdinetako arazoek, azaltzeko xeheegi direnek, haurrak berekin hartzera deliberarazi zuten eta berekin itaunketara eramatera. Haurrek zeinek ume-malkoez eragotzi baitzioten etxetik irtetera zihoala ikustean. Kohlhaasek alde banatan eserarazitako haurrak Printzeak onginahiz begietsi ondoren eta era adiskidetsuan haien adinaz eta izenez galdetu ondoren, azaldu zion Nagelschmidti, behiala morroi izan zuena Turingiako ibarretan zertan ari zen; eta haren ediktuak erakutsiz, gonbidatu zuen ahal zuen guztia kontrajar zezala bere burua zuribidetzeko. Zaldi-tratularia, nahiz eta paper lotsagarri eta traidore haien oso ikaratu bazuten ere, halere ez zitzaion kosta tratulariari inolako nekerik Printzea bezalako gizon jator baten aurrean bere kontra zabaldu ziren salaketen faltsukeria, puntuz puntu, frogatzea. Ez bakarrik, bere oharraren arabera, eta gauzak zeuden modura, ez zuela behar inolako laguntzarik hirugarren batengandik aurkeztua zeukan eta biderik hoberenetik zihoan auziaren ebazpenerako; aitzitik, berekin aldean zekartzan eta Printzeari erakutsi zizkion dokumentuetatik, argi eta garbi ageri zen guztiz ezinezkoa zela Nagelschmidtek Kohlhaasi laguntza emateko asmorik izatea, zeren eta Lützenen tropa disolbatu baino lehen tratulariak bortxaketa eta beste bilaukeria batzuegatik urkarazi egin nahi izan baitzuen; halako moldez, non Printze Hauteslearen amnistiaren aldarrikapenak ba-

karrik salbatu baitzuen, zeinaren indarrez eten baitzen elkartzen zituen lokarria, eta egun bat geroago elkarren zinpeko etsai gisa banatu ziren. Egindako eta Printzeak onartutako proposamena burutuz, Kohlhaasek eseri eta gutun bat idatzi zion Nagelschmidti bera eta bere troparekin hautsi bide zen amnistiaren sostengurako armatan altxa izanaren aitzakia asmakizun doilor eta makurtzat jotzen zuen; esan zion Dresdenera iristean ez zutela kartzelan sartu, ezta guardiapean jarri ere eta bere auzia berak nahi bezala zihoala gainera; eta, bere inguruan bilduriko jendaila jakinaren gainean jartzeko, amnistia aldarrikatu ondoren Turingian egindako hilketa eta erreketengatik, legearen zorroztasun guztia eskatzen zuela. Idatziari zaldi-tratulariak Lützingo gazteluan aipaturiko makurkeriak zirela-eta, abiaraizitako prozesu kriminalen atalak erantsi zitzaizkion, ezgauza haren, eta lehen esan denez, Printze Hauteslearen ediktuz bakarrik urkabetik jadanik salbatua izan zenaz herria jakinaren gainean jartzeko. Zegokioenez, Printzeak lasaitu egin zuen Kohlhaas itaunketa hartan, inguruabarren pisuarengatik, adierazi behar izan ziren susmo haietatik; segurtasunak eman zizkion bera Dresdenen egongo zen bitartean, ez zela emandako amnistia hautsiko; berriro eskuak luzatu zizkien mutikoei, mahai gainean zeukan frutatik opari eginez, ea Kohlhaasi agur esan eta irtenarazi egin zuen. Kantziler handiak, zeina segituan ohartu baitzen zaldi-tratulariaren gainean eralgitzen ari zen arriskuaz, ahalegin guztiak egin zituen arazoari amaiera emateko, gertakari berriekin nahastu eta katramilatua baino lehen; baina horixe nahi zuten eta zeukaten helburutzat zaldun maltzurrek eta, lehen bezala erruaren onarpen isilaz, erresistentzia sententzia arin batera mugatu beharrean, izaera amarruzko eta berritsuzko

trikimailuez erabat ukatzen ere hasi ziren. Batzuetan esaten zuten Kohlhaasen zaldia Tronkan atxiki zituztela administraria eta alkaidearen jokaera apetazko batengatik, zeinaz *Junkerra* ez bide zegoen inondik ere jakinaren gainean edo ez erabat behintzat; besteetan ziurtzat jotzen zuten hara iristean abereek ordurako bazutela ezul zipotz eta arriskutsu bat, horretarako lekukoak aipatu zituzten, zeinak ekartzeko hitza eman zuten; eta, ikerketa eta eztabaida xehatuenean, argudio hauek alde batera utzi behar izan zituztenean, Printze Hautesle beraren ediktu bat ekarri zuten, zeinaren indarrez, hamabi urteko denbora-epe batean Brandeburgetik Saxoniara zaldia sartzea debekatu zen, abere-izurrite bat zela-eta: eguzkia bezain argi zegoen, ez bakarrik *Junkerrak* ahala zuela baizik eta eginbeharra Kohlhaasek mugatik pasatu nahi zituen zaldia geldiarazteko.

Kohlhaasek, bitartean, berriro berreskuratu egin zuen bere baserria eskribauarengandik, egindako kaltearengatik zertxobait saritu ondoren, eta zenbait egunez Dresdenetik alde egin nahi izan zuen, antza denez transakzioa erregistro judizialean izapidetzeko, eta bere herrialdera bidaia egin; erabaki honetan, halere eta inolako zalantzarik ez dugu, askozaz garrantzi gutxiago zuen arazo hark berak -nahiz eta presazkoa izan, neguko hazi-ereitea burutzea, inguruabar bixi eta kezagarri haietan bere egoera nolakoa zen egiaztatu nahiak baino: horretarako agian beste izaera bateko arazoien eragina ere izan zen, zeinak bere barrenaren berri dakienari igartzeko utziko dizkiogun. Kantziler handia ikustera jo zuen beraz, izendaturik zeukan guardia gabe, eta eskribauaren gutunak eskuan zituela, bere asmoaren berri eman zion, baldin eta, itxura zegoenez, derrigorrean epaitegian behar ez

bazuten, hiritik irten eta Brandenburgera zortzi edo hamabi eguneko bidaia bat egitearena, epe horren barrenean atzera itzuliko zela hitzemanenez. Kantziler handiak, kezka eta atsekabezko aurpegiak lurrera begiratzuz, ihardetsi zion bere presentzia, hain zuzen ere, inoiz baino beharrezkoagoa zela orduan aitortu behar ziola, zeren eta tribunala, beste alderdiak egiten zituen alegazioen bihurria eta amarruaren aurrean, bere aitortpen eta zehaztapenen beharrean aurkituko zela aurreikusi ezinezko ehunka kasutan; baina, Kohlhaasek kereilaz ongi jantzirik zeukan bere abokatu aipatu ziolarik, eta tematasun neurritsuz eskariari eusten zionez gero, zortzi egun baino gehiago ez zituela emango aginduz, kantziler handiak, isilune baten ondoren, esan zion irtenaraziz zegozkion pasaporteak Christiern von Meissen printzearen baitan eskatzea espero zuela... Kohlhaasek, kantziler handiaren aurpegia oso ongi ulertzen zuenak, sendotuago sentitu zen bere erabakian ea bertan eseri eta inolako arrazoirik eman gabe, zortzi egunetarako pasaporteak eskatu zion Von Meissengo printzeari, *Gubernium*-aren buru zen aldetik, Kohlhaasenbrückera joan eta itzultzeko. Idatzi honek *Gubernium*-aren ebazpen bat jaso zuen Siegfried von Wenk gazteluko kapitainak sinatua, zeinak zioen Kohlhaasenbrückera joateko bere pasaporte-eskaria Printze Hautesleari aurkeztuko zitzaiola, bere onarpen gorenerako; eta jaso bezain laster bidaliko zitzaizkiola. Kohlhaasek bere abokatuari *Gubernium*-aren ebazpena Siegfried von Wenk zelako baroi batek sinatzea zergatik zen galdetzean, eta ez berak zuzendu zion Christiern von Meissen printzeak, erantzun zitzaion Printzea hiru egun lehenago irten zela bere sailetara, eta bera kanpoan zen bitartean polizi arazoak Siegfried von Wenk,

jauregiko kapitainaren, jadanik aipaturiko izen bereko noblearen lehengusuaren eskuetan utzi zirela.

Hainbeste gorabeheraren aurrean artegaturik bihotza taupaka hasi zitzaion. Kohlhaasek zenbait egunez itxaron egin zuen jaunaren kontsiderazio luzakorraren pean erabakia har zedin; baina igaro zen astebete, eta gehiago ere bai, ebazpena iritsi gabe, eta sententzia ere bai, nahiz eta ziurtasun osoz aditzera eman zitzaion ordurako entzutegian emana zegoela: halako moldez, non hamabigarren egunean, irmoki deliberaturik, zeinahi zelarik ere gobernuak berarekiko zuen jarrera inondik ere argitara ekartzera; eseri zen eta errepresentazio hertsakorrean berriro pasaporteak eskatu zituen. Baina nolako txundimena ez ote zuen izan biharamun gauean, hura ere erantzunik jaso gabe igaro zelarik, pauso bat ematean –bere egoeraz pentsakor gogoetan zebilela, eta bereziki Martin Lutero doktoreak lortu zion amnistiarenaz– landetxearen atzeko aldean atondurik zeukan kabinetetxoko leihorearen aurrean, atariko albo-gelan, zeina egonlekutzat eman zien, Von Meissengo printzeak izendatu zion guardia ez ikustean. Thomasek, etxezain zaharrak, zeinari dei egin eta galdetu baitzion, hasperenka erantzun zion:

—Gauzak ez dabilta behar luketenez! Lanskeneteak, eta gaur arenago zebiltzan, gaua erortzean etxearen inguruan banatu dira; beraietako bi guardia egiten aurkituko dituzu, ezkutua eta lantzarekin, atearen aurrean, kalean; beste bi gehiago daude atzekoan, jardinean; eta oraindik beste bi etzan dira areto-aurrean lasto-sorta baten gainean, eta bertan lo egin behar dutela diote. –Kolorea galdu zuen Kohlhaasek bira eman eta erantzun zuen berdin ziola bertan zeuden bitartean; eta solairutik igarotzean argi bat

jartzeko, ikusi ahal zezaten. Etxaurreko pertsiara bat ireki ondoren, ontzi bat husteko aitzakiarekin, eta agurreak aditzera eman zion inguruabarraren egiaz jabetu zenean –zeren une hartan bertan isiltasun txukunean guardiak errelebua hartu baitzuen eta maniobra horretaz ez zen inor ohartu, nahiz eta aspaldidanik neurri hori hartua zegoen– etzan zen ohean, nahiz eta logurarik gabe, eta berehala eduki zuen hurrengo egunerako erabakia hartuta. Zeren ezer ez baitzuen gutxiago jasaten tratatu behar zuen gobernu hari justizi itxurak ematea baino, izatez bere pertsonaren baitan emandako amnistia hausten ari zirelarik; eta egiazki preso bazegoen, ia inondik zalantzatan jartzetik ez zegoenez, ageriki eta itzulingururik gabe aitortzera behartu nahi zuen horrela zela. Ondorioz, hurrengo egunak argitu zuenean, Sternbald bere morroiaren bitartez agindu zuen kotxea lotu eta etxe aurrera ekar ziezaitela, esan zuenez, Lockewitzeko erregistratzailearen etxera joateko, zeina aspaldiko ezaguna baitzuen, Dresdenera agur egitera etorri zitzaiona eta toki hartan egun bat bere seme-alabekin pasatzera gonbidatu zuena. Lanskeneteek, txutxu-mutxuen artean etxean sortu zen joan-etorriaz oharturik, beren arteko bat bestela baitakoan hirira bidali zuten, eta horrela handik gutxira aguazil bat agertu zen bertan laguntzaile batzuekin, eta arazoren bat konpondu behar balu bezala, aurreko etxean sartu zen. Kohlhaas ere ohartu zen mugimendu haietaz, bere seme-alabak prestatzen ari zen bitartean, eta berariaz utzi zuen kotxea atearen aurrean behar baino denbora luzeagoan; poliziaren prestamenak amaiturik ikusi zituen bezain laster, aterra irten zen seme-alabekin; eta, ezkaratzean guardia egiten zegoen lanskenete-eskoltari segitu beharrik ez zeukala esan ondoren, mutikoak kotxera igoarazi

eta neskatoak musukatu eta kontsolatu egin zituen, zeinak, emandako aginduaren arabera, etxezainaren alabaren konpainian negarrez geratzen baitziren. Baina kotxera igo orduko, aguazila bere laguntzaile-segizioarekin aurreko etxetik irten, Kohlhaasengana hurbildu eta nora joan nahi zuen galdetu zion. Honek erantzun zion adiskidea zuen Lockewitzeko eskribauaren etxera kotxez joan nahi zuela, zeinak berriki landetxean seme-alabekin egun bat pasatzera gonbidatu zuela, orduan aguazilak erantzun zion kasu horretan pixka batean itxaron beharko zuela; Meisengo printzeak emandako aginduen arabera, zaldizko lanskenete batzuek lagunduko zutela. Kohlhaasek, kotxearen gainetik irribarre eginez, galdetu zion ea uste al zuen bere pertsona ez zela seguru egongo egun batez bere mahaikide izatera gonbidatu zuen adiskide baten etxean. Ofizialak tonu alai eta atseginean erantzun zion segur aski arriskua ez zela handia, eta gaineratu zion lanskeneteek ez ziotela inolako trabarik egingo. Kohlhaasek orduan zorrotz erantzun zion Dresdenera iristean Meisengo printzeak libre utzi ziola guardiaz baliatzea edo ez baliatzea; eta aguazilak inguruabar horretaz harritu eta esamolde zuhurrez bere egonaldi guztian izandako ohitura aipatu zuelarik, zaldi-tratulariak kontatu zion zer gertakariren ondorioz sortu zen bere etxeari eskolta jarri beharra. Aguazilak ziurtatu zion Siegfried von Wek, jauregiko kapitainaren, une hartan polizia-buru zenaren aginduek bere pertsona etengabe babesteko obligazioa ezartzen ziotela; eta laguntzerik onartzen ez bazuen, bera *Guberniumera* joan zedila eskatu zion, sor zitekeen errakuntza desgitera. Kohlhaasek begirada esanguratsu bat zuzendu zion eta, zirt edo zart egiteko asmoarekin, esan zion horixe egin nahi zuela; jaitsi zen kotxetik bihotza tau-

paka zuela, etxezainari haurrak solairura eramateko eskatu zion eta morroia orgaren zain geratzen zen bitartean, aguazila eta bere guardiarekin *Guberniumean* aurkeztu zen. Suertatu zen jauregiko kapitaina, Wenk baroia, Leipzig inguruan atzeman eta aurreko gauean ekarri zituzten Nagelschmidten morroi-talde baten miaketan lanpeturik zebilela –eta tipo haiei, hain zuzen ere, Von Tronkako zaldunak berak ari zitzaizkiela itaunketa egiten beraiengandik atseginez entzungo ziratekeen zenbait xehetasuni buruz– zaldi-tratularia zeraman segizioarekin aretoan sartu zenean. Zaldi-tratularia ikusi bezain laster, baroia berarengana joan zen, zaldunek isildu eta bat-batean itaunketa bertan behera utzi zutelarik, eta zer nahi zuen galdetu zion; eta zaldi-tratulariak begirunez aditzera eman zionean Lockewitzeko erregistradorearekin bazkaltzera joateko asmoa zuela eta behar ez zuelako, hirian utzi nahi zuela lanskenete-eskolta, erantzun zion baroiak, aurregiko kolorea aldatuz eta beste zerbait irentsi nahi balu bezala, ongi egingo zuela etxean geratu eta Lockewitzeko eskribauaren orritsari uko egiteaz. Ondoren, hizketa etenez, aguazilarengana zuzendu eta esan zion gizonari buruz emandako aginduaren arabera ordenak betetzeko, zaldizko sei lanskenetek lagundurik ez baldin bazen hiritik alde egin ez zezakeenez gero. Kohlhaasek galdetu zuen ea ez ote zegoen preso, ea uste izan behar zuen ageriki eman zitzaion amnistia hausten ari zitzaizkiola; eta orduan baroiak supituki aurpegia gorrituz bi hazbetera hurbildu eta begietara begiratuz erantzun zion:

—Bai, bai, bai! –Bizkarra eman, aho bete hortzekin utzi eta Nagelschmidten morroiekiko bere zereginera itzuli zen. Ondoren, irten zen Kohlhaas aretotik eta, ongi bazekusan ere pauso harekin izugarri

zaildu zuela geratzen zitzaion salbabide bakarra, ihesa, onetsi egiten zuen erabilitako jokaera, zeren amnistia-ko artikulua betetzetik libre ikusten baitzuen bere burua. Etxera itzulirik, zaldiak askatzeko agindu zuen eta, aguazilaren konpainian, triste eta abaildurik sartu zen bere kabinetean; eta gizon hark zaldi-tratulariari nazka emateko zoriraino ziurtatzen zuen dena gaizki- ulertze batean oinarriturik zegoela eta laster argituko zela dena, atalagatu zituzten laguntzaileek bere keinu batez atarirako irteerak; hala eta guzti ere, aguazilak ziurtatu zion, etxearen aurrealdeko irteera nagusia erabat bere nahierara edukiko zuela.

Bitartean Nagelschmidtek hainbesteraino her- tsaturik ikusi zuen bere burua justizi laguntzaile eta lanskeneteen aldetik Turingiako basoetan, non bere gain hartu zuen aurrera eramateko nahikoa baliabi- derik ez zuen zeregin bat aurkitzean Kohlhaas arazo hartan interesaraztea bururatu zitzaion; eta txangoan etorri zen bidaiari batengandik aski xeheki Dresdenen auzia zer egoeratan zeukan jakinik, uste izan zuen, nahiz eta bien artean etsaitasun nabarmena zegoen, zaldi-tratularia mugi zezakeela berekin lotura berri bat ezartzera. Horrela, bada, morroi bat bidali zion ia ezin ulertuzko alemanez idatziriko txartel batekin eta ho- nela zioen:

«Altenburg aldera joan eta sakabanaturiko hondarrekin bertan batu zen troparen buruzagitza hartu nahi bazuen, bera prest zegoela Dresdendik ihes egiten laguntzeko zaldi, jende eta diruarekin; eta abaguneaz baliatzen zela aurrerantzean esanekoago izango zela hitzimateko eta ziur lehen baino neu- rritsuago eta hobea, eta zion leialtasun eta atxikimenduaren agiritzat, prest zegoela Dresdenera joan eta kartzelatik jaregi- teko agintzen ziola».

Baina gutun hau zeraman tipoa, Dresden inguruko herri batean oso karranpa gaiztoek hartu zuten, zeinak txikitatik jasaten zituen, eta abagune hartan laguntzera hurbildu zitzaizkionek gutuna paparrean aurkitu zioten, atxilotu eta guardia eta jendetza handi batekin *Guberniumera* eraman zuten. Gutuna irakurri bezain laster, Von Wenk baroia, jauregiko kapitaina, Printze Hauteslearen jauregira joan zen; bertan Kunz eta Hinz jaunak aurkitu zituen, bere zaurietatik susperturik lehena eta Kallheim kondea, Estatu-kantzilergoburua. Von Tronka jaunak besterik gabe, Kohlhaas atxilotu eta Nagelschmidtekiko ezkutuko elkarraditzeak zituelako auzitara eramatearen aldeko agertu ziren; argudiatzen zuten gisa hartako gutun bat ezin zitekeela idatz baldin eta zaldi-tratulariak aurretik beste batzuk igorri ezean, ezta bien artean lotura doilor eta gaiztaginik egon ere makurkeria berriak egiteko. Printze Hautesleak irmoki uko egin zion gutun bakar hura oinarritzat harturik Kohlhaasi eskaini zion babesa; aitzitik, sostengatu zuen Nagelschmidten gutunak nolabait adierazten zuela aurretik ez zela loturarik izan; eta luzaroan zalantzan egon ondoren deliberatu zen gauza bakarra, egoera argitzeko asmotan, presidentearen proposamena izan zen: Nagelschmidtek bidalitako morroi beraren bitartez, honek lehen bezala gero ere libre balirau bezala, eskuratzen uztea eta erantzuten ote zion egiaztatzea. Horrela, bada, biharamun goizean ordurako kartzelan sarturik zegoen morroia *Gubernium*-era gidatu zuten, non jauregiko kapitainak gutuna gomendatu zion eta behartu zuen, libre eta irabazi zuen zigorretik libre aurkituko zen promesaren pean, zaldi-tratulariari idatzia ezer gertatu izan ez balitz bezala ematera; tipo hark aparteko eragozpenik gabe onartu zuen izan makurre-

ko amarru hura, eta itxuraz era ezkutuan, Kohlhaasen etxera sartu zen –polizi aguazilak merkatuan eskuratu zituen karramarro batzuk saltzeko aitzakiarekin–. Beste inguruabar batzuetan Kohlhaasek, zeinak irakurri baitzuen gutuna bere seme-alabak karramarroekin jolasean zebiltzan bitartean, tipo hari paparretik heldu eta atean guardia egiten zeuden lanskeneteen esku jarriko zukeen; baina zegoen giroan horrelako keinu bat ere kalkulu hotzenaren gai izan zitekeenez gero, eta bera erabat konbentziturik geratuko zatekeen munduan ezerk ezin zezakeela sartua zegoen auzitik salba, begiratu zion halako hari begirada triste batez, ongi ezaguna zuen aurpegian eta galdetu zion non zeukan bizilekua eta handik ordu batzuetara berriro etortzeko bere etxera, non bere nagusiari buruzko erabakiaren berri emango zion. Dei egin zion Sterbaldi, zeina hala-beharrez gelan sartu zen, karramarro batzuk erosteko; eta tratua egin zelarik, elkar ezagutzera iritsi gabe, eta biak irten ondoren, eseri eta gutun bat idatzi zion Nagelschmidti honako hitzotan:

«Lehenik onartzen zuela Altenburg aldean zeukan troparen buruzagitza; eta, ondorioz, bere bost seme-alabekin behin behinekoz zeukaten presondegitik libratzeko, bidal zezala bere kotxea bi zaldirekin Dresdendik Neustadtera; joaira lasterra bermatzeko, oraindik lauzkatu egin beharko zirela Wittenbergerako bidean, itzulunguru bat egin ahal izateko, orduan kontatzeko luzeegi joko zuten arrazoiengatik, ezinbesteko baitzuen egitea bestea zegoenera iritsi ahal izateko; nahiz eta ziurtzat jotzen zuen diruz eros zitezkeela zelatatzen zuten lanskeneteak, indarra beharrezkoa izan zitekeen kasurako, ziurtasuna izan nahi zuela bi morroi adoretzu, trebe eta ongi armaturekin kontatu ahal izateko Dresdengo Neustadten: prestamen horiei buruzko gastuen kontu egiteko, morroiaren bitartez poltsa bat bidaltzen ziola hogeit ure-koroarekin, zeinen enpleguaz kontuak errendatuko zizkion arazoa amaitu

eta gero; gainerakoan eta beharrezkoa ez zelarik, bera jaregiteko Dresdenen ez zedila agertu; areago, Altenburg aldean irauteko agindua espresuki ematen ziola bitartean banda gidatzeko, ezin baitzitekeen buruzagirik gabe gera».

Gau hartan morroia heltzean, gutuna eman zion, oparo adiguri egin ondoren, eta zorrotz eskatu zion hura ongi zaintzeko.

Bere bost seme-alabekin Hamburgera joateko asmoa zuen eta han Hegoaldera edo Ekialdeko Indietarako ontziratzekoa, edo berak ezagutzen zituenaz bestelako gizakien gain eguzkiak argi egiten zuen beste edonora: zeren eta horregatik Nagelschmidtekin tratuan sartzeak sor ziezaiokeen aiherraz aparte, nahigabeek zanpaturiko arimak uko egin baitzion zaldia gizentzeari. Tipo hark erantzuna jauregiko kapitainari eskuratu bezain laster kantziler handia kargutik kendu, Kallheim konde presidentea tribunal-buru izendatu eta, Printze Hauteslearen dekretuz Kohlhaas atxilotu eta katea astunez zamaturik hiriko dorrera eraman zuten. Gutun hura zela eta auzitan sartu zuten, zeina hiriko zoko guztietan ezarri zuten; eta nola auzitegian baietz erantzun zuen gutuna eskuan zuela berak egindakotzat aitortzen al zuen galdetu zion auzi-maisuari, eta bere buruaren defentsarako ezer aurkeztu ahal zezakeen galdetzean ezetz ihardetsi zuelarik begiak beheratuz, larrutzaileen eskuetan orrika goriez zimikatua, laurdenkatua eta bere gorputza estira eta urkabearen artean errea izatera kondenatu zuten.

Honela zeuden gauzak Kohlhaas gizarajoarentzat Dresdenen, Brandenburgeko Printze Hauteslea indarkeria eta nahikeriaren eskuetatik salbatzeko agertu zenean, brandenburgtar menpekotza zuen heinean, Saxoniako Estatu-kantzilertan aurkezturiko nota ba-

ten bidez erreklamatzeko. Zeren Heinrich von Geusau jaun, baile jatorrak Spree ibaiaren hegietan paseo bat ematen ari zela berri eman baitzion gizon berezi eta inondik ere arbuiatzekoa ez zen haren zortez eta abagune hartan Printze harrituaren galderek hertsaturik, ezin izan zion albora eragin bere pertsonaren gain zeukan erruari Sigfried von Kallheim konde artzakan-tilerraren nahikeriari; biziki nahigabeturik beronekin, eta argibideak eskatu eta Tronka etxearekin zuen ahaidetasuna zela guztiaren errudun egiaztatu ondoren, Printzeak, besterik gabe, eta onginahia baztertu zion seinale ugarirekin kargutik kendu eta Heinrich von Geusau jauna izendatu zuen artzakanziler.

Suertatu zen, ordea, Poloniako koroak, ez dakizkigun arrazoiengatik Saxoniako etxearekin gatazkan zebilenak, behin eta berriz proposamen hertsakorrez bultzatzen zuen Printzea berekin aliatzera eta Saxoniako etxearen aurka elkar hartzera; halako moldez, non Geusau jauna, halako gauzetan trebeziarik gabea ez zenak, bere nagusiaren nahia betetzea espero izan zuen, kosta ahala kosta, Kohlhaasi justizia egitean baina horregatik ordena orokorra arriskuan jarri gabe partikularrei zor zaien arretak eskatzen zuenaz haraindi. Ondorioz, artzakanzilerak nahikeria hutsez Jainkoa eta gizakien kontrakoa izan zen prozesuan zehar ikusirik, Kohlhaasen estradizio baldintzagabe eta berantezina erreklamatu ez ezik, bere gain errurik egonez gero, Brandenburgeko legeen arabera epaitua izan zedin, Dresdengo epaitegiak Berlingo abokatu baten bitartez egin zezakeen helegitez, baita Printzeak gogo biziz Dresdenera bidali nahi zuen abokatuarentzat pasaporteak eskatu ere egin zituen, Kohlhaasek Wenzel von Tronkako *Junkerrarekin* hasita zeukan auzian Kohlhaasi justizia egiteko Saxoniako lurraldean legez

kontra zaldiak eraduki eta ikaragarritzko tratu txarrak eman zizkiotelako. Kunz jaun txanbelana, Saxonian egindako kargu-aldaketaren ondorioz kantzilergoburu izendatu zutenak eta arrazoi desberdinengatik, aurkitzen zen estutasunean, Berlingo gorteari eragozpenik sortu nahi ez ziolarik, bere nagusiaren izenean erantzun zuen, zeinari hartutako notak izugarri erasan baitzion: «Harrigarria zela nolako adeitasunik ezaz eta bidegabekeriaz eztabaidatzen zitzaion Dresdengo epaitegiari Kohlhaas legeen arabera epaitzeko ahalmena, herrialdean egindako delituengatik, gainera aski eza-guna izaki aipatua ondasun gogoangarrien jabe zela hiriburuan bertan eta inola ere ez zitzaiola ukatzen bere Saxoniako hiritar-izaera». Baina Poloniako koroak bost mila gizoneko armada bat bildua zuenez gero Saxoniarekin mugan zeuzkan erreklamazioak ebazteko, eta Heinrich von Geusau jaun artzakantzilerrak aitortu zuenez: «Kohlhaasenbrück, zaldi-tratulariak bere izena hartu zuen tokia Brandenburgeko lurraldean zegoela, eta jende-eskubidearen hausketatzat hartuko zela haren kontra emandako herio-zigorra betearaztea», Printze Hautesleak erabaki zuen –eztabaidatik at geratu nahi zuen txanbelanaren beraren iradokizunez– Christiern von Meissen printzea kontsultatara deitzea eta, beronek azaldu zituen arrazonamenduen ondoren, Kohlhaas Berlingo epaitegira estraditatu eta horrela eskatutakoa betetzea. Meissengo printzeak, zeinak bere nagusi abailduaren ageriko gurariz eta sortu ziren bilaukeriengatik pozik ez bazegoen ere, Kohlhaasen arazoaren zuzendaritza onartu behar izan zuen, galdetu zion zer karguren pean auzitara sartzea nahi zuen zaldi-tratularia Berlingo epaitegian; eta Nagelschmidti egindako gutuna aipatu ezin zelarik –idatzi zeneko inguruabar badaezpadako eta ilunen-

gatik-, ezta aurreko zakuraketa eta su-emateak gogora ekarri ere -jendaurrean ezarritako iragarkiz barkatu zitzaizkiolako-, orduan Printze Hautesleak deliberatu zuen Vienako Enperadorearen Maiestateari txosten bat helaraz zekiola Kohlhaasek Saxoniara egin zuen inbasio armatua zela-eta, berak gerizaturiko bakea hausteagatik protesta eginez eta berari, inolako amnistiarekin konprometituri ez zegoenari eskatuz, hartan oinarriturik eta akusatzaile inperial baten bitartez Kohlhaasi Berlingo auzitegira dei egin ziezaiola. Handik zortzi egunetara, zaldi-tratularia bere bost seme-alaben konpainian -zeinak bere eskariz zurtzegi eta errukietxeetatik jasoak izan baitziren-, kotxe batera igoarazi eta Friedrich von Malzahn zaldunak Berlinera eraman zuen, zeina Brandenburgeko Printze Hautesleak Dresdenera bidali baitzuen sei zaldizkorekin. Suertatu zen Saxoniako Printze Hauteslea une hartan orein-ehizaldi handi batean esku hartzen ari zela, zeina Dahmen antolatu baitzuen lurraldeko gobernariak, Aloysius von Kallheim kondeak, Saxoniako mugak sail handien jabe zenak, Kunz jauna txabelana, beronen emazte Heloise, gobernariaren alaba eta presidentearen arrebarekin, eta baita bertaratu ziren beste handiki, dama eta jaun, gortesau eta ehiztariekin ere; halako moldez, non oraindik talde osoa mahaiaren inguruan bildurik zegoela, muino baten gainean bidean zehar altxaturiko banderatxo ikusgarriko dendatan, oraindik ehizako hautsez estalita, haritz-enbor batetiko soinuak lagun zituztela eta menino eta pajeek adeitsuki zerbitzaturik, zaldi-tratularia Dresdendik zetorren bidea astiro ibiliz zaldizko eskoltarekin igaro zenean. Kohlhaasen seme txiki baten gaixotasunak Malzahn bere laguntzaillea Herzbergen hiru egunez gelditzera behartu zuen; neurri horretaz, ordea, zerbitzatzen zuen jaunaren au-

rrean bakarrik erantzukizuna izaki, ez zion beharrezko iritzi Dresdengo gobernuari jakinarazteari. Gaztaroko garai urrundetuan bere lehen maitasun izan zuen Heloise damaren ondoan eserita, kapela buruan zuela, ehiztarien gisara, izei-abartxoekin apaindurik, golkoa erdi zabalik, eta jai-giroak alaiturik, Printze Hautesleak proposatu zuen:

—Goazen hara, kopakada bat ardo dohakabe hari eramatera, normahi dela ere! —Heloise dama zutitu egin zen, bihozko begiratzuz segituan eta mahaian arrapaladan sarturik paje batek ekarri zion zilarrezko erretilu bat fruitu, pastel eta ogiz bete zuen; eta jadanik irtenda zegoen, era guztietako izkirimiriekin, talde osoa borborka dendatik, gobernariak aurpegi asaldatuarekin etorri eta bertan gelditzeko eskatu zienean. Printze Hautesleak txunditurik zer gertatu zen galdetzean, hain aztoraturik egoteko, gobernariak kotxe hartan Kohlhaas zihoala erantzun zion hitz-totelka txanbelanari; guztientzat ulertezina zen albiste haren aurrean, zeren jakina baitzen sei egun lehenago abiatua zela Dresdendik, hartu zuen txanbelanak, Kunz jaunak, bere kopakada ardoa eta, dendarantz itzulirik, hondarretan isuri zuen. Printze Hautesleak, erabat gorriturik, berea erretiluan ezarri zuen zeina txanbelanaren keinu batez horretarako hurbildu baitzion menino batek; eta Friedrich von Malzahn zalduna, eza gutzen ez zuen taldeari begirunez diosal eginez, igaro zen bitartean bidearen gainetik tiraturiko denden lokarrien artetik Dahme aldera ahukua astiro gidatuz, jaunak gobernariaren eskariz dendara itzuli ziren, gertatuari aparteko garrantzirik eman gabe. Printze Hauteslea eseri bezain laster, gobernariak mandatua bidali zuen Dahmera bertako baileari zaldi-tratularia lehenbailehen aurrerako bidean jar zezala eskatuz; bai-

na, Mahlzango zaldunak, ordua oso aurreratua zelako, gaua bertan emateko nahia agertu zuelarik, bailearen jabego zen eta sastraka artean ezkutaturik eta bazter zegoen landetxe batean isiltasun handiengan alojatzeaz konformatu behar izan zuen. Baina arratsean suertatu zen, jaunak ardoz eta mahai-azken joriz barreiatu, gertatua ahaztu zutelarik, gobernariari berriro zelatara agertu zen orein-talde bat barrandatzera itzul zitekeela otutzea. Iradokizun hau gogo onez hartu zuen talde osoak, segituan bikoteka sakabanatu eskopetak hartu bezain laster hesi eta mendiko postuetarantz; halako moldez, non Printze Hauteslea eta Heloise dama, zeina beronen besoari itsatsi baitzitzaion ikuskizuna ez galtzeko, izendatu zieten pajeak, hain zuzen ere, eta beren harridurarako, Kohlhaas brandenburgtar zaldizkoekin aurkitzen zen etxeko barlaren erditik gidatu zituen. Dama horretaz ohartzean esan zuen:

—Zatoz, garaitasun hori, zatoz! —eta lepotik zintzilik zerabilen katea zetazko petoan ezkutatu zion txantxaz eta koketeriaz—. Ardaila etorri baino lehen sar gaitezen landetxean eta gaua bertan eman behar duen pertsonaia bitxia ikusiko dugu!

Printze Hautesleak gorriturik eskutik heldu eta esan zion:

—Heloise, horiek burutazioak dituzunak! —Baina damak esan zionean, txunditurik, inork ezingo zuela ezagutu, ehiztari-jantziak estaltzen zuelako, eta tira egin ziolarik eta nola une horretan bi ehiztari etxetik irten ziren beren jakin-mina aserik eta hauek ziurtatu ziotenez gero gobernariaren trikimailu bati esker, ez zalduna ez zaldi-tratularia ez zeudela jakinaren gainean zer jende-mota bildu zen Dahme aldean; Printze Hautesleak kapela begietaraino sartu eta irribarrez esan zuen:

—Erokeria, hi haiz munduaren nagusi eta, emakume ederraren ezpainak dauzkak kokagunetzat!

Gertatu zen Kohlhaas lasto-sorta baten gainean eserita zegoela, bizkarra hormaren kontra, Herzbergen gaixotu zitzaion semeari esne eta ogi zurizko zopa bat ematen, jaunak bisita egitera landetxean sartzean; eta hizketan hasteko damak nor zen eta haurrari zer gertatzen zitzaion galdetzean, baita zer delitu egin zuen eta nora zeramaten halako eskoltarekin, hark larruzko burutako erantziz agur egin zion eta, bere egitekoari utzi gabe, galdera hauei erantzun murrizta baina nahikoa eman zien. Printze Hauteslea, zutik ehiztarien atzealdean zegoenak, zetazko haritik zintzilik berunezko erlikia-ontzi bat zerabilela ohartzean, galdetu zion hizketarako ezer hoberik ez egokitzean, zer esan nahi zuen eta zer zeukan barrean. Kohlhaasen erantzun zion:

—Bai, jaun prestu hori, erlikia-ontzi hau –eta fineziaz lepotik atera, ireki eta lakrez zigilaturiko txartel bat erakutsi zuen– erlikia-ontzi honekin gauza miragarri bat gertatu zen. Zazpi bat ilargi izango dira orain, emazteari lurra eman eta biharamunean, ni Kohlhaasenbrücketik abiatu nintzen, agian jadanik badakizunez, Tronkako *Junkerra* atzematera, zeinak bigabekeria ugari egin baitzizkidan; eta nik ez dakidan gairen bati buruzko negoziaketa zela-eta, Brandenburg eta Saxoniako Printze Hautesleek bilera bat izana zuten Jüterbock izeneko herri txiki batean, nondik eraman baininduen neure kanpainak; eta arrats alderako beren nahiak bateratu zituztelarik, biak berriketa adiskidetsuan kalera irten ziren, garai hartan han jendetza handiarekin egiten ari ziren urteroko feriari begiratu bat ematera. Bertan ijito-andre batekin topo egin zuten, zeinak oin-aulki batean eserita inguruan bildutako

jendeari etorkizuna igartzen baitzion egutegi batetik, eta ez ote zeukan berei zer bait atsegini igartzeko. Nik neure taldearekin ostatu batean egoitza hartu nuelarik eta hau gertatu zen tokian aurkitzen nintzelarik, ezin nuen hauteman nengoeneko elizako atearen atzetik zer esan zien andre miragarriak jaun haiei; halako moldez, non jendeak barrezka elkarri xuxurlatu zion emakume hark ez ziola edonori bere jakitearen berri ematen, eta sortzera zihoan ikuskizunarengatik jendea pilatu zelarik, ni neu atzealdean, elizako sarreraren ondoan zegoen harrizko aulki batera igo nintzen, gutxiago neure jakin-minarengatik jakin-minez zeudenei toki egiteagatik baino. Neure talaiatik, inolako eragozpenik gabe, jaunak eta oin-aulkian aurrez aurre eserita zeukaten eta itxuraz marra batzuk egiten ari zitzairen emakumea ikusi ahal izan nituen orduko, berau supituki zutitu zen makuluez baliaturik eta jendartean begiratzen hasi zen; ikusten nau ni, berarekin inoiz hitzik trukatu ez nuena, ezta neure bizitzan bere jakiteari denborarik eskaini gabekoa nintzena; urratzen du bidea jendetza sarrian zehar nengoen tokiraino eta esaten du: «Tira! Jaunak jakin nahi badu, hiri galde-tu beharko dik!» Eta horrenbestez, jaun prestua, esku ihar eta hezurtsuaz txartel hau luzatu zidan. Eta nik txunditurik, jende guztia niregana zuzentzean, esan niolarik: «Ama, zer opari dira hauek?», erantzuten dit berak, hauteman ez nizkion gauza asko, zeinen artean harridura handirako neure izena ere entzun nuen: «Amuletu bat, Kohlhaas, zaldi-tratularia; gorde ezak, ikusiko duk egunen batean bizia nola salbatuko dian!», eta desagertu egiten da. Beraz -jarraitu zuen Kohlhaas-ek bizi-bizi-, egia esan, Dresdenen gauzak gogor jarri zaizkidan arren, ez dut bizi-az ordaindu beharrik izan;

baina nola joango zaizkidan Berlinen, eta bertan ere honen laguntza izango dudan, geroak esango du.

Hitz hauek entzutean Printze Hauteslea eseri egin zen aulkian; eta nahiz eta dama harrituak zer gertatzen zitzaion galdetu eta berak:

—Ezer ez, ezertxo ere ez —erantzun, handik gutxira lurrean zerraldo erori zen ondoeza eginik, damak beragana hurbildu eta besoetan hartzeko ere astirik izan baino lehen. Malzahngo zaldunak, zeina une hartan bertan beste zeregin batekin sartu baitzen, esan zuen:

—Jainko maitea! Zer gertatzen zaio jaunari?

Damak oihu egin zuen:

—Ekarri ura, bizkor! —Ehizazainek altxatu eta albo-gela bateko ohera eraman zuten; eta aztorame-nak gorenara jo zuena txanbelanak, paje batek ekarririk, aitortu zuen, bizira ekartzeko behin eta berriz alferreko ahaleginak egin ondoren esan zuen: «Antza denez, jaunak atakea izan du!» Kopariak zaldizko mandatari bat Luckauera bidali zuen bitartean mediku bila, eta jaunak begiak ireki zituelarik, gobernariak kotxe batera igoarazteko eta berak ingurumarietan zeukan ehizadendara poliki-poliki eramateko agindu zuen; baina bidaia haren ondorioz beste bi ondoez izan zituen toki hartara iristean; halako moldez, non harik eta bihararumun goizera arte, Luckhaueko medikua iritsi zen arte, ez zen inolako hobekuntzarik nabaritu, baina orduan ere nerbio-sukarrezko sintoma larri berekin. Bere baitara etorri zen bezain laster, ohean eseri eta ezer baino lehenago:

—Non dago Kohlhaas? —Galdetu zuen.

Txanbelanak, galdera nahastuz, esan zion eskua hartzen zion bitartean lasai zitekeela gizaki nardagarri harengatik, zeren gertakari estrainio eta

ulergaitzaren ondoren Dahmeko landetxean geratu zela brandenburtar eskoltaren zaindaritzapean. Atxikipen bizeneko adierazpenekin eta gizon harekin topo egitera eraman izanaren arinkeriarengatik jadanik emazteari garratz haserre egin ziola ziurtatu ondoren, galdetu zion zerk eragin zion hain zirrara miragarri eta ikaragarria berarekin hitz egin zuen bitartean. Printze Hautesleak esan zion aitortu beharrean zegoela gertakari higuin garri guztiaren errua gizonak berunezko erlikia-ontzi batean aldean zeraman txartel ziztrina ikusi izanak zeukala. Oraindik zenbat argibide ere gehitu zituen, txanbelanak ulertu ez zituenak; supituki eskua bereen artean estutu eta txartel haren jabe izatea garrantzi handienekoa zela beretzat aitortu zion; eta ez zedila han eserita geldi, lasterka Dahmera joan eta txartel hura kosta ahala kosta eros ziezaiola erregutu zion. Txanbelanak, zeinari kosta egiten baitzitzaion bere txundidura ulertzea, ziurtatu zion baldin eta txartel hark inolako baliorik bazuen beretzat, ezer baino garrantzitsuagoa zela Kohlhaasi inguruabar hori ezkutatzea; zeren eta indiskrezio txikienarengatik hori jakinaraziz gero, aberastasun guztiak gutxiegi izango zituela tipo zital, mendeku-egarrian aseezina zen hari erosteko. Lasaitzeko gaineratu zion beste bideren bat pentsatu beharko zela eta agian amarruz hirugarren bat erabat oharkabean beretzat hainbeste esan nahi zuen txartelaz jabetu ahal izango zela, baldin eta biluari gehiegi inporta ez bazitzaion behintzat.

Printze Hautesleak izerdia xukatu eta galde-tu zion ea ezin zuen norbait bidali helburu horrekin Dahmera eta behin behinekoz bertan behera utzi zaldi-tratulariaren, harik eta nolana zela ere txartelaz jabetu arte. Txanbelanak, ikusten eta entzuten ari zena sinetsi ezinik, bere aurreikuspenen arabera

ordurako zaldi-tratulariak Dahmetik abiatua eta tama-
lez mugaz haraindi Brandenburgeko lurretan aurkitu
behar zuela erantzun zion, non bere lekualdaketa tra-
batzea edo atzeraraztea eragozpen oso neketsu eta
gogaikarriak sortaraziko zituzten, ezin gaindituzkoak
agian. Printze Hautesleak, isiltasunean eta erabat etsi-
tuaren itxurarekin, burkoan bere buruari erortzen utzi
zionean, txanbelanak galdetu zion zer zeukan txartelak
eta gisa horretan eta argiezineko zer halabeharrekoren
bitartez jakin zitekeen txartelak berekin zerikusia zue-
la. Baina honi, txanbelanari begirada zalantzazkoak
eginez, zeinaren adiguritasunaz susmoak baitzituen
kasu hartan, Printze Hautesleak ez zion ezer erantzun:
ohean etzanik, zurrari, bihotza artega taupaka zuela,
ez zituen begiak pentsakor eskuen artean zeukan za-
piaren muturretatik aldentzen; eta, ustekabearen, oso
izaera desberdineko gai batez berarekin hitz egin behar
zuelako aitzakiarekin, Von Stein ehizazaina, zaldun
gazte oso sendoa eta trebea bidaltzeko eskatu zion, zein-
naz beste abagune batzuetan ere baliatu izan baitzen
isilpeko zereginetarako.

Ehizazainari, Kohlhaasen eskuetan zegoen txar-
telak beretzat zer garrantzi zuen jakinarazi ondoren,
galdetu zion ea bere adiskidetasunerako betiko esku-
bidea bereganatu nahi ote zuen hura Berlinera iritsi
baino lehen txartel hura ekarriz; eta gazteak, berezi-
tasunaren barruan, gaiaren neurriaz jabetu orduko,
erabat bere zerbitzura zeukala ziurtatu ziolarik, Prin-
tze Hautesleak agindu zion Kohlhaas atzemateko eta
zuhurtasunez egindako negoziaketan askatasuna eta
bizia txartelaren ordezkaintzeko, zeren diruaren
truk segur aski nekez lortuko baitzen ezer, eta tema-
tzen bazen, nahiz eta beharrezko begiramenduaz,
lekualdaketa burutzen ari ziren brandenburgtar zaldu-

nengandik ihes egiteko zaldi, jende eta diruz hornituz laguntzeko ere bai. Ehizazainak, Printze Hauteslearen eskutik luzaturiko orri fede-emaile bat hartu ondoren, segituan abiatu zen morroi batzuekin eta zaldien arnasa aurrezten ibili ez zenez gero, mugako toki batean Kohlhaasekin topo egiteko zorte ona izan zuen, zeina Malzahngo zalduna eta bere bost seme-alabekin batera, etxe baten ate aurrean zerbitzatua airepean bazkaltzen ari baitzen.

Malzahngo zaldunak –zeinaren aurrean gazte nobleak bere burua arrotz gisa aurkeztu eta bide batez zaldunak berekin zeraman gizaseme bitxiaren begizko azterketa bat egin nahi zuen– segituan behartu zuen keinu abegikorrez gaztea mahaian esertzera eta Kohlhaasi aurkeztu zion gainera; eta nola brandenburgtar zalduna harat-honat zebilen, bidaia segitzeko prestamenetan, eta zaldizkoak etxearen bestaldean kokaturiko mahai batean bazkaltzen ari ziren, laster aurkeztu zitzaion ehizazainari zaldi-tratulariari nor zen eta zer mandatu berezirekin beragana zetorren azaldu ahal izateko abagunea.

Zaldi-tratulariak bazekizkien ordurako Dahmeko landetxean aipaturiko erlikia-ontzia ikustean ondoeza eginik erori zenaren izena eta maila, eta aurkikuntza honek sortu zion zorabioari galdorra jartzeko, txartel baten isilpekoaz jabetzea besterik ez zuen behar, zeinaren zigilua, arrazoi desberdinak zirela-eta, ez baitzuen berak jakin-min hutsez urratu nahi: zaldi-tratulariak esan zuen, Dresdenen, edozein sakrifiziotarako prest egon zelarik, noble eta printze bati hain gutxi zegokion tratua hartu zuelako: txartela bere eskupean gordetzeko gogoia zeukala. Ehizazaina harritu egin zen ezezko txundigarri haren aurrean, zeren eta trukean bizia eta

askatasuna baino ezer gutxiago ez baitzion eskaintzen eta Kohlhaasek erantzun zuen:

—Jaun noble hori, nahiz eta zure jauna bera etorri eta esango balit prest dagoela bere burua eta zetroari eusten laguntzen dioten guztiak suntsitzeko... suntsitzeko, ezabatzeko, ulertzen duzu? Nire arimak izan lezakeen irrikarik handiena, nik halere oraindik ukatu egingo nioke zure nagusiari bere bizitza baino maiteago duen txartel hau, eta esango nioke: «Hik urkabera bidal nazakek, baina neuk ere min egin diezaaket eta nahi diat gainera!» Hau esanik, herioa aurpegian zuela, erretiluan gelditzen zen jaki-zati on bat amaitzera gonbidatzeko aitzakiarekin zaldizkoetako bati dei egin zion; eta tokian egon ziren denboraren gainerakoan izan ere ez balitz bezala, ez zen beragan bihurtu, begirada batez agur esateko, harik eta kotxera igo zen arte.

Printze Hauteslearen egoera, albistearen hartzean, hainbestearino okerragotu zen, non hiru egun beltzetan medikua erabat kezkatu egon zen bere biziarengatik, zeinak aldi berean alderdi askotatik erasoak jasotzen baitzituen. Laster suspertu zen, halere, berezko osasunari esker zenbait astez gaixotasunaren ohean borrokatu ondoren; halako moldean, non kotxe batean ezarri ahal izan zuten, burkoz eta mantaz ongi horniturik, eta Dresdenera bidali, non baitzituen gobernu-egitekoak. Hirira iritsi orduko Christiern von Meissen printzeari dei egin eta galdetu zion zer egoratan aurkitzen ziren Eibenmayer auzi-maisuaren despatxu-lanak, zeina bidali nahi izan baitzuten mandatuz Vienara Kohlhaasen kontrako auzian, maiestate inperialaren aurrean kereila bat ezartzeko lurraldean bakea hausteagatik. Printzeak erantzun zion, Dahmera irten zenean emandako aginduen arabera, bera abiatu zela Vienara Zauner lege-maisua etorri ondo-

ren, zeina bidali baitzuen Brandenburgeko Printze Hautesleak bere izenean entzutegian agertu eta Wenzek von Tronka *Junkerraren* kontra kereila ezartzeko. Printze Hautesleak gorriturik hurbildu idazmahaira eta bere harridura azaldu zuen halako zalapartaren aurrean, zeren berak zekienez argitua baitzuen Eibenmayer behin betiko abiaraztea azkenekoa eta irmoa izango zen agindu baten baitan jarri nahi zuela, Martin Lutero doktorearekin egin behar ziren kontsulten arabera, zeinak lortu baitzion amnistia Kohlhaasi. Eta hori esaten ari zen bitartean, aktak eta ofizioak bata bestearen gainean erortzen utzi zituen, atsekabe eradukizko adierazpenarekin. Begi zabal-zabalez begiratu zion isilaldi baten ondoren, Meissengo printzeak esan zion sentituko zuela arazo hartan nahigabetu izanak; baina Estatu-Konseiluaren ebazpena erakutsi ziezaiokeela, non agindu zuen, une hura iritsirik, auzi-maisua Vienara bidaltzea derrigorrean egin beharrekoa zela. Gaineratu zuen Estatu-Kontseiluan ez zela inondik ere Lutero doktorearekiko kontsulta horien gaia aipatu; halaber, lehenago eta Kohlhaasen alde egin zuen bitartekaritzarengatik, agian komenigarria izan zitekeela fraidearen iritzia kontutan hartzea, baina ez orain, mundu guztiaren aurrean amnistia kendu, atxilotu eta Brandenburgeko tribunaletara bidean zelarik, kondenatu eta exekutatu izateko. Printze Hautesleak esan zuen Eibenmayer bidali izanaren laprastada azken finean ezin zitekeela hain larria izan; bitartean eta, agindu berririk eman arte, ez zedila Vienan akusatzaile gisa aritu eta eskatu zion Printzeari luzamendurik gabe zegokiona mandatari baten bitartez aditzera eman ziezaiola. Meissengoak erantzun zion, zoritxarrez, egun batez berandu iritsi zela agindua, zeren egun hartan bertan jasotako ofizioaren arabera jadanik

Eibenmayer akusatzaile gisa aurkeztu eta Vienako Estatu-Kantzilergoan kereila ezarria zuelako. Printze Hautesleak, txunditurik, hura guztia nola gerta ahal izan zen hain denbora laburrean, Meissengoak erantzun zion abokatu abiaturik zenetik jadanik hiru aste igaro zirela eta hartutako instrukzioak, Vienara heldu orduko, denborarik galdu gabe izapidetza hura burutzera behartzen zuela. Edozein luzamendu hainbat kaltegarriago gerta zitekeela ohartarazi zion Printzeak, zeren Zäuner, Brandenburgeko abokatu, jadanik Wenzel von Tronka *Junkerraren* kontra presiorik tematuenaz hasita zegoelako, eta ondoren suspertuak izan zitezen hiltokiko kortetatik zaldiak kentzeko errekerimendua ezartzea lortua zeukan, beste aldearen eragozpenak gorabehera. Printze Hautesleak txilina joz esan zuen berdin ziola, ez zuela garrantzi handirik eta funtsik gabeko zenbait galdera egin ondoren –nola zeuden gauzak Dresdenen; zer gertatu zen bera kanpoan zen bitartean–; agur esan zion, bere barneko aldartea ezkutatu ezinik, eskuaz eta irtenarazi egin zuen. Egun hartan bertan Kohlhaasi buruzko akta guztiak eskatu zizkion idatziz zuen munta politikoarengatik berak aztertu nahi zituelako aitzakiarekin; eta txartelak zeuzkan isilpekoen berri eman ziezazkiokkeen bakarra galzezakeelako pentsamendua ezin jasanik, bere eskuz idatzi zion gutun bat enperadoreari, zeinean era bihozkoiki eta hertsakorrean baimena eskatzen zion behin behineko eta ebazpen berririk izan arte Eibenmayerrrek Kohlhaasen kontra ezarritako kereila baztertzeko, agian epe laburrean xehatuko zizkion garrantzizko arrazoiengatik. Enperadoreak, kantzilergoak igorritako nota batean erantzun zion: ezin gehiagoraino harritzen zuela supituki aldarrean izan zuen aldaketak; Saxoniaren aldetik aurkezturiko txostenak Kohlhaasen auzia

erromatar-germaniar inperio sakratuaren osoaren arazo bihurtu zuela; ondorioz, enperadorea, beronen agintari gorena zen aldetik, beharturik aurkitu zela Brandenburgeko etxearen aurrean bere burua akusatzaille gisa aurkeztera; halako moldez, non Franz Miller gortearen aholkularia jadanik abiatu eta Berlinera bidean zela, lege-ordezkarri gisa lurraldeko bakea haus-teagatik Kohlhaas demandatzeko mandatuarekin, eta inola ere ezin zitekeela kereila ken.

Gutun honek erabat abaildu zuen Printze Hauteslea; eta bere atsekaberik handienerako, handik gutxira Berlinetik iristen hasi zirenean idatzi pribatutan Kohlhaasen kontrako auzia hastera zihoala adierazten zuten albisteak eta aditzera ematen zuten, izendatu zitzaion abokatuaren ahalegin guztiak gorabehera, Kohlhaasek urkabeen izango zuela azkena, jaun dohakabe honek ahalegin berri bat egitea erabaki zuen, eta bere eskuz idatziriko gutun batean, Brandenburgeko Printze Hautesleari zaldi-tratulariaren bizia eskatzea erabaki zuen. Aitzakiatzat erabili zuen gizon hari emandako amnistiak ez zuela baimentzen, gisaz, gizon harengan herio-zigorra burutzerik; ziurtatzen zion, nahiz eta itxuraz zorroztasunez jokatu izan bere kontra, inoiz ez zuela hilarazteko asmorik; eta idazten zion zeinen deskontsolaturik geldituko zen, baldin eta gertakarien ustekabeko aldaketaz, Berlindik sortzea espero zen babesa, Dresdenen gelditu eta arazoa Saxoniako legen arabera ebatzi izan balitz baino kalte handiago gizon hari azkenean bihurtzen bazitzaion.

Brandenburgeko Printze Hautesleak, zeinari gutun honetako zenbait puntu badaezpadako eta ilun iruditu zitzaizkion, erantzun zion: Bere Maiestatearen abokatuak erabilitako enfasiak, argi eta garbi erakusten zuela ezertxo ere legeen agindutik aldentzerik ez

zutela baimentzen, berak azaldutako nahiaren arabera. Azaldu zizkion eskrupuluuen neurrigabea ohartarazten zion, Kohlhaasi amnistiaz barkatzen zitzaizkion delituengatik demanda Berlingo auzitegiaren aurrean bera zirikatzaile izan ez zelarik, lehen agintari inperiala baizik, amnistiarekin zerikusirik ez zuena; arazo horretan beharrezko zela adierazten zion erabateko lotsagabekeriak Nagelschmidtek egiten zituen eta Brandenburgeko lurraldera hedatzen ari ziren larregikerien aurrean eskarmentu beldur-eragile bat sortzea; eta erregu egiten zion, baldin eta kontsiderazio hauek egokitzen jotzen ez bazituen, Bere Maiestate inperialarengana jo zezala, zeren eta Kohlhaasen aldeko agindurik etortzekotan, alderdi hartatik bakarrik etor baitzitekeen.

Ahalegin haiek guztiek porrot egin zutelako penaz eta nahigabez Printze Hauteslea berriro gaixotu egin zen eta, goiz batean, txanbelana bisita egitera joan zitzaionean, Kohlhaasi bizia luzatzeko eta horrela, gutxienez, berak zeukan txartelaz jabetzeko denbora irabazteko asmoz Viena eta Berlingo gorteetara igorritako gutunak erakutsi zizkion. Txanbelana belaunen gainean jarri eta beretzat santuena eta preziatuena zenarengatik zer zeukan txartel hark. Printze Hautesleak esan zion atea giltzaz itxi eta ohean esertzeko; eta eskutik heldu eta hasperen sakon bat jaregin ondoren, honela hasi zen:

—Emazteak jadanik kontatu dik, entzun dudanez, Brandenburgeko Printzeak eta biok, Jüterbocken izan genuen topaketako hirugarren egunean, nola ijito-andre batekin aurkitu ginen; eta nola Printze Hautesleak, berez den bezain erpizia izaki, emakume haren ospea herri guztiaren aurrean hondatu nahi izan zuelarik, zeinaren antzeak era neurrigabean goretsi

baitziren bazkaltzen ari ginela, horrela, besoak toles-
tuak zeuzkala haren mahaiaren aurrean agertu zuan,
eta irakurri behar zion igarkizunaren bermetzat egun
hartan bertan gertatu beharreko froga bat eskatu zion,
jakinarazi ziolarik, hala gertatzen ez bazen, nahiz eta
Erromako sibila bera izan, ez ziola hitzik sinetsiko. Ema-
kumeak begiratu arin bat egin burutik oinetaraino eta
esan ziguan seinalea izango zela orein handi adardu-
na, lorezainaren semeak parkean hazitakoa, aurkitzen
ginen merkatuan, bertatik irten baino lehen agertuko
zitzaiola. Baina jakin behar duk Dresdengo sukaldera
eramateko izendaturik eta parkeko haritzen itzalpean,
hesola garaiz inguraturiko estalpe batean zegoan orein
hau; eta bai parkea, zeukan ehiza eta hegaztiengatik,
baita bertaraino eramaten zuen lorategia, morroiloz
eta atalagaz itxita zeudean, halako moldez, non ezin
baitzitekeen aurreikus nola bete behar zuen anima-
liak iragarkizun hura eta aurkitzen ginen plaza hartara
etorri; hala eta guztiz ere, haren guztiaren atzean mal-
muzkeriaren bat egon zitekeen susmoarekin, Printze
Hautesleak, nirekin laburki hitz egin ondoren, txan-
txari jarraitzeko prest egonik eta emakumeak erakutsi
behar zuena ezinbestez irrigarri utzi nahirik, animalia
bat-batean lepo egin zezatela agindu zian jauregian
eta egun haietako batean mahaian zerbitzatzeko pres-
ta zezatela. Gero emakumearengana bihurtu, zeinaren
aurrean gai hau ozenki erabili izan zen, eta esan zian:
«Ikusagun orain, zer daukan etorkizunaz niri agertze-
ko?». Eta emakumeak, haren eskuari begiratu, esan
zian: «Agur, ene Printze eta Jauna! Zure graziak luzaz
governatuko du, jaio zaren etxeak luzaz iraungo du,
eta zure ondorengoak handi eta ahaltsu izango dira
eta munduko printze eta jaun guztien aurretik izango
dute aginpidea!». Printze Hautesleak, pentsakor ema-

kumeari begiratzu isilune bat egin ondoren, pauso bat nire aldera eman eta ahopean esan zidaan orduan ia sentitu egiten zuela mandatari bat bidali izanak iragarpena hutsean uzteko; eta iskanbila alaiaren artean emakumeari Printzearen segizioko zaldunen eskue-tatik txanpon-zaparrada altzora zihoakion bitartean, berak urrezko bat poltsatik atera eta, berari emanaz, galdetu zioan ea niri egin behar zidan iragarpenak bereak bezain soinu atsegina zuen. Emakumeak, alboan zeukan kaxa bat ireki eta mota eta kopuruaren arabera, zehatz-mehatz diruak bertan ezarri eta kaxa berriro itxi ondoren, eguzkiak min egingo balio bezala eskuaz begiak babestu eta so egin zidan; eta neronek galdera errepikatu eta txantxa moduan, eskua aztertzen zidan bitartean, Printzeari esan zioan niretzat, antza zenez, ez zeukala ezer atseginik jakinarazteko: hartu zitian bere makuluak, altxatu zuan astiro oin-aulkitik eta keinu misteriotsuan esku-ahurrak nireganantz zituela hurbildurik, era hautemangarrian xuxurlatu zidaan belarrira: «Ez!». «Kontxo!» esan nioan nahasturik, eta pauso bat atzera egin nian pertsonaia harengandik, zeina begirada hotz eta bizigabearekin, marmolezko begiak balitu bezala atzealdean zeukan oin-aulkian berriro eseri zen, «eta zein alderditatik dauka nire etxeak arriskuaren mehatxua?» Emakumeak zangoak gurutzatu zitian paper-zati bat eta ikatza hartzen zituen bitartean eta hura idatziz jartzerik nahi nuen galdetu zidaan, eta nik aztoraturik nengoelako eta inguruabar hartan beste irtenbiderik ez nuelako: «Bai! Egizu!» erantzun nioan eta berak erantzun zian: «Hala biz! hiru gauza idatziko dizkizut: zure etxeko azken subiranoaren izena, aginpidea galduko duen urtea eta armen indarrez bereganatuko duenaren izena». Hau jende guztiaren aurrean egin zuelarik, zutitu, bere aho

lehorrean bustitako lakreaz itsatsi eta erdiko hatzean zerabilen berunezko eraztun batez zigilatzen dik. Eta nik, jakin-minez, nire hitzek esan dezaketen baino heuk hobeki ulertuko duanez, txartelari heldu nahi diodanean, esaten zidak: «Inola ere ez, Gorentasuna!» eta bira eman eta bere makuluetako bat jasotzen dik: «kapelan luma bat darabilen eta jende guztiaren atzeko aulkian elizarako sarreran dagoen gizon harengandik erreskatatu beharko duzu txartela, hala nahi duzunean». Eta esan zidana ongi ulertzeko astirik eman gabe, harriduraz sor eta lor utzi nindian; istant batean jasotzen dik atzealdean daukan kaxa, bizkarrean hartu eta zer gehiago egiten duen ni konturatzerako inguruko jendartean galtzen duk. Eta hain zuzen ere une horretan dator berriro, egia esan, nire kontsolamendurako, Printzeak jauregira bidalitako zalduna eta barre artean iragartzen zioke oreina hil dutela eta, bere begien aurrean, bi ehiztarik eraman zutela sukaldera. Printzeak, orduan, adoreturik, besotik heltzen zidak, plazatik kanpora eramateko asmoarekin eta esaten dik: «Tira! Profezia betiko alprojakeria bat besterik ez zen orduan eta ez zituen merezi gastatutako denbora eta dirua». Baina hura harridura gurea, oraindik hitz hauek esaten ari zela, plaza osoaren biran egundoko garrasiak entzun, eta guztien begiak jauregi aldetik lasterka bizian datorren hiltokiko txakurtzar batengana zuzentzen direnean, zeinak morroi eta mirabeek pertsegiturik, oreina lepotik harrapakin bikaintzat helduta dakarren eta gure oinetatik hiru urratsetara erortzen uzten duen: halako moldez, non izatez emakumearen profetia, aurrez iragarritakoaren bahitzat betetzen den, eta oreina, nahiz eta hila, plazako merkatuan bertan bidera irten zitzaigun. Neguko egun batez zerutik erortzen den tximistak ez nindukeen era suntsigarria-

goan joko une hartan baino, eta inguratzen ninduen jendearengandik neure burua libre ikusi nuen bezain laster, emakumeak seinalaturiko kapelan luma zeukan gizona aurkitzea izan zuan, baina hiru egunez jarraian bidali izan nituen neuretako inork ezin izan zidaan hartaz berri txikienik ere eman: eta orain, Kunz adiskidea, duela aste banaka batzuk, neure begiez ikusi diat gizon hori, Dahmeko landetxean.

Eta honenbestez jaregin zuen txanbelanaren esku; eta izerdia xukatzen zuen bitartean, berriro ohean amildu zen. Txanbelanak, zeinak ateratako iritziaz alferrikako ahalegintzat zeukan Printze Hautesleak zuzendu edo alda zezan bere iritzia, txartelaz jabetzeko edozein bitartekoz baliatzeko eskatu zion, eta tipoa gero bere zoriaren arabera uzteko, baina Printze Hautesleak deblauki erantzun zion ez zuela modurik ikusten, nahiz eta hura gabe geldituko zen, edota ezaguera hura gizon harekin galduko zen ideia hutsakia deskontsolamendua eta etsipeneraino eramaten zuela. Adiskideak galdetzean ea neurririk hartu zuen ijito-andrea non zegoen ikertzeko, Printze Hautesleak erantzun zion *Gubernium*-a, beste aitzakia batekin igorritako ofizio batekin, printzerriko plaza orotan eta bakoitzean alferrik ibilita zegoela emakume haren aztarnaren bila: nahiz eta, gainerakoan eta, halere, xehatu nahi izan ez zituen arrazoiengatik, zalantzak zituen Saxonia guztian aurki zitekeenetz. Zoriak nahi izan zuen txanbelana, Brandenburgeko Markan emazteari egokitutako ondare bat zela-eta -Kallheim kondearen, karguaz gabetu eta handik gutxira zendutako artzakanzilerraren senipartea- orduan Berlinera joateko asmotan izatea; halako moldez, non Printze Hautesleari izan ere estimu handia zion, une batzuetan gogoeta egin eta gero, galdetu zion arazo hartan

esku librea uzteko prest zegoen, eta hark hunkipenez eskua bularraren kontra estuturik erantzutean:

—Kontu egik heu haizela ni eta ekardak txartela! —egun batzuk lehenago abiatu zen, eta zenbait betekizun gaintetik kendu ondoren, Berlinerako bideari lotu zitzaion txanbelana, emaztea Dresdenen utzirik eta zerbitzari bakar batzuen konpainian.

Kohlhaas, bitartean esan bezala Berlinera iritsi eta Printze Hauteslearen xedapen berezi batez kartzela aforatu batera gidatu zuten, non ahal bezain abegi erosoan egin zioten berari eta bere bost seme-alabei eta bertan entzutegiko tribunalaren aurrean agertu behar izan zuen berehalaxe eta enperadorearen babespeko lurraldean bakea hausteaz erantzun behar izan zuen, Vienatik bidalitako abokatu inperiala azaldu bezain laster; nahiz eta kontra egin zuen esanez bere alegazioan Saxoniara egindako bere sarraldiarengatik ezin zezaketela auzitara eraman, ezta bertan egindako desarauengatik ere, Lützenen Saxoniako Printze Hauteslearekin itunduriko hitzarmenaren indarrez, aditzera eman zitzaionean enperadorea, zeinaren prokuradorea baitzen demanda jartzen zuena, ezin zitekeela neurri hartara makur, laster onartu zuen egoera berria, zeren auzia zehaztu eta argitu baitzioten, Dresdendik jakina zenaren kontrara, Wenzel von Tronka *Junkerraren* aurkako bere auzian bere gogo bettera ordainduko ziotela kaltea.

Hala gertatu zen, beraz, txanbelana Berlinera iritsi zen egun berean, legeak Kohlhaasez epaia ematea eta ezpatazko heriotzara kondenatua izatea; epai hau, gauzen egoera nahasia eta bere baitan zeukan onberatasuna gorabehera, inork ez zuen beteko zenik espero, eta hiri osoak, Brandenburgeko Printze Hautesleak Kohlhaasi zion onginahiaurrean,

kartzela-zigorraldi huts bihurturik derrigor ikustea espero zuten haren eskusartzez, nahiz eta agian luze eta gogorra izango zen.

Txanbelanak, zeinak segituan ikusi zuen ez zegoela denbora galtzerik bere jaunak emandako mandatu bete nahi bazuen, suhartasunez eta saiamenez ekin zion bere egitekoari gorte-jantzitan Kohlhaasen aurrean igaroz, berau presondegiko leihoan kokaturik zegoen goiz batean bidaztiak nola pasatzen ziren begira; eta bere buruaren bat-bateko zirkin batetik, eta batez ere instintuz eskua bularrera, erlikia-ontzia zintzilik zeukan tokira eramatearen keinutik, zaldi-tratulariak ikusi zuen ondorioa atera zuenez gero, bestearen barretetik une hartan pasatutakoa gertamen askitzat hartu zuen txartelaz jabetzearen ondorengo ahaleginera beste pauso bat gehiago emateko. Makuluekin harat-honat zebilen atso zahar piltzarketari bati dei egin zion, zeina Berlingo kaleetan barrena trapu zaharrak biltzen ari ziren beste batzuen artean begiz jo zuen, eta zeina adinez eta arropaz Printze Hautesleak deskribatutakoari agi zenez ongi samar egokitzen zitzaion; eta agerpen pasakor batean txartela eskuratu zionaren hazpegiak Kohlhaasi ez zitzaizkiola grabatu izango uste izanik, berriaz ordeztea deliberatu zuen, behar izanez gero, ijito andrearen itxurak Kohlhaasen aurrean egin zitzaion. Horrela, bada, ordura artekoaz jakinaren gainean jartzeko Jüterbocken Printze Hauteslearen eta aipatutako ijito-andrearen artean gertaturiko guztiaren berri zehatza eman zion, zeren ez baitzekien lehena bere azalpenetan noraino iritsi zitzaion Kohlhaasi, txartelak zeuzkan hiru termino misterioetsuei zegokienez; eta era lokabe eta ulertezinez erdi ikusarazi behar ziona azaldu ondoren, saxoniar gorterako hainbesteko garrantzia zuen txartel batez, amarruz edo indarrez,

jabetzeko hartzen ari ziren neurriez emakumeak ustez jakin zezakeena-, berarekin seguru egongo ez zelako aitzakiapean, Kohlhaasi erreklamatzeko erregutu zion arrisku handieneko egunetan emakumeak berak gorde zezan. Sari bikain bat agindu ondoren, zeinaren parte bat aurretiaz ordaindu behar izan zuen txanbelanak emakumearen eskariz, segituan hartu zuen piltzarke-tariak bere eskuetan aipaturiko mandatua betetzea; eta nola Herse, Mülbergen eroritako morroiaren amak, Kohlhaasi bisita egiteko baimena zeukan eta zenbait ilargiz geroztik emakume hau ezaguna zuen, kartzelazainari emandako eskupekotxo baten truk handik egun batzuetara zaldi-tratulariarenganaino iristea lortu zuen.

Emakumea gelan sartzean, Jüterbocken txartela eman zion ijito-andre bera ezagutu zuelakoan zegoen Kohlhaas, eskuan zeraman eraztuna eta lepotik zintzilik zerabilen koralezko koilarearengatik; eta egiantza egiaren aldean beti egoten ez den era berean, hemen guk aditzera eman nahi dugun zerbait gertatu zen, nahiz eta onartzen dugun hori zalantzan jarri nahi duenaren eskubidea: txanbelanak ez-egitekorik ikaragarriena egin zuen, eta ijito-andrearen itxurak egiteko Berlingo kaleetan atzeman zuen piltzarketari zahar-rangan berarengan, hain zuzen ere imitatzea nahi zuen ijito-andrea berarekin topo egin zuen. Emakumeak, makuluen gainean, aitaren inguruan ikaraturik mordoxkatu ziren hurrei kontatu ziena, edozein kasutan ere, izan zen zenbait denbora zela Saxoniatik itzuli eta Brandenburgen aurkitzen zela eta, izen faltsupean, berehalaxe eskaini ziola bere burua txanbelanari honek burutua ikusi nahi zuen zeregina betetzeko, galdera nabarmenki ausartak Berlingo kaleetan zehar egin zituelarik udaberrian Jüterbocken izandako ijito-an-

dreari buruz. Zaldi-tratulariak Lisbeth emaztearen hain itxura estrainioa hartu zion, non galdetu ere egingo ziokeen agian haren amona ote zen: ez ziren soilik aurpegiko hazpegiak, eskuak, ederrak nahiz eta hezurtsuak eta hitz egiterakoan zeukan mugitzeko era: emazteak lepoan zeukan orezta ere nabarmendu zion; burutik gurutzatu zitzaizkion ideia kontrajarriek txunditurik, esertzeko erregutu eta txanbelanaren zer egiteko zerkarkioten galdetu zuen txunditurik. Kohlhaasen txakur zaharrak, isatsari eraginez, oinak usnatzen zizkion eta emakumeak berau laztantzen zuen bitartean, kontatu zion «txanbelanaren mandatua zela txartelak Saxoniako gortearen zein hiru arazo larriri erantzuna ematen zien agertzea; erne jar zezala Berlinen jadanik mandatarri bat zegoela dokumentuaz jabetzeko; eta Kohlhaasen paparrean zintzilik jadanik seguru egongo ez zelako aitzakiarekin, erreklama ziezaiola. Baina berak txartela amarruz edo bortxaz kentzeko mehatxuak akiakula hutsak zirela esan nahi ziola; zeren, Brandenburgeko printzeak babesten zuelarik, bere zaindaritzapean egonik, ez zuela txartelaren kezka txikienik ere izan behar; papera zegoen tokian berekin baino seguruago zegoela, eta kontu handiz ibiltzeko inori ez emateko inolako aitzakiaren pean. Halere, amaitzeko esan zion berak zuhurtzat zeukala txartelari Jüterhockeko merkatuan eman zitzaion enplegua ematea, mugan Von Stein Junkerrak egin zion iradokizunari jaramon eginez eta Saxoniako Printze Hautesleari bidaltzea, askatasuna eta biziaren truk, berak inolako etekinik atera ez ziezaiokeenez gero.

Kohlhaasek, lurrean oinpean zapaltzen zuen une berean bere etsaiaren orpoa zauri hilgarriz jotzeko ahalmena eman zitzaiolako distiratsu, erantzun zion, emakumeari eskua estutzen zion bitartean:

—Munduko ezergatik ere ez, emakumea, munduko ezergatik ere ez! —eta oraindik jakin nahi izan zuen txartelean nolako erantzunak zeuden galdera ikaragarrientzat.

Emakumeak, oinetan pikotxean jarri zitzaion haur txikiena altzoan hartuz, esan zuen:

—Munduko ezergatik ez. Kohlhaas, zaldi-tratularia: bai ordea haurtxo horail polit honengatik! —eta begi handiez begiratzen zion haurrari irribarretsu balaku eginez, bularraren kontra estutu zuen; gero esku iharrez poltsan zeraman sagar-ale bat eman zion.

Txunditurik, Kohlhaasek esan zion seme-alabek, nagusi izatean, goratu egingo zutela bere jokaerarengatik, eta beraiei eta bere bilobei eman ziezaiekeen jarraibiderik hoberena txartela gordetzea zela hain zuzen ere. Gero galdetu zuen ea nork bermatzen zion, izan zuen esperientzia izan ondoren, berriz ez ziotela iruzur egingo, eta Printze Hautesleari txartela ematea ez ote zen Lützenen bildutako tropa disolbatzea bezain alferrikakoa izango.

—Emandako hitza jan didanari —esan zuen— ez diot nik sekula gehiago neurea zuzenduko, eta argi eta garbi zeuk eskatzen badidazu bakarrik egongo naiz prest, emakumea, hain era miragarrian sufritutako guztiaren ordaina eman didan txartel hau gabe gertzeko.

Haurra lurrean uzten zuen bitartean, emakumeak esan zion ez zuela arrazoi faltarik eta nahi zuen bezala jokatzeko. Eta horrenbestez makuluak eskuetan berriro hartu eta alde egin nahi izan zuen. Kohlhaasek berriro txartel miragarriaren edukiaz egin zion galdera; emakumeak iheskor erantzutean ireki zezakeela, nahiz eta jakin-min hutsarengatik izan, alde egin aurretik

oraindik beste mila galderaren erantzuna jakiteko gogo bizia zuela esan zion Kohlhaasek; nor zen egiazki, nola jabetu zen zeukan jakiteaz, zergatik uko egin zion Printze Hautesleari emateari, berarentzat idatzirik egonik, eta hainbeste milaka pertsonaren artean, zergatik eskuratu zion berari, inoiz bere jakiteaz axolatu ez zenari...?

Baina une horretan eskaileretan gora zetozen poliziako guardiek ateratzen zuten zarata entzun zen; halako moldez, non emakumea gela haietan aurkituko zuten beldurra supituki harturik, erantzun zion:

—Ikusi arte, Kohlhaas, ikusi arte! Berrero elkarrekin topo egitean ez zara horren guztiaren erantzun faltaz geldituko. —Eta aterako bidea harturik, ozenki esan zion:

—Ongi bizi, haurtxook, ongi bizi! —banan-banan txikiei musu eman eta irten egin zen.

Bitartean Saxoniako Printze Hautesleak, bere pentsamendurik goibelenetan murgildurik, garai hartan Saxonian ospe handia zuten eta Oldenholm eta Olearius zeritzaten bi astrologori dei egin zien beretzat eta bere ondorengo askaziarentzat hain misterioetsua eta garrantzizkoa zen txartelaz burubide eskatzeko; eta Dresdengo jauregiaren dorrean sarturik zenbait egunez ikerketa sakonean aritu ondoren, gizon hauek ezin izan ziren bat etorri profezia hura etorkizuneko mendeaz ala presentiaz zen, eta agian Poloniako korroaz, zeinarekiko harremanak oraindik oso gerrazkoak ziren: areagotu egin zen subirano dohakabea aurkitzen zeneko ondoeza, etsipena ez esatearren, baretu ordez, jakitunen eztabaidarekin, zeina azkenerako bere barrenak ezin jasanezko mailaraino hazi baitzitzaion. Honi gehitu zitzaion txanbelanak aldi berean haren emazteari aditzera emandakoa, zeina berarekin Berli-

nen topo egitera baitzihoan, alde egin aurretik fineziaz Printze Hautesleari jakinaraz ziezaiola zeinen badaezpadakoa zen huts egindako ahaleginaren ondoren, zeinaren ondoren gehiago agertu ez zen emakume baten bitartez, Kohlhaasek bere eskuetan zeukan txartelaz jabetzeko itxaropena, zeren, aktak arretaz aztertu ondoren, Brandenburgeko Printze Hautesleak herio-epaia sinatu baitzuen, eta exekuzio-eguna Erramu-igande ondoko astelehenerako finkaturik zegoen. Albiste honen aurrean Printze Hautesleak, bihotza atsekabez eta damuz urraturik, bizitzaz etsitakoak bezala, bi egunez bere ganbaran sartuz erantzun zuen, ez zuen inolako jakirik hartu eta hirugarren egunean, *Gubernium*-ari ohar labur bat bakarrik utzirik, Von Dessauko printzearekin ehizara zihoala esanez, Dresdendik supituki alde egin zuen.

Nora joan zen eta egiazki Dessauera jo zuen, bere horretan utziko dugu, zeren guk kontakizun hau idazteko erkatzen ditugun kronikek, puntu honetan, bata bestea ukatu eta gezurtatu egiten baitute era estrainioan. Kontua da Dessauko printzea egun haietan ehizarako ez zela gauza eta Braunschweigen gaixo zegoela, Heinrich osaba dukearen etxean, eta Heloise dama biharamun arratsean heldu zela, Kunz jaunak, senarrak, Berlinen zuen etxera, Königstein Kondea zelako baten konpainian, zeina lehengusutzat aurkeztu baitzuen.

Bitartean, eta Printze Hauteslearen aginduz, herio-epaia irakurri zitzaion Kohlhaasi, kateak kendu eta bere ondareari buruzko paperak, Dresdenen hartutakoak, itzuli zitzaizkion; eta tribunalak izendaturiko kontseilariak galdetu ziotenean zeuzkan ondasunak hil ondoren nola erabiltzea nahi zuen, notarioaren laguntzarekin seme-alaben aldeko testamentua egin

zuen, eta Kohlhaasenbrückekeo eskribaua, bere adiskide zintzoa, izendatu zuen haien tutore. Ondoren bere azken egunetako bakeak eta lasaitasunak ez zuen izan parekorik; zeren Printzearen xedapen berezi baten indarrez, aurkitzen zeneko gaztelua ireki zuten, hirian ugari zituen bere adiskide guztiei gau eta egun sarrera irekiz. Bai, oraindik beste poz bat ere izan zuen, Jakob Freising teologoa, Lutero doktorearen mandatari gisa, kartzelan sartzan ikustekoa, zeinak honek bere eskuz idatziriko gutun bat zekarren, zalantzarik gabe oso gogoangarria baina galdu egin zena, eta elizgizon honengandik, Brandeburgeko bi dekanoen aurrean, hartu zuen komunio sakratuaren kontsolagarria.

Honela iritsi zen, hiriaren ezinegon orokorraren erdian, Kohlhaas salbatuko zuen ebazpen orokorrari itzaroteari uko egin nahi ez zionez gero, Erramu-igande ondoko astelehen patu txarrekoa, -zeinean zaldi-tratulariak munduarekin zorrak kitatu beharko baitzituen justizia bere eskutik hartu izanaren ahalegin presazkoegiarengatik. Sartu berria zen, guardia bortitz baten konpainian, bere bi mutikoak besoetan zituela (zeren hobari hau espresuki eskatu baitzuen akusatuen aulkitik), Jakob Freising teologoa aurretik zuela, bere kartzelako ate nagusitik, eta adio-seinaletzat eskua estutzen zioten aurpegi ezagunen borbor saminduaren artetik, aurpegia aldaturik Printze Hauteslearen jauregiko gazteluzaina hurbildu zitzaion eta orri bat luzatu zion, atso zahar batek bere eskuz eman omen ziona. Kohlhaasek, ozta-ozta ezagutzen zuen gizonari harriturik begiratzen zion bitartean, ireki orria, zeinaren lakretan grabaturiko zigiluak ijito-andre ezaguna segituan gogorarazi zion. Baina nork deskriba lezake sentitu zuen txundidura bertan honako mezu hau aurkitu zue-
nean:

Kohlhaas, Saxoniako Printze Hauteslea Berlinen zegok; jadanik plazarako bidea hartu dik eta bereizgarritzat, galdor zuri eta urdina zerabilek. Ez diat esan beharrik zerk dakarren hona. Erlikia-ontzia lurpetik atera eta bertan dagoen txartela ireki nahi dik, hik lurra hartu orduko.

Elisabeth

Kohlhaasek, erabat txunditurik, gazteluzaina-rengana bihurtu eta galdetu zion papera eskuratu zion emakume miragarria ezagutzen al zuen. Baina gazte-luzainak erantzun zion:

—Kohlhaas, emakume hori... –gizona era miresgarriz mutu geratu zen une batean, halako moldez, non bere bideari berriro lotu zitzaion ahukuak arrastaka eramantik, Kohlhaasek ezin izan zuen hauteman, itxuraz gorputz osoak dardara egiteari utzi gabe, besteak adierazi ziona. Exekuzio-tokira iristean, Brandenburgeko Printze Hauteslea zaldian eserita aurkitu zuen, eta bere segizioarekin, zeinean, besteak beste, Heinrich von Geusau jaun artzakantzilerra aurkitzen zen, jendetza neurtezinaren artean: eskuinaldean Franz Miller prokuradore inperiala zeukan, herio-epaiaren jatorrizko agiria eskuan zuela; ezkerraldean Dresdengo gortea-uzitegiaren diktamenarekin, bere abokatua, Anton Zäuner legegizona; jendetza ixten zuen zirkuluerdia- ren erdian, heraldo bat gauza-bilduma batekin eta bi zaldi mairuak bridetatik zituela, osasun-dirdiratan eta apatxez lurra zanpaka. Gero Heinrich jauna artzakantzilerrak puntuz puntu eta Wenzel von Tronka *Junkerrari* inola ere amore eman gabe Dresdenen bere jaunaren izenean aurkeztutako demanda aurrera atera baitzuen, halako moldez, non zaldiak, bandera bu-ruen gainetik inarrosi zitzaielarik eta horrela gisakoa zenera berriz itzulirik, larru-tokitik hartu eta *Junke-rraren* jendeak gizen zitzan eramanak izan baitziren

harik eta, hartarako sorturiko batzorde baten aurrean, Brandenburgeko komisionatuari entregatu zitzaizkion Dresdengo merkatuan. Gero Printze Hautesleak hitz egin zuen, guardiak lagundurik Kohlhaas muinora igo eta beragana aurkeztu zenean:

—Gaur duk justizia egin zaian eguna, Kohlhaas. Hara, hemen bihurtzen diat Tronkako gazteluan indarrez kendutako guztia, eta nik, hire subirano naizen aldetik, bihurtzera beharturik nengoena: zaldiak, florinak, arropak eta Mühlbergen galdu huen morroiaren sendaketa-gastuak ere bai. Pozik al hago nirekin? —Kohlhaasek besoetan zekartzan semeak lurrean utzi zituen bere ondoan, artzakantzilerraren keinu batera eskuratu zioten diktamena gainetik irakurtzen zuen bitartean, begi txinparta-jario eta handiekin; eta Wenzel *Junkerra* bi urteko presondegira kondenatzen zuen pasartea aurkitu zuenean, urrunetik, erabat huntiturik, eskuak bular gainean gurutzaturik, Printze Hauteslearen aurrean ahuspeztu zen. Zutitzen ari zen bitartean, eta eskua magalean ezarririk, pozik ziurtatu zion artzakantzilerrari mundu honetan izandako guraririk handiena bete zitzaiola; joan zen zaldienganantz, ikuskatu zituen eta ahurkada bana eman zien lepondo gurian; eta kantzilerrari, berarengana itzultzean, alai esan zion «Heinrich eta Leopold, bere bi semeei opari egiten zizkiela!» Zaldiaren gainetik onginahiz Kohlhaasengana bihurturik, Heinrich von Geusau jaun kantzilerrak agindu zion, Printze Hauteslearen izenean bere azken nahia sakratuki beteko zela eta eskatu zion bilduman aurkitzen ziren beste gauzak ere bere iritzi onaren arabera banatzeko. Orduan Kohlhaasek Hersen ama zaharrari dei egin zion, berau ere plazan hautesman baitzuen, jendartetik irten eta aurrera zedin eta gauzak ematen zizkion bitartean esan zion:

—Tori, ama, hau zeurea duzu! —diru-kopurua, berarentzat kalte-ordain gisa, bildumako gauzen artean zegoena, oparitzat gehitu zion, zahartzaroko egunetan zaingarri eta bizigarri izan zekion. Printzeak ahotsa goratu eta esan zuen:

—Orain, Kohlhaas, zaldi-tratulari hori, honela ordaina harturik, presta hadi, maiestate inperialari, zeinaren prokuradorea hemen dagoen, bere lurraldean bakea hautsi izanagatik ordaina ematera! —Kohlhaasek, orduan, kapela erantzi, lurrera jaurtiki eta prest zegoela erantzun zuen; eman zizkion semeak, beste behin lurretik jaso eta bularraren kontra estutu ondoren, Kohlhaasenbrücke eskribauari, eta honek malko isilekin plazatik zeramatzan bitartean taukira hurbildu zen. Zapiaren korapiloa askatzen ari zen eta paparreak irekitzen, jendeak eratzen zuen zirkuluarri begiratu bizkor bat egitean, beragandik hurbil eta bi zaldunen gorputzen atzean erdi ezkutaturik, aipaturiko gizona hauteman zuen galdor zuri eta urdinarekin. Kohlhaasek, inguruan zeukan guardia supituki us-tekabean harrapatu zuen pauso bat emanik, haren aurre-aurrean jarri zen eta bularreko erlikia-ontzia askatuz; atera txartela, kendu zigilua eta gainetik irakurri zuen: eta begiak galdor zuri eta urdinezko gizonarengana tinko zuzendurik, zeina itxaropen ederrak egiten hasita zegoen ordurako, sartu ahoan eta irentsi egin zuen. Galdor zuri eta urdinezko gizona konortetik gabe amildu egin zen, karranpa artean, lurrera. Eta Kohlhaas, gizonaren adiskideak, aztoraturik berarengana makurtu eta altzarazten ahalegintzen ziren bitartean, urkamendira abiatu zen, non bere burua borroaren aizkorapean erori zen.

Hemen amaitzen da Kohlhaasen historia. Jen-dearen dolumin orokorraren artean, zerraldo batean

ezarri zuten gorputza; eta eroaleek hiriko harresiez kanpo zegoen kanposantuan lurra emateko jaso zuten bitartean, Printze Hautesleak zenduaren semeak deitu eta jauregiko paje-eskolan heziak izan zitezen artzakantzilerrari agindua emanik, zaldun egin zituen. Handik gutxira Dresdenara itzuli zen Saxoniako Printze Hauteslea, arimaz eta gorputzez erdiraturik, eta ondorengoa historian kontsultatu beharrekoa da. Kohlhaasi, ordea, joan den mendean bertan ere ondorengo alai eta sendoak bizi izan zitzaizkion Mecklenburg aldean.



Liburu honen edizio lanak 2018ko urriaren 17an bukatu genituen. 205 urte lehenago Goddelaun Georg Büchner idazle, mediku, zientzialari eta iraultzailea jaio zen. 23 urterekin hil zen eta bost lan soilik argitaratu zituen, tartean *Dantonen heriotza* eta *Woyzeck* munduko literatura, antzerkia eta opera bi mendez eraldatuko zuen.

